

Paulo Zamarripa

FIRI-FIRI

IPUIN ETA NAHASTE


Sarrerea:

Adolfo Arejita

Edizinoa:

Nagore Etxebarria

Maribi Egia



SUTONDOAN SORTA
LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Paulo Zamarripa 1877. urtean jaio zan. Txorierritarak zituan gurasoak, baina Laredon jaiotea subertau jakon, aitari eta amari aldi baten han bizitea tokau jaken eta. Txikitan etorri zan, oster, Sondikara biziten, gurasoen jaioterrira, eta han beretu zituan euskerea eta bertoko bizimodu eta ohiturak.

Euskerearen alorlean lanean gazterik hasi zan eta hil arterainoko guztian behargin, zal eta iraun handikoa gertatu zan. Gehien-gehienean mendealdeko euskalkian jardun eban, hizlaur eta hizneurtuz idatziz. Lana alde bikoa da:

Hizkuntza alorlean. *Gramatica Vasca, Vocabulario vasco-castellano y castellano-vasco eta Manual del Vasco-flo.*

Literaturaren alorlean. *Gora begira, Anayak gara, Zaparradak eta, Kill-Kili eta Firi Firi.*

Liburu honetan agertzen diran idatziak *Gaceta del Norte* izeneko egunkarian argitaratu ziran lehenengo, eta gero liburuan 1935ean testuak egokiturik.

PAULO ZAMARRIPA

Firi-firi

Ipuin eta nahaste

PAULO ZAMARRIPA

Firi-firi
Ipuin eta nahaste

Sarrerea
Adolfo Arejita

Edizinoa
Nagore Etxebarria
Maribi Egia

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2012



AURKIBIDEA

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
 Colon de Larreategi 14, 2
 48001 BILBAO
 Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
 Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
 Silutegia: Encugraf, S.A.L.

Lege Gordailua: BI-1280-2012
 ISBN: 978-84-92599-29-5

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez. Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zati-
 ren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin
 (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Zamarriparen literatur sorkuntza eta gramatika Txorierriko ertzetik, <i>Adolfo Arejita</i>	11
FIRI-FIRI	
IPUIN ETA NAHASTE	
Berbaurretxua	57
I. Gauzea firi-firi zelan jausten dan	58
II. Txitxu arpegia luzatuta	61
III. Ai, Unamuno geurea!	63
IV. Txitxu etimologiak ateraten	66
UGT deritxan zereko zerak	68
V. Campoamor diputadu-neskatilea eta botoak	69
VI. Gaurko haize firi hau eta loteria	71
VII. Ostu deuskue etxerik erdia	74
Jiménez Asua ez da Asukoa	75
VIII. Don Kitote eta Gantxo Pantza	77
Mahaikoa ez da nahikoa	68
IX. Sánchez Guerra, Santxez Bake	80
Otxorio Gariarto ez dago isilik	80
Horrako UGT horregaz	82
X. Txitxu gurea Madrileria	83
Txuri Txitxuren kolkora	83
Beste katu bat aitatuaz	85
XI. Ez dira bihurtu, antza	86
Caldu ete dira, ba?	86
Eguazten gaueko konferentzia	88

XII. Agertu jataz Txixu eta Txuri	89
Zelan ibili diran	90
XIII. <i>Matxalen</i> , ezkertarrak eta trenak	93
XIV. Ez galdu umore ona!	96
Tapiaren tapea	97
XV. Otxorio eta bere seine polita	99
Txixu konplot baten sartuta	100
XVI. Gantxo Pantza eta bere zoritxarra	103
XVII. Mitina, motina eta <i>mutina</i>	106
Karlismak daukie errua.....	107
Eta orain Txuri zer egin ezean	107
XVIII. Maciari, <i>mazia</i>	109
Otxorio Gariartori, mazua?	110
Eta sozialistak, zer? Ostaturia?	110
XIX. Ez da edozelangoa	112
Badaezpada be, konsultatu bat	113
Hatan-horretan	113
XX. Euskalzalea bada, hainbat hobeto	115
XXI. Pérez Madrigal	118
Bakotxa fusil bigaz!	118
Handia da, gero!	119
XXII. Casanellas, morroi ospetsua	120
Companys, Maciaren otsein nagusia	121
Txixu liburu barri batez	121
XXIII. Abadeak ondo bizi dirala... ..	123
Albornoz gizajoa.....	124
Horreek jesuitok!	125
XXIV. Largo Caballero-eta	126
XXV. Granadako txinel batzuk abade bigaz	130
Errazoa emotea izango zolan.....	131
Zer jazoten jako Txixuri?	131
XXVI. Kontu-kontuak	133
Maciaren lagunak Tarragonan	134
XXVII. Txixu gaur okerra dago	136

XXVIII. Autonomia eta... ..	140
Asturiatan	141
Txixu bildurtuta	141
XXIX. Laikoak eta laikoak	143
XXX. Txixu, ugazaba Bilbotik dala	147
XXXI. Kanta zaharrak kantetan-eta	150
XXXII. Txuri Zaharizera bidean	154
XXXIII. Txuri Zaharizzen	158
XXXIV. Txuri Txixuren ondora bihurtuta	162
XXXV. Txurik dauka suertea!	165
XXXVI. Maura sutsua ez dabil firi-firi	169
Esan deusku Txurik bere eretxia	169
Emon dau Txixuk bere berbea	170
XXXVII. Txixuk badino zeozer	173
XXXVIII. Azañaren lepotik	176
XXXIX. Portugaleteta eta Portugaleteko gauzak	179
XL. Portugaleteta aitatuaz, zerbait gehiago	183
XLI. Ipuin zahar bat eta gauza barri batzuk	186
XLII. Sozialista-kontuak eta karlista-kontuak	189
XLIII. Sozialistak aitatuaz, zerbait gehiago	192
XLIV. Heldu jaku Radio Moscú	194
XLV. Largori eta Gaubekari itxaroten	198
XLVI. Maura Garrandi eta Azaña Gibeltxiki	202
XLVII. Ez dira guztiak lotiak	205
XLVIII. Txurik Txixu alkate izatea gura dau	209
XLIX. Badabil Txixu zeozetan	213
<i>Ondo ibili, irakurlea!</i>	217
<i>Azkenengo orduan okerrik handiena</i>	218

Zamarriparen literatur sorkuntza eta gramatika Txorierriko ertzetik

Paulo Zamarripa (1877-1950), alderdi diferenteakaitik gogoango dogu euskal hizkuntzaren eta literaturaren historiarako: euskal idazle –eta horren barruan narratzaile, dialogile eta poeta–, kazetari izan zala be baieztu daiteke –zutabegile edo–, gramatikari –eta horren barruan metodogile–, lexikografo, dotrina-idazle..., baina beste guztiaren gaineratik kontalaria zala esan leiteke.

Jaio, Laredon egitea suertau jakon; gurasoak, Bernardino eta Teresa –sondikoztarrak eurak–, aldi baterako Kantabriako uri horretara joanak ziran, Paulo jaioko zan urte berorretan hatan be. Baina Paulo ume zala etorri ziran atzera Sondikara. Halanda ze, ia jaioterri bi izan zituala esan daiteke: Laredo eta Sondika, eta bigarren honen ordeez, ez dakit Asua esatea zehatzago ez ete dan, nahiz udalerrri ez izan.

XIX. mendearen azken aldiko giro horretan hazi zan Paulo mutikoa Txorierriaren bihotzean. Sondikan gaur euskerea endekatu samar badago be berbertako jentearen artean, ez ostera orduko sasoian, Paulo txiki eta gaztetxo zan aldian. Trenbideak, tailerrek, aideportuak, lantegiek eta gerraosteko etxegintza ugariak gerora oso ro bestelakotu dabe, Sondika eta Asu aldearen itxurea, gizartea eta bizimodua. Geroko aldakuntza guztiorrek gitxi ikututa egoan orduko Sondika, Txorierriko beste herri eta auzoen antzera: Erandiogoikoa, Asua, Loiu, Larrondo, Derio edo Zamudio egozan antzera, guztiok be

Bilbo hur euki arren. Dana dala, gaur Txorierritzat joten dana ez dator guztiz bat Zamarripak eta aurreko belaunaldiak hatakotzat daukienagaz. Gaur Larrabetzuraino luzatu ohi da Txorierrri eskualdea, baina lehenago sartalderantz eta ipar-hegoetarantz hedatzen zan. Zamarripak honetara zedarritzen dau beronen esparrua:

«Chorierrri, lo mismo que Arratia, es una comarca compuesta de varios pueblos. Esta, la de Chorierrri, se compone de los nueve siguientes: Deusto, Erandio, Lejona, Lujua, Lauquiniz, Gatica, Derio, Zamudio y Sondica. Y según algunos, Munguía también forma parte de esta comarca, resultando en tal caso que son diez los pueblos que la componen» (*Manual del Vascófilo*, 266 or.).

Txorierrriak barru zituan lehen, gaur Bilboren atal dan Deustuko eleizate zaharra, Erandio eta Leioa batetik, eta gaur Mungialdetzat ditugun Laukiz, Gatika eta Mungiaren parte diran auzo batzuk, berenberegí aitatzen ez baditu be: Atxuriko auzoa, Zabalongo eta Laukariz dira urrean Mungiako udal barrutiaren atalok.

Ibar zabal eta leun horretako herri-auzoen eta jentearen artean hartuemon estua ezagutu da lehenagotik be, eta herri bakoitxak berez dauen besteko nortasuna euki dau Txorierrri haranak eta txorierritar izateak. Bizimodua antzekoa izan dabe paraje osoan, jentearen izakerea be baietz esan daiteke, eta euskera-modua zertan esan be ez. Txorierrriko euskera-moduaren bardintsutasunaz urrunago doa Zamarripa:

«La variedad dialectal chorierritarra, que se sale de lo geográficamente comprendido por este nombre y se extiende más allá de Munguía llegando hasta Guernica, por una parte, y hasta Durango y Arratia por otras, tiene mucha semejanza con la variedad dialectal de Arratia, y con la de Orozco. En cuanto a la fonética apenas se distingue de la de Arratia. Y en cuanto al léxico, en su mayor parte, casi en su totalidad, se confunde con la de Arratia y Orozco. Voces y acepciones que no se usan en Marquina y Lequeitio, por ejemplo, y se usan aquí, tienen vida, casi todas ellas, en las variedades de Orozco y Arratia» (*Manual del Vascófilo*, 268 or.).

Txorierrriko herriak izentetan dituen errefracuak be badira, hurkotasun eta baterako nortasun hau on egitera datozenak. Haetarikoa dogu askoren aho-mihinean dabilen: *Derio, Zamudio, Sondike ta Loiu, asko erein da gitxi koiu*. Edo larrabetzuarrek —orain Txorierritzat dago, baina lehenagoan bazter geratzen zan— haran horretarantz dagoan beste herrietakoakaitik burlazar esan izan daben beste hau: *Lezama, Zamudio, Sondike, Derio, frakatxu zarratatik zorrie dario*.

Gatozan atzera Zamarriparen harira. Eskolara Sondikan hasi zan, urrean; han ikasi bide zituan lehenengo letrak. Gaztelaniaz izango ziran, kontizu. Handik Durangora joan zan ikasketei jarraiereara emotera. Durangon jesulagunek arteztuten eben prezeptorian ikasten egon ete zan gagoz. Zehaztasun garbirik ez dogun arren, susmoak horretara garoaz. Gasteizko abadetza-ikastetxera, seminaria, mutil bardingotuta joan zan, abade egiteko asmo sendoa hartuta, antza danez. 1898 edo 1899an joan zatekean; 21-22 urteko zala. Badakigu ikasketa luzeak (*karrera luzea*) osotu zitala han: hiru ikasturte filosofia ikasten eta bost teologia; guztira zortzi urte. Ziur dakigu, baita be, 1905ean hartu zitala ordena txikiak eta diakonutza; Santi Onaindiak dinoanez¹, Cadena Eleta gotzainak eskuak ezarten eutsazala. Hurrengo urtean (1906) hartu eban abadetzako ordenea, 23 urteko mutil gazte zala.

Izentau eutsiezan arimazain ardurak, ondokoak izan ziran hurrengorik hurrengo. 1907an Almkara (Bermeo) bialduko dabe koadjutore; beronen lehenengo izendapena, eta era berean Bermeogazko lehenengo hartuemon, hango baserritar giroko nortasun sendoko auzo bategazkoa; handik hogeí bat urtera izango dau atzera, Bermeoko arrantzale eta kaletar giroa sakonago eta luzaroagoan ezagutzeko erea. Hurrengo izendapena, Enkanterrietan izango dau: Zallako Otxaran auzoan. 1919an Gatikako parroku izentauko dabe. Eta azkenez, 1926an Bermeora dator, hona be parroko karguaz. Abadetzako egotaldirik luzeena, bada, arrantza-uri hazi horretan egin

¹ Onaindia, Sauti (1975): *Euskal Literatura (IV)*, Etor, Bilbao, 126-130 or.

eban, eta euskerearen aldeko emaitzarik mardulenak eta emonkorrenak be berton. 1947an be Berneon daukagu hondinokarren². Eta zahartzaroko azken urteak Sondikan emongo ditu, laburrak hatan be. Hemen hartu eban heriotzeak 1950eko agorrilaren 17an, gerra-osteko giro gordin eta ilun haretan. Ez hain zahar be, 73 urte.

Arpegi askotariko letragizona

1. Euskalzale

Gazte-gazterik dakusku Zamarripa euskerearen zurrunbiloan murgildurik, ia bere bizi osoan luzatuko dan jarduna eta zaletasuna. Gerraostean, halabeharrez, erdi mututu jakun euskal letretan, beste idazle askoren antzean; ez bere gogoz, derrigorrak eraginda baino. Baina orduan be ekin eutsan euskerearen alde, batez be bere euskal gramatikearen, metodoaren, argitaraldi barriak eraginez. Euskereak bizirik irauteko arnasea euki egian, lege zorrotz eta giro itogarria gorabehera.

Hogei urte baino ez zituan, Azkuek Bilbon sortu barri eban *Euskalzale* asterokoan idazten hasi zanean: 1897. urtea. Gasteizko abade-mintegira Filosofia ikasketak egitera joan aurretxoan zan hori. Durangoko prezeptorian latin ikasten ebilela. Berak damaiguzan argibideek erakusten dabe ondoen Zamarripa gazte euskalzaleagan Azkuek eta beronen euskal nortasunak orduan eta gerora eukiko eban eragina:

«Neure abadegei-aldia... Neure orduko sasoia... Azkue eguno lehenengoz ezagutu neban arratsaldea... Bere *Euskalzale* begi-begikoa ezagutu neban eguna... (Azkue bera baino lehenago; Durangon, bere agertualdiko lehenengo urtean; latin ikasten nebilela)... Bertarako egin neban lehenengo lantxua; Azkuek egin

² 1946ko zemendian, bere *Gramática Vasca* liburuaren 6. argitaraldiari (Bilbao, 1947) liburu sarreran gehitzen deitsan bere arrebecari eginiko eskintza Berneon sinatua dago.

eustan harrera gozoa; neure lehenengo lantxu horren azpian neure ezizentzat, neuk ininiriko *Txirriskilla* kenduta, *Artatzori* iminintzen eustala...» (*Kili-kili*, 19 or.)³.

Azkuek bere asterokoa sortu ebanerako (1897), Zamarripa artean euskalzaletuta egoan; ez da dudarik. Non, zelan eta noren bidez, ez dakigu ziur. Txorierrian bertan? Durangora latin ikasten joan zanean, hango jesulagun edo eleizgizonen bategaz? Noren eraginez? Azkue ezagutu aurretik, edozelan be.

Baina behin Azkuegaz hartuemonean hasi zan ezkeror, honen gerizea hurrean sentiduko eban gure sondikoztarrak; eta bizi guztian, sentidu be. Arteragotik be Azkueren entzutea eta eragina zabaltzen hasiak ziran Bizkaian eta Bilbon, euskalzaleen artean batez be. Bizkaiko Aldundiak institutuan sortu eban euskerearen katedrearen jabe zan, batetik. *Euskal Izkindea* gramatikea 1891an argitaraturik eukan, eta gerotxoago (1896) *Método práctico para aprender el euskera bizkaino y guipuzkoano* gramatika didaktikoa agiritatuko eban; obra biak argitaratze duinetan, azal lodiz baturik, baina lehenengoa-
ren inprimaketa dotorea eta txukuna, euskarri handikoa eta euskera-
erderaz zutabe bitan, guztiz deigarria aldi horretarako. Euskerearen ortografia finkatzeko ahalegina be urte berorretakoa dau: *Proyecto de ortografía* dalakoa. Eta urtebete lehenago (1895) *Vizcaytik Bizkaira* operaren bidez bere musika-zaletasuna be gailen erakutsia zan. Esatera gatozena, Azkueren entzutea Zamarripak bera aurrez ezagutu aurretik izan eukean.

Aurretiko idazle eta poeta batzuen hotsak be helduko ziran Paulo gazteaganaino. Berbarako, Felipe Arrese Beitiarenak (1841-1909), haren *Ama Euskeriari azken agurrak* (1879) erostaz beteriko poemarenak. Hil zanean poema bat be eskini eutsan (*GB*, 78-80 or.). Eta behin Azkuek bere aldizkaria sortu eban ezkeror, haren bidez egingo eban ezaupidea bere aldiko hainbat idazle eta euskalzalegaz.

³ Idazlan honetarako *Kili-kili*ren 1930eko edizinoa erabili dogu; hau da: *Kili-kili. Barre-ipuiñak*, Gaubeka, Bermeo, 1930.

Azkuegaz, gaztetatik eta gerora be izango eban loturea estu-
estua izan zan. Ez bakarrik *Euskalzale* aldizkarian (1897-1899)
idazlanak –hitz lauzko izkirimiri eta kontuak, dialogo askokoak, eta
hitz neurtuzkoak (laburrak gehienak)– aldiro atereaz. Zamarripa
lexikografoaren ekarria be ez da isiltzekoa Azkuegazkoan. Hau aton-
tzen ebilen hiztegi nagusirako Txorierri inguruko berba, aldaera,
esangura eta abarrak batzen egin eban ahalegina sekulakoa izan
zan⁴. Aurrerago garanduko ditugu berak onduriko hiztegi didaktiko-
aren gaineko zehaztasun batzuk.

Gasteizko abade-mintegian, abadegai zala, gehitu eta hazi baino
ez zan egingo lehendik ekarren euskereaganako lehia hori, euskal hiz-
kuntza eta literatura ildo bietan. Azkueren azterrenari jarraituko eu-
tsan gerora be, berau eukean bide-erakusle nagusia. Belaunaldi bat
zaharragoa zan, izan be, Azkue, 1864an Lekeition jaioa. Baina txo-
rierritar odola be baeroian zanetan: aitita, Eusebio Maria aitaren par-
tetik, Zamudiokoa izan eban. Beranduago Azkuek bizkaiera idatzira-
ko finkaturiko bideak, bai morfologian –*deutsot* eta halakoak–, bai
sintaxian –galdegaia beti aditzaren aurre-aurrean– Zamarripak be
gehienbat ontzat hartuko zituan, eta eredu horri eutsiko deutso gudu
aurreko hitz lauzko idatzietan.

Gerora Euskal Herri osoko euskalzaleen, aldizkarien eta erakun-
deen mundu zabalagora hedatuko zituan bere ezaupideak. Jakina da
hainbat aldizkaritan argitaratu izan zituala bere idatzi laburrak. Eta
loturarik gehien izan zituanen artean aitatu leitekez: *Euskal-Esnalea*,
Jaungoiko-zale edo *Euskal-Erria*.

«Euskalzale-jokoa» izenburua dauen idatzia dogu, besteak bes-
te, Euskal Herrian barrena euskerearen inguruan zituan ezaupide edo

⁴ Berberak autor deusku *Zaparradak eta bilduma-liburuan*, M. Zaratek bere
Bizkaiko Euskal Idazleak obran (169 or.) gogorarazo deuskunez. Harako: «Txitxuk
eztuki Azkuen iztegi ederrean dagozan Txorierriko berbarik geienak edo erdiak ingu-
ru beintzat, neuk emonak direanik» (1926, 12. or.).

Ikusi: Zarate, Mikel (1970): *Bizkaiko Euskal Idazleak*, Derioko Seminario-Ikas-
tetxea, Bilbao, 169-175 or.

hartuemonen lekuko. Hurrekoak izango ditu Azkue, Kirikiño eta Biz-
kaiko beste batzuk, baina beste mordo luze baten lekukotasuna
damaigu:

«Gelan sartu jatan euskalzale pilo ikaragarri bat. Aurretik,
atzetik eta inguru guztietatik ikusten nebazan hainbeste ta hain-
beste euskalzale. Azkue bera, Kirikiño bera, Arzubiaga, Eguskiza,
Inzagarai, Kampion, Landerretxe, Intxaurren, Zinkunegi, Dara-
natz, Alzaga, Artola, Mujika, Barandiaran, Oleaga, Garaitaonan-
dia, Urreta, Altube, Etxegarai, Urkijo, Gabel, Lakonbe, Mantero-
la, Lande, Olabide, Ormaetxea, Arruza, Gorostiola, Garbizu,
Lopez Mendizabal, Barbier, Inza, Esparza, Lekuona, Gurasobide,
Arrese, Jauregi... ta ez dakit zenbat gehiago» (*Kili-kili*, 20 or.).

«Zein bankutan?» lantxoan (*Kili-kili*, XXXV) euskerazko aldiz-
kariak ateraten dituen erakunde eta alkarteen izen mordoa izentetan
deusku behin banan, *aberats euskaldun* diranak zirikatuz, hareen
bankuetan dirua sartzeko eskatuaz, euskerearen mesedetan.

2. Lehiaketetan partaide

Euskerazko idatz edo literatura lehiaketa batzuetan be parte
hartu eban. D'Abbadieren bultzadaz Euskal Herrian barrena eratzen
ziran Lore Jokoen bidetik XX. mende hasieran eratu ziran lehiakete-
tan, batez be. Arrese ta Beitia Elizondon eratu ziran Lore Jokotan
bihurtu zan ezagun *Ama Euskeriari* eskiniriko bertso ezagunakaz.
Zamarripak ez eban hainbesterainoko osperik irabazi poeta gisa, bai-
na mende barria ezkeror eratu ziran literatura batzaldietan bai parte
hartu. *Gora Begira* (1927) poema-bilduman jasorik eta zehatz adira-
zorik datoz, non, noiz eta ze sari irabazi eban. Aitatzekoak dira:
1903an Donapaleuko *Bertsularien gudu*an lehen saria irabazi eban
«Elizea eta euskerea» (*GB*, 66-68 or.). Jean Etxepare kazetariak sari-
keta honezaz eta irabazleaz ohar bitxi bat be idatzi eban *Eskualduna*
kazetan. 1904an, Ustarizko euskal jaietan lehenengo literatura-saria
irabazi eban «Lurra Jesukristorentzat!» poemaz (*GB*, 89-94 or.), eta
urte berean Ordiziako euskal jaietako *Euskal-itz jostaldien batzarre-*

an be lehen saria, «Etzaitez ill, Amacho» poesiaz (GB, 95-98 or.). 1905ean Baigorriko euskal jaietan be saritua gertatu zan «Euskaldun gudariak» poema (GB, 99-103 or.). Eta urte berean Bergarako euskal jaietan be lehen saria, «Euskal-erriko Aingeru Jagoleari» poemeaz (GB, 104-108 or.). 1906an *La Euskaria* kazetaren olerki lehiaketan parte hartu eban «Lagundu, ia, lagundu!» poemaz (GB, 81-84 or.).

3. Idazle eta literatura-kritiko

Esana dogu Azkueren euskal aldizkari goiztiar horretan, *Euskal-zalen*, trebatu zala Zamarripa ikasle gaztea euskeraz idazten. Kontulari sena erakutsiko dau hasieratik batez be; geroago beste aldizkari batzuetan, eta berandu baten *La Gaceta* egunkarian, horren ondorik aterako dituan idatzietan eta hiru bilduma-liburuetan (1926, 1930 eta 1935) sakonduko dauen generoa.

1897an bertan, *Artatxori* ezizenaz baditu idazlan bi (256 eta 326 or.). Artean hoge urte baino ez zituan Paulok. Pasadizu, egia antzeko kontakizun barregarri edo izkirimiriak dira bere zutabetxoetan isurtzen dituanak. Baserritar-kaletarren arteko maltzur-jokoak sarri, oraintsuago Mikel Zaratek *Bilbo irribarrez* liburuxoan onduko zituanen antzekoak. Txorierritarak izan behar biek!

Hurrengo urtean jarraiko lankidetza izan eban aldizkarian. Poesia laburrak dira bere lehenengo ekarriak (96 or. eta 105 or.), gero lau luzeagoak (116 or., 227 or. eta 236 or.), eta hortik aurrera, batez be *Izkirimiriak* atal barruan idatziriko pasadizu edo izkirimiri barre-eragile laburtxoak. *Artatxori* goitizena agiri dau sarrien, baina *Txipristin*, *Txapurtin* eta halako batzuk be bai. Hirugarren urtean (1899) be zeozertxo idatzi eban, baina aurrekoan baino bakanago eta mehatzago. Era bitako lanak: urteko lehen aldian, neurtitzak, *Ziri-neurtitzak* izenburupean; eta bigarrenean, uztail-agorritik bitartean –abade ikasketetako oporraldian astia hartuaz–, *Eguenetik ostegunera* izeneko dialogo luze samar batzuk ondu zituan. Artean erabiliak zituan izengoitiaz izentaiko ditu bere autu-lagun biak: *Eliztxori* eta *Artatxori*; lau idazlan, guztira. Behin edo behin *Txolintxu* be era-

biliko dau ezizentzat. Urte horretan amaitu eban aldizkariak bere ibilbide laburra, halabeharrez, eta haetako lankide idazleen lumea be isildu, apur baterako.

Lehenengo jarraia emon gurarik Azkuek gerotxoago sortuko eban *Ibaizabal* aldizkariak (1902-1903) be bizi laburra ezagutu eban, baina hor be erakutsiko dau burua Zamarripak, sarri ez baina. Lehenengo urtean idatzia bere izen-deituraz izenpetzen ditu gehienbat, baina *Barritsu batek* sinaduraz datoz *Asutik* bialduriko barriohar antzekoak (27 eta 28 znb.). *Neurtiz-kalte* titulupean hiru literatura-kritika, ironiaz beteak, ontzen ditu hitz lauz (25, 27 eta 30 znb.). Baina orohar hitz neurtuak gailentzen dira. Halan: *Barregarrikeriak* (17 znb.), *Z...kaz* (22 znb.), *Asueri* (29 znb.) *San Iñazion egunean* (31 znb.) izeneko ahapaldi-txorta luzea, eta gehiago. Geroago, hitz neurtuzko *ipuin* txorta bat, guztiak laburrak –39, 45, 46, 48, 49 eta 50 zenbakietan–. Bigarren urtearen erdi ingurutik aurrera *Txorierritik egaz* deritxan zutabe bat idazteari ekingo deutso, eta zazpi *egatzada-aldi* onduko ditu *Artatxori* eta *Eliztxori* goitizenez (77, 78, 79, 80, 82, 83 eta 84. znb.). *Boldrok* eta beste goitzenen bategaz dagozan idazlan batzuk be berarenak diralako susmoa dogu.

Harik aurrera literatura lehiaketetan parte hartzen eta Euskal Herri zabaleko aldizkarietara bere idatzi laburrok bialtzen jardungo dau, eta hor-hemen sakabanaturik ditu olerki zein hitz lauzko lanok. Honakoak dira batzuk:

Euskal-Erria, Jose Manterolak Donostian ateraten eban aldizkarian goizetik hasi zan idazten. Batez be olerkiak: «Gora euskaldun illak» (1902), «Alperrik...!», «Neguaren etorrerea», «Amatxo!», «Euskal-Amak asabari» (1903), «Auresku» (1904), «Euskal-Erriko aiñgeru jagolari» (1905). Luzaroko lankidetza; 1915 eta 1917an be baditu lanak.

Euskal-Esnalea sortzen danean (1908), lankidetza estua eta luzarokoa izango dau alkarte eta aldizkari honegaz. Hitz neurtuz zein hitz lauz argitaratuko dau hor. Olerkiak batzuetan: «Asmu ederra» (1911), «Ene semea!» (1929). Hitz lauzkoak beste batzuetan: «Barre euskalzalea» (1911).

Jaungoiko-zale izango dau, hoba ez, hurreko beste lankidetzagune bat. *RIE* Ven be baditu lan batzuk. Eta gerraostean *RSVAP* izango dau gramatikazko ohar edo idatzi laburrak argitaratzeko aterpea⁵.

Baina lankidetzarik ugariena, gudu aurre-aurreko urtetan *Gaceta del Norte* egunkarian egingo dauena izango da. Horretarik sortuko da argitara dakargun liburu honen edukia.

Kritiko lez be agertzen dau burua noiz edo behin. Adibide gisa aitatuko dot «Auntza larrera» lan laburra, Pedro Mari Otañoren gorazarrez argitaratua (*Euskal-Erria*, 1903, XLIX, 217-223 or.).

4. Poeta, bertsogile, neurtizlari

Euskeraz idazten hasten danetik ekingo deutso Zamarripak hitz neurtuari, ez bertsogintzari (bertsoa gaur ulertzen dogun eran, behintzat), ezpada *olerkiari*, beronen izendapena erabilteko. *Euskal-zale*, *Euskal-Erria*, *Euskal-Esnalea* eta beste aldizkarietan barreiatuko ditu, ondu ahala, poesiok, eta mendearen hirugarren hamarkadea burutu hurren dala argitara ekarriko dau eurotariko txorta on bat liburu gisa: *Gora begira. Zamarripa Paulo abadeak egiñiko olerki goi-usañoak*, Bilbao, Emeterio Verdes, 1927.

Aitatu barik ezin dira itxi, hitz lauuko bilduma liburuetan barrena sakabanaturik dakarzan hainbat hitz neurtuzko idazlan edo ahapaldi, banaka edo txortan. Batez be lehenengoan, *Zaparradak eta* horretan, baina hurrengoetan be ez ditu falta. *Kili-kili* liburuan, «Berbaurretxua» hitz neurtuz ondua da zati bat (7-8 or.). *Firi-firi* liburukoetatik, aita-garri dira: «Laikoak eta laukoak» izenekoa, XXIX, 143-146 or.

Lauko batzuk, berak asmauak barik, herritarrakandik jasoak dira. Halan, *Firi-firi*, XLVI, 202 or.

Aldizkarietan gudu aurrean hainbat ditu argitaratuak. Bat edo beste aitatzekotan:

⁵ Honako batzuk: «El artículo determinado sin valor traductivo» (1947) eta «Particularidades de *beste* 'otro' y *naikoa* 'bastante'» (1948), gero be aituak.

—«Elizea ta euskerea» (*Euskal-Erria*, 1904, XXV, 20-21 or.), Daniel Baertel sermoigile ospetsuari eskinia. Pentsaerearen aldetik interesgarria: eleizea eta euskerea bat egiñik ikusi gura leukez, zeruko Amaren babesaz. Oihenart, Mogel, Elizanburu eta Larramendiren izen handiak dakarz gogora, asmo horri indar egitera.

—«Ene semea!...» (*Euskal Esnalea*, 1929, 196-198 or.), poema luze samarra.

—«Apa, laztanchu» (*Euskal-Esnalea*, 1917, 195-199 or.). Idazlearen poemarik politenetarikoa berau, amak seintxoari berba balegio lez, ume-berbaz josiriko konposizinoa. Ume-berbok batzen aurretiaz lan handia eta eroapentsua egin ebanaren proba agiria.

5. Narratzaile eta berba-jardule

Narrazino laburraren eta dialogoaren arteko erdibidean dagoz Zamarriparen hitz lauuko idatziak. Egileak berak be ez ditu ipuintzat ebazten; ez dira, izan be. «Barre-eragileak» dirala gogorarazoko deusku behin eta barriro. Izan be, hori dau helburu zuzena: euskaldunai euskerazko idatzi arinak eta gozoak eskini, irakurlea, tristetu barik, poztu edo alaituko dabenak: barre eragingarriak. Halan bada, ezin baieztu daiteke bete-betean, idazle hau kontatzaile edo narratzaile garbia danik. Narraketari badaragoio batzuetan, edo pasadi-zuak, edo jazoera begitanduak kontetako, baina berba-jardunari daragoio gehiago. Pertsonaien arteko dialogo da nagusi beronen kontaera laburrotan. Liburuetakoa atalik gehienetako idatziak, *zaparradak*, *firi-firiak* zein *kili-kiliak*, hurrago dagoz kuadro antzeztuetatik, narrazino garbitik baino.

Idazleak berenberegi hautatu dau berbeta edo autu-jarduneko estiloa, euskera herrikoi, ugari eta aberatsagoa berbeta-dialektika horretan hobeto garatzen dalakoan. Idazle kostunbrista dan aldetik eta berbakeratik hurreko erregistro idatzia landu gura dauen idazlea, dialogoan —edo monologoan beste batzuetan— aurkitzen dau girorik naturalena horretarako: euskeraz idatzi, zeinda berbaz balihardu lez. Hitzun onaren berbazko baliabideei onurea aterateko berebiziko

harrobia dau hori: hitano tratamentuko adizkiak, itaun erreterikoak, harridura- eta agindu-formulak, errefrauak, ditxoak, danetariko lokuzinoak...; hizkuntza mintzatuaren edozein baliabideri eraz oratzeko generorik proposena; gaztelaniaren buztarpetik euskereari jaregiteko estrategiarik emonkorrena; eta euskera idatzian ekandu bako irakurlegai bere hizkuntzara erakarteko biderik zuzenena: dialogoa.

Narrazino generoan, aldizkarietan barreiaturiko ipuin, izkirimiri eta idatzi labur ugariak alde batera itxita, hiru liburu eta liburuska bat atera zituan idazleak. Liburuak, kronologiaren arabera, honeek dira:

5.1. *Zaparradak eta*, 1926an Bilbon, «Emeterio Verdesen irarkolan» inprimatua. Azpтитulutzat: *Euskalzaleen atsegiñerako Zamarripa abadeak egindako lan alayak*.

«Lanik gehienok barre eragile, guztiok jolasti edo gogo-argitzaile, eta guzti-guztiok atsegin-emoile zeuk aurkitutea gura dodala ez daukat neuk esan beharrik», gogorarazoko deusku «Berbaurretuxa»-n.

Zaparradak eta dau izenburua, izan be guzti-guztiak ez diralako *zaparrada* taiukoak. *Zaparradea* izen generikoa dakarre 1etik 34rainoko idazlanek. Eranskin gisa gehituriko idatzi laburtxoek *Zer-txuek* deritxe: zazpi guztira. Eta amaiera modura, *Lapur emollea* izeneko bertso-txorta atzenean; hondino Gatican abade egoala onduriko neurtitzak, Prantzisko Asiskoari eta San Antoniori eskiniak: *Lapur bat dabil praille / yantzita elizetan. / Neuk ikusita daukat / Gatikako onetan*, beraren berbaz.

Zaparradea zutabe baten izenburu generiko gisa erabili eban lehenago *Vasconia: revista ilustrada*n, non osterantzeko hainbat idazlan argitara zituan bertsoz eta hitz lauz. *Zaparrada* horreetarikoak ditugu, esaterako: *Zaparradea: bata ta bestea* (1911) edo *Zaparradea: egunez edo gabaz* (1914). Liburu-bilduma honetako lanetariko asko arterago *Euskal-Esnalea*, *Euskal-Erria* eta *Vasconia* horretan argitaratuak dira. *Euskal Esnalean*, besteak beste: «Eguno!!!», hitz neurtuz, (1908, 114 or.), «Ganora-bako lapurrak» (1911, 26-30 or.),

«Barre euskalzalea» (1911, 193-194 or.), «Asmu ederra», hitz neurtuz (1911- 272-274 or.), «Eztogu bear eztabaidarik (birrizketea)» (1913, 285-288 or.), «Gorinabarten ardaoa ta euskerea», hitz neurtuz (1915, 21-24 or.), «Kitu gagoz» (1915, 83-86 or.), «Doña Puntzuntzio» (1915, 272 or.), *Zaparraden* «Onu bat» izenburuaz (155-156 or.) eta «Ume aurrera etorriak» (1917, 64-66 or.).

Halan bada, idazlanotariko gehienek bersino bikotxa euki dabenez, ohartu beharreko puntua da, bigarren argitaraldirako atzera berridatzi zituala idatziok, liburu atondu orduan. Aldaketarik agiri-ena (eta azalekoena, aldi berean) grafia aldetikoa da –grafia barriaren bultzada aurrera joian, batez be Bilbo aldean–, baina garrantzi gehiagokoak dira lexiko mailakoak –hitzen ordezkatzeari, gramatika edo sintaxi alderdikoak –esaldiak berridatzi egiten ditu batzuetan– eta beste. Testuen berridatze horrek darakus ondo, ze arduratsua zangure idazlea bere lanak argitara emote kontuan; txukuntasuna, zehaztasuna eta hobekuntza bilatzen zituan eten barik.

Liburu honek gai aldetik ez dauka ardatz bat; idazlan solteen bildumatzat jo daiteke; gai diferenteetako lanak batera ekarririk. Ohartzekoa da lehen bilduma honetan hitz neurtuak hartzen dauen arlo zabala; beharbada gehiena. Hurrengo bilduma-liburu bietatik horretan dago alderik agiri-ena; hitz lauzkoak dira gehiago besteok.

5.2. *Kili-kili. (Barre-ipuñak)*, *Zamarripa abadeak eginiko bigarren liburu barre-zalea*, 1930ean argitaratu zan, Bermeon hatan be, Gaubekarenean. Bermeora 1926an joana zan abade, *zaparraden* liburu atera eta lasterrera. Zamarriparen bigarren narrazino liburu, harik lau urte garrenera dator.

Bigarren bilduma liburu hau be, gitxi goiti beheiti, aurrekoaren lorratz beretik ondua da. Zertzelada bitxi bat, liburuaren kanpo-azaleko marrazkia, Amelia R. dalakoak izenpetua: gizonezko edadetu bibotedun eta buru erdisoildu baten lapitzezko marrazkia, bularrez gorako partea; apain jantzirik, lazu-txoria saman eta larrosa bat paparrean, betaurrekoak arpegian eta zigarroa kea dariola musturre-

an, *Kili-kili* liburu berau eskuan dauela, irribarrea mosuetan.

Edukiaren zentsuragilea, «*nihil obstat*» dalakoarena, «*Josephus Michael de Barandiaran*» dalakoak emona; guztiok dazaugun Joxe Migel Barandiaran antropologo ospetsu ataundarra berbera.

Liburuaren eskintza be gogoan hartzekoa, «Opalmena» dalakoa: «Txorierri maiteari eta arrain-herri maite biri». Txorierri zabalagoa dau gogoan, Sondikako herriaren muga estuetatik harantzago. Arrain-herri biak, Laredo eta Bermeo. Bata, jaioterri izan ebana –eta gogo-bihotzetan ondo josirik eroiana, bestetik– eta bigarrena, une horretan abade egoan uria, Bermeo.

Barre gogotsua eta umore ona deuskuz idazleak barriren barri gogorarazoten, beraren senari berez joakon ezaugarria hauxe dala on egin gurarik edo:

«Gura dodana da ipinitea / zeu ta guztiak *kar-kar-kar*, / liburu berau irakurteaz / barre gauzarik badakar» (8 or.).

Liburu honen eta gainerakoen izenburuek be merezi dabe, hilde batez, aitementxoia. Guztiok dabe onomatopeiakazko lotura zuzena: *zaparrada*, *kili-kili*, *firi-firi*, eta beste hainbeste esan daiteke euron barruko idatzietan hots-hitzei ateraten deuten etekinaz. Agiriko kontua da, hots-hitzetan interes berezia ebala idazleak, eta eurok batzen be berenberegiko ahalegina egin ebala: *Manual del Vascófilo* estilo-liburuko atal bat –zazpi orrialde– gai honi eskinirik dauka (186-192 or.). *Kili-kili* beronen «Berbaurretxua»-tik hasten jaku hots-hitzeekin jolasean: *mar-mar-mar*, *dar-dar-dar* eta *kar-kar-kar* gora eta behera.

Askotariko idazlanak barrutzen ditu bilduma honek. Euskerearen ingurukoak dira hainbat. Euskerearen gizarte-sustapenaren aldeko jardunak, besteetan baino ugariagoak dira honakoan: «Euskalza-le-jokoa» (V), «Au dok testamentua!» (VI), «Zein bankutan?» (XXXV), «Agindua bat eta...» (XXXVI). Euskerazko okerren zuzentzearen ingurukoak be badira: «Olan barik... obeto» (VIII), «Izkirimiri negargarri bat» (XXXII). Euskerazko liburuen banaketa eta hedakuntzaren aldekoak be bai: «Jakín banen...!» (XII). Gizarte

aurrerakuntzen inguruan, gogoratzekoa da Mungiarako trenbide barriaren ingurukoa: «Asue ezta...» (XIV). Hogeigarren mendeko lehen hiruhamarrekoaren lekukotasun zuzena dan aldetik, interesgarria da, berak lez *euskerea*, eta «Asuero»-k lez *euzkerea* defendiduten dabenen arteko lehia. Zamarripak, beti be, umorez eta ironia finaz adarra jotene beste mandakoei. Baina batzuetan sakon sartu be adarra *euzkerearen* aldeko horreei, euskera txatxar badaezpadakoa darabilela eta, hatan be: gurasoak izentatzeko *aita* eta *ama* esan beharrean, *aitea* eta *amea* erabiltea legezko barregarrikeriak, kasurako («Izkirimiri negargarri bat», XXXII).

Kontu, pasadizu edo jazoera zelebreak be badira. Eta esanguratsua dana: Txorierrian jazoak edo jazotakotzat emonak. Zamarripak lotsa barik agiri ditu txorierritar sustrai sakonak, honetan eta bestetan. «Ezkozak lengoak» (62 or.), «Ezetz igarri bitarik baten» (64 or.), «Baita kobrea bere» (70 or.), «Bai, jaune... bai, jaune...» (73 or.), «Ortxe! Eztotsut esango» (79 or.), «Azurrik ausi ete jako?» (104 or.), «Txomin sakristaua» (108 or.), «Iketzako abade zarra» (111 or.), «Morroi baten ipuiña» (122 or.), «Erreberdin eta bere pipea» (129 or.) eta beste batzuk. Neure ustez politenatarikoa: «Banaroe, neuk gura eztodala...» (67 or.).

Oraintsuan bigarren argitaraldi bat be ezagutu dau bildumatxo honek, 1991an.⁶

5.3. *Firi-firi*. (*Ipuin ta naste*), *Zamarripa abadearen irugarren liburu barre-zalea*. Gaubeka-ren irarkolan, Bermeo, 1935. *Gaceta del Norte* egunkarian asteroko zutabea «Firi-firi» izen generikoaren azpian ateraten zituan idatzi laburrak biltzen ditu 223 orrialdeko liburu mardul honetan; 49 guztira. Egunkariko zutabeok, 1932ko

⁶ Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak orain dala urtetxuak bideratu eban *Klasikoak* bilduman atera zan (1991), Inanol Coienagaren eskutik, orduan Euskal Filologia adarreko ikasle gaztea Denstun.

zemendiaren 20an hasi eta 1934ko irailaren 23ra doan bitartean argitaratuak dira hurrengorik hurrengo. Aurreko liburu bien izenburuak legetxe, honena be hots-hitz errepikatu batez hornidua. Egileak berak argitzen deusku hots-hitzaren esangurea hasieran:

«Badakizu, irakurle maitea, gauzea *firi-firi* zelan jausten dan. Zarata gitxigaz, badaezpadako zaratatxu bategaz, edo zaratarik bapere barik, eta jarraian. Haolantxe jausten da edurra, *firi-firi* jausten danean.

Beste zertxu bat be cukiten dau gauzeak *firi-firi* jausten dan bakotxean: mehetasuna edo mehaztasuna. Edurrak berak, *firi-firi* jausten dala entzun gura badau, mehe edo mehatz jausi behar dau» (*Firi-firi*, 58 or.).

Idazleak, bere burua jaun edo jaun abade, hobeto esateko, bihurtzen dau, eta *alter ego* bat sortzen, *Txitxu* izeneko idazkaria, bere berba- eta autu-lagun bihurtzen dauena. Berbalagun bion artean halako dialektika antzeko bat sortuko dau, eta kontaren edo jardungaien garapena berba-jardun bidez gorpuztuko dau. Txitxu dalako hori idazlearen azpitik dago, ugazaba-morroiak egon ohi diran antzera; batzuetan idazle orojakitunaren mandatari edo mezulari lez agiri jaku. Harek honi *hi* esaten deutso eta honek hari *berori*. Berori hori egin-eginean be abade jaun idazlea da. Halantxe harilduz doa, bada, pertsonaia bion arteko berbakizuna atalik atal, autugaia eihoaz eta garanduaz, eurotan danetariko gaiak zehetzen dirala: politika gailen, Madrilgo gobernuan nagusi diran errepublikarrak ditu zirika-gai, sozialistak batez be. Ezin besterik itxaron, erregezale karlista baten lumatik.

Idazle eta abade jaun dalako *berori* horrek, bere ahoz barik, Txitxu idazkari zirikalariaren ahoz agiritatzen ditu, abade baten ahoan zorrotzegi edo gordinegi dirudien eretxiak; politikeagaz zerikusi zuzena dabenak, hain zuzen.

5.4. *Anayak gara. Ipuña. Zamarripa abadeak dotriñako ume-entzat egiña*. Bermeon, Gaubekaren irarkolan, 1929; 16 orrialdeko

liburuskatxo. Dotrina giroko ipuina, neskato-mutikoen onbidera zuzendua.

6. Gramatikari

Zamarriparen izena gitxitan baino ez da agiri gerraosteko eta gaur egungo euskal gramatika-lanen edo ikerketen bibliografietan. Eta beharbada *Manual del Vascófilo* da ezagunena eta izentauena; ez ostera, bere beste liburua, *Gramática Vasca* dalakoa. Horren errazoa, beharbada, ikasbide edo metodo tankeran taiutua izatean datza; euskaldunbarrientzako ikas liburutzat jo izan dalako. Eta dibulgazino edo oinarritzko metodotzat hartu izan dalako edo, gitxi dira ikerlari eta ikastunen artean beronen edukia zehatz eta sustraiz arakatzea bururatu jakenak, eta hori dala-ta bazter laga da sarritan erreferentziazko gramatiken zerrendetan. Erratu galanta, gure eretxian. Baina goazen pausuka.

6.1. *Gramática bizkaina o método teórico-práctico para aprender en poco tiempo el baskuence bizkaino*. Bilbao, Imp. y Lib. de José de Astuy, 1909 (312 or., 22 cm). Hauxe dogu, 1909koa, dakigula, atera eban lehenengo gramatika liburua. Obra goiztiar hauxe dogu gerora etorriko diran argitaraldi barritu eta gehituen oinarria.

Baina 1915ean, titulu barritu eta orokorragoaz argitaratuko dau bere gramatika-metodoa: *Gramática Vascongada, con vocabulario vizcaíno-castellano y castellano-vizcaíno*. Bilbao, Imp. de José A. de Lerchundi. 339 orrialde, guztira. Liburuaren lehen gorputza: «Vocabulario vizcaíno-castellano» (9-50 or.). Bigarren gorputza: «Gramática vascongada» (51-294 or.). Eta hirugarren gorputza: «Vocabulario castellano-vizcaíno» (295-336 or.). Bigarren argitaraldi hauxe bihurtuko da, lehenengoa barik, Zamarriparen gramatikearen erreferentzia. Izenburuaren aldetik (*Gramática Vascongada*) eta edukiaren aldetik (hiztegi edo *vocabulario* bikotxa).

1928ko argitaraldia be izen barrituaz jatoriku: *Gramática Vasca*, eta azpian erantsi hau: «*nueva edición, reformada*» dala iragarten deusku, zenbatgarrena dan esan barik; hirugarrena dalakoan gagoz. Hirugarrenez aldatu dau titulua: aurrekoan *vascongada* zana oraingoan *vasca* bihurtu dau. Argitaratu, Bermeoko Gaubekarenean egingo da (329 or., 21 cm). Argitaraldi honek ez dakar euskera-gaztelania hiztegitxo. Bai, oster, gaztelania-euskerakoa, gramatikearen atzean: «Vocabulario castellano-vasco» (267-322 or.). Urte bi lehenagorik (1926) Bermeora abade nagusi karguaz etorrita egoanez, Gaubeka bihurtuko da aurrerantzean bere editore, eta argitaratze erizpideetan be honen aholkua edo ebatzia ez da urrun ibiliko.

1931ko argitaraldia, «*cuarta edición*» dala dirausku. Aurrekoaren izenburu bera: *Gramática Vasca*. Kanpo-azalaren barrenean azpititulu hau dauela: «*Al final se da un extenso Vocabulario Castellano-Vasco (el Vasco-Castellano, en tomo aparte)*». Bermeo, Impr. Libr. Gaubeka (348 or., 21 cm). Atal barri luzetxo bat dakar gramatika honek: «Clave de temas», 255-287 or. Eta gaztelania-euskera hiztegitxo ondoren (289-348 or.). Toki-izenen eranskin interesgarri bat be gehitu dentso, gaztelaniaz eta euskeraz diferente esaten diranena: «Lugares de dos nombres» (347-348 or.). Handik urte bira (1933) hondino beste argitaraldi bat izango dau Gaubekarenean (351 or., 22 cm); bosgarrena.

Gerraostean be ez da etengo gramatika-metodo honen emoi. Baina Gaubeka argitaratzailearen itzalik ez dau gehiago izango; familia honen abertzaletasun agiria dala eta, luzaroko mutualdian geratuko da argitaldaria. Baina Zamarripak ez dau etsiko. 1947an, «*sexta edición*» dala iragarten dauen argitaraldi barria izango dau. Baina oraingo hau Bilbon inprimatuko da, Casa Dochao inprimategian. Bermeotik bere arreba Karmeni eginiko eskintza bat erantsi dentso, 1946ko zemendian izenpetua: «*A ti te dedico, muy complacido, la sexta edición de esta mi obra Gramática Vasca, así como la tercera de Vocabulario Vasco-Castellano*» dino berean. Eskerrak emoten deutsoz arrebeari; seguruenik honek diruz lagundu eukean argitaraldi barri honetarako. Lehen gorputza, «Gramática Vasca» (5-293 or.),

beronen barruan sei eranskin dirala: «Apéndice I: Conjugación familiar masculina». «Apéndice II: Conjugación familiar femenina». «Apéndice III: Interjecciones». «Apéndice IV: Sufijos derivativos». «Apéndice V: Contracciones usuales en la conjugación». «Apéndice VI: Clave de los temas». Bigarren gorputza, «Vocabulario Castellano-Vasco» (297-360 or.). Honen eranskina: «Lugares de dos nombres» (361-362 or.). Eta atzenean: «Índice Alfabético de Materias» (363-367 or.), guztiz zehea eta zehatza. Beste erantsi interesgarri bat: «Adiciones» (369-373 or.), eta akabuan: «Fe de erratas» (374-375 or.), aurrekoak baino ugariagoa. Edizino txukuma, benetan.

Zamarripa hil zan urte berekoa, 1950ekoa, da zazpigarren eta azkenengo argitaraldia: Bilbao, Verdes, 1950 (302 or.). Azpititulu iragarten da hiztegitxo biak aparte aterako dirala: *Vocabulario Castellano-Vasco y Vasco-Castellano, en tomo aparte*.

Mitxelena, harik urte batzuetara, azken argitaraldi hau dala-ta honako oharra idatzi eban (BAP, 1955, 462 or.), beti lez zorrotz eta adierazgarria:

«El hecho de que este libro del señor Zamarripa (...) vea la luz por séptima vez habla de sus méritos con suficiente elocuencia para que no tengamos que ponernos ahora a puntualizarlos. (...) Diremos, sin embargo, (...) que es más bien un método que una gramática, y que la exposición de la teoría va unida a numerosos y bien elegidos ejercicios (...).

Diremos también que es probablemente la única exposición completa y digna de confianza del dialecto vizcaíno entre los que hoy puede adquirirse en las librerías. Y al decir digna de confianza aludimos a que, dentro de lo que pueda tener de personal, es una exposición del vizcaíno tradicional y no de las ideas del autor acerca de lo que debiera ser el vizcaíno».

Zilegi bekit zeozertxo gehitzea Mitxelenaren ohar horri. Ikas metodoa da izan, baina gramatikatik asko be asko dauka obra bardinbako honek; dana esateko, bere aldian, ondorengo urteetan eta gaur egun ontzen diren euskal gramatika askok baino gehiago. Ikasgai bakotxaren gaineko azalpenak, argiak eta zehatzak izanaz gaine-

ra, ekarri originalak dira batzuetan; gaztelaniazko argibideetarikoa asko zorrotzak eta ondo ohartuak dira, ondoko gramatikariek eurok aitatzen ardura handirik hartu ez badabe be. Euskera-ikasleei begira atondua danez, oharrak be euroi zuzendurik eta eurok ulertzeko eran idatzirik dagoz, baina euskeran eskolatuak eta are adituak diranentzat be ez dira alperrik galtzekoak horreetarikoa asko. Aipuak eta adibideak 1928ko argitaralditik zitauko ditugu.

Gramática Vasca, lehenengo eta behin, idazleak bere aldian eta inguruan ezagutu eta landu eban euskera mintzatuaren lekukotza ziurra eta garbia da. Gramatika sinkronikoa, mintzairan oinarritua, eta zehatzago mugatua, bizkaieran; are gehiago, sartaldeko bizkaieran batez be.

Gramatikearen balioak anitzak dira, baina ezaugarri batzuk berariaz estimatzekoak:

a) Gaztelaniaz emonak dira definizinoak eta azalpenak: argiak (ikasleentzako halan behar be), zehatzak eta -gramatika didaktikoa baten harrigarri dana- gai batzuetan sakonak, edo bestek baino sakonago edo zeheago gramatika gaia aztertzen dabenak.

b) Gramatika-marka batzuen balio semantikoak eta erabilera gramatikalak beste inork baino zehatzago argitzen daki. Horretan beti dau begipean gaztelania-hiztuna eta gaztelaniazko baliapideekin bardintzen saiatzen da euskerazkoak, eta horrek abantaila emoten deutso, marka bakotxaren atzean diran balioak finkatzeko orduan. Deklinazinoko kasu-markak sartzen dira bete-betean honetan.

Halan -*tarikoa* atzizkiaren azpian balio bi datzazala dirausku: bata, «*de tal o cual especie o clase*»: *Zetariko sagarrak dakazuz?* (125 or.), eta bestea, 'por de entre' dalakoa, zenbatzaileakaz eta izenordainakaz darabilguna: *Zuetariko bat. Gutariko bat* (125 or.).

Nahasbideak saihesteko erizpide garbiak emoten ditu, euskera-aren eta gaztelaniaren baliapideak erkatuz. Halan: *Dos duros de vino. Vino de dos duros*, bata -*en* atzizkiak eta bestea -*ko* atzizkiak markau behar dirala dinoanean: *Ogerleko bien ardaoa. Ogerleko biko ardaoa* (124 or.).

c) Gramatika-fenomeno bakotxaren inguruko adibide elebiduak argigarriak eta itxura baten nobedosoak gertatzen dira batzuetan. Adibidez, *arren* atzizki nominalaren kasuan dakarrena: «*Astoa-arren* be, hori egingo zenduan ba? / *Por muy tonto que fueres, eso habías de hacer pues?*» (131 or.).

d) Euskerazko gramatika egitura eta kontestu fidagarrien eredu dira «*Temas de traducción*» ariketa-atalean dakarzan adibideak. Sintaxiaren aldetik ezeze, baita estiloaren eta testualidadearen aldetik be.

Lexikoa zelan lantzen dauen be ohartzekoa da. Ez bakarrik «*Vocabulario*» atalean jasoten dituan euskerazkoak, gaztelaniazko ordezkio eta guzti. Baita azalpen paragrafoetan eta oin-oharretan jasoten dituan asko be. Interes berezia dau lexikografia atal honek, ez beharbada zerrendatzen diran hitzakaitik (batzuetan holako batzuk be bai), ezpada euren esangura eta adierak ondo zedarritzen dituelako batzuetan, edota gainerako ohar osagarriak eransten deutsezalako beste batzuetan.

Gramatika zabaleko danetariko gaiak jorratzen ditu. Fonetikatik abiatzen da, idazleak gogokoa dauen gaia, bestalde, eta obran zehar hotsen ahoskeraren gaineko argibideak emoten ditu behin baino sarriago (6-7 or.). Diptongoez eta baita triptongoez be badihardu (9-10 or.), adibidetzat, hitz ezagunak ezeze, hots-hitzak darabiltzala sarritxo.

Izen-adjektiboen deklinabide-markak zehaztasunez eta ugari garandurik datoz ikasgai diferenteetan. Postposizino deritxegunak be bai. Zenbatzaile batzuei be ardura berezia eskintzen deutse: *bat* eta *bete*, adib. Adberbio kategoriako hitzak -modu, denpora, leku- be zabal darabilz. Izenordainak, pertsona- eta edutezko izenordainak, bardin. Baina arlorik handiena aditzari eskintzen deutso, ez bakarrik jokoari, baita aditz jokatubakoei be, partizipio eta aditzizenari, euren erlazino-marka eta guzti. Horretara, mende-perpauzen esparruan be sartzen da zeharka. Aditz lokuzinoei be atal berezia eskintzen deutse: *haginka egin* erakoei. Aditz jokatuaren barruan, aditz trinko erabiliak jorratzen ditu batetik, eta egitura perifrastikoa bestetik. Lagun-

tzaile iragangaitzak lehenengo, iragankorrek ondoren. Egiteerako aditzei, orain eta lehen aldikoei, subjuntiboa, ahalera, baldintza, agintera eta gainerako hainbat egitura gehitzen deitsoz.

Edukiaren orekari buruz, esan daiteke euskal gramatikaren tradizioan dan joereari, aditza arlo nagusi izatearenari, men egiten deusala Zamarripak be. Baina funtzino-markak, beste hitz kategoriak eta gramatikearen beste ertz asko ahaztu barik. Gramatika hau, osoa edo oso antzekoa da: morfologia, sintaxia eta semantika batera josten ditu egileak, argitasunez eta zuhurtiaz. Horretan dago, besteak beste, beraren meritua.

6.2. *Manual del Vascófilo*, Bilbao, Jose A. de Lerchundi, 1914. Azpititulutzat: «Libro de modismos, onomatopeyas, elipsis, etc. del vascuence vizcaíno, por Pablo de Zamarripa y Uraga, presbítero». Goizetikoa dogu bigarren gramatika arloko obra hau be. Gramatika arlokoa bai, baina estilo liburua, asmoz eta tankeraz. Hizkera lantzen dau berean; euskeraz ondo idazteko gidaliburua dogu oinarrian. Eta horretan, ezin ukatu, aintzindari izan genduala Zamarripa.

Sartaurrean, «Al lector amante del vascuence» idazlanean garrantzen deuskuz hizkuntzaren *barruko arimearen*, hizkuntza bakotxaren sen propioaren gainean bere kabuzko gogoeta zentzunezkoak.

Mendearen lehen hamarkadea joan barri argitaratua -1913ko Karmen egunean izenpetua dago hitzaurrea-, beronen edukia hainbat lehenagotik batzen hasita egoala pentsa daiteke; luzaroko bilketa eta lanketaren ondorio dala. *Manual del Vascófilo* obreak, edozelan be, aldi haretarako taiu eta aire modernoa dakar euskerearentzat. Azkueren hiztegi nagusia 1905erako argitaraturik egoan. Zamarripa, horrako be hainbat lexiko-lan egina zan. Eta seguru antzean, hiztegi hori argitaratu zanetik ohartuko eutsazan hutsuneak be, batez be idazkuntzarako. Bestela esanda, euskeraz diharduan idazle, itzultzaile, irakasle edo erabiltzaile batek hiztegia baino harantzagoko tresna bat behar ebala, testuak ondo taiutzeko, ohartu zan. Hizkuntzen arteko ordezkatzear -kontaktu hurrekoan ikusten zituan euskerea

eta gaztelania-eukiko zituan gogoan, horraitino- dirausku: « (...) *en muchas frases que una o más de las palabras que las componen, cambia de significación y oficio gramatical, con relación a la lengua a que se quiere traducir, de tal manera, que es imposible el traducirlas literalmente*» (V). Aurrerago dirausku: «*No comprendo un lenguaje sin modismos. Creo que no lo hay, ni puede haberlo*» (VII).

Euskerearen esamoduek egiten dabe liburuaren guna; lehenengo ehun orrialdeak. Guztira 830etik gora esamodu. Gehien landu dituan esamoduak, lehenengoak dira, zortzirehundik ez urrun, «Modismos vizcaínos traducidos al castellano» atalean dakarzanak (1-77 or.). Esamodu bakotxa lexiko-sarrera gisa formulatua, ondoan gaztelaniazko ordea dauela; kontestu-adibide bat darraio, gaztelaniazko itzulpenagaz; eta sarritan erabileraren gaineko edo inguru-oharpenen bat.

Bigarren atalean, «Modismos de vocablo repetido», iterazino-egiturako esapide ereduak eskintzen deuskuz, hamar egituratan egoki sistematizauta (87-96 or.). Sistematizazino hori jaresteko egin dauen ahalegina be ez da makala.

«Sustantivos cuasi-modismos» eta «Adjetivos cuasi-modismos» atalak datoz hurrengo (97-109 or.). Adnominal sintagmak eregiteko darabilgun -ko atzizkiak eratorikuntzan dauen lexikalizazino-papera jorratzen dau, hitz zerrenda luze baten bidez; gaztelaniazko ordezkotakaz, jakina.

Aditz lokuzino edo aditz multzo deritxoenen gaia dator ondoren: *izan*, *egon*, *jo*, *emon* eta *hartu* aditzakaz eregitako hainbat lokuzino zerrendatzen deuskuz, eta hitz zerrenda apartekoak ontzen ditu *izan* eta *egin* aditzakazko lokuzinoakaz (110-130 or.).

Sintagmen eta perpausen aurre eta atze-marka mordoa aztertzen ditu behin banan ondoren, gaur preposizino edo postposizino deritxegun asko tartean dirala. «Traducciones circunstanciales de algunos sufijos» buru-izenaz izentetan ditu berak (131-158 or.).

Gaztelaniazko *gerundio* dalakoa eta euskeraz be *gerundio* lez aurkezten dituan hainbat egitura beste hizkuntzara zelan itzuli zertzelatzen deusku ondoren (159-174 or.).

Elipsiari eskinia da berenberegiko atal bat (175-185 or.). Hots-hitzen gainekoa hurrengoa: «Onomatopeyas vizcaínas» deritxana (186-192 or.).

Liburuaren atze parteko ataletatik aipua merezi dau itzulpen okerren gainekoak: «Corrigiendo malas traducciones» (200-217 or.); atal luze samarra. Ezagun dau idazleak, itzulpen egokia egiteaz eban kezka astuna. Fonetikari eta entonazinoari eskiririko atalak: «De fonética vasca» (218-261 or.), ondo erakusten dau idazleak ahoskotasunaz eta lokuzinoaz eban ardurea be.

Atzenean, gaztelaniazko esapideak zerrendatzen ditu, euskeraz behar leukien ordezkotuzuzenaz: «Modismos castellanos traducidos al vizcaíno» (269-286 or.).

Berba baten esanda, *Manual del Vascófilo*, ondo idatzi edo itzuli edo ondo berba egiteko artea ikasteko estilo-liburua dogu. Gramatikari, ikertzaile eta idazleek orohar emoten deuten baino askoz estimu handiagoa autortu beharreko urrezko liburua.

6.3. *Conjugaciones guipuzcoanas: suplemento a su Gramática Vasca*. Bermeo, Gaubeka, 1929. 59 orrialdeko liburuskan batzen dau gipuzkerazko adiztegia.

Gramatika liburua bizkaieraz egina izanik, haren osogarritzat pentsatua dago adiztegia, bizkaierazkoa barik, gipuzkerazkoa ikasi nahi leukien ikasleentzat.

6.4. Artikulu solteak be aitatu behar ditugu. Gramatika gaiezaz banan atera zituan lan laburrak gitxi ditu Zamarripak. Eta urte jakinetan landutako lanak dira, barriz: *Euskal-Esnalea* (1929) eta *RSVAP* (1947, 1948) aldizkarietan argitaratuak, hain zuzen. Bide batez ohar-terazo daten inguruan zertzelada jakin hau: gramatikazko lan laburrok gramatika liburu bien ostekoak dirala, gudu aurreko zein guduosteko.

Euskal-Esnalea-n urtenikoak, 1929koak, «Temas gramaticales» izenburu orokorraren barruan atereak dira guztiok, azpititulu gisa joakon gaiaren izena dauela:

—«Igualdad sintáctica extraordinaria», 1929, XIX, 42-45 or.

—«*Bear izan y bear egin*», 1929, XIX, 64-66 or.

—«El artículo determinado vasco, rigiendo y siendo regido», 1929, 90-93 or.

—«Palabras vascas con acento, homónimas de otras vascas sin él», 1929, XIX, 110-113 or.

—El adverbio euskérico equivalente al castellano *también*», 1929, XIX, 217-220 or.

*RSVAP*en guduostean atera zituan artikuluak «De euskeralogía» izenburu orokorraren azpian agirira ziran, eta guk dakigula, bi dira, 1947 eta 1948an argitaratuak:

—«El artículo determinado sin valor traductivo», 1947, III, 225-231 or.

—«Particularidades de *beste* 'otro' y *naikoa* 'bastante'», 1948, IV, 387-389 or.

7. *Erlijino itzultzaile: kristaubidea*

Libururik aitagarriena, Asteteren dotrinearen euskerazko (bizkaiera) bersinoa: *Kristauaren dotriñea, aita Astete-gandik atarata Paulo Zamarripa ta Uraga, abadeak euskeratua*. Argitaraldi bat baino gehiago euki zituan dotrina honek. Bata, Bilbon, Ugalde lagunaren moldategian, 1907, 94 or. Zamarripa itzultzailearen maisutasuna da hor ezagun, besteak beste. Goizetiko lana, beste aldetik.

8. *Lexikografoa*

8.1. Hiztegi didaktiko baten egile be badogu Zamarripa, edo hobeto esanda, birena. Lehenengo, bere *Gramática Vascongadaren* (1915) erantsi gisa, gaztelania-euskera (bizkaiera) hiztegitxoa atera eban, *Vocabulario Castellano-Vasco* izenburuaz, gramatikearen 297-336 orrialdeetan, guztira 40 orrialde, liburuaren euskarri berean. Gramatika argitaldirik argitaldi joan ahala, ugaritzen eroan eban hiztegitxo hori: 1928ko argitaraldian, «nueva edición, reformada», libu-

ruaren 267-322 bitarteko orrialdeak hartuko ditu, guztira 56 orrialde. 1947koan (seigarren argitaraldia), atzeko *Vocabulario* horrek 64 orrialde beteko ditu.

Baina hiztegitxo hau, euskera-gaztelania eta gaztelania-euskera atal biakaz, liburu gisa aparte argitaratzen hasi zan, gudu aurretik bertatik, seguruenik Gaubeka inprimatzailearen aholkuz edo erabagiz: *Vocabulario Vasco-Castellano y Castellano Vasco*. Berenberegi adierazoten da azalean, «suplemento a su *Gramática Vasca*» dala. Hiztegi didaktikoa da, beraz, beraren gramatika-metodoaren osagarria funtsean, euskera ikasten edo lantzen diharduenei begira atondua. Azkeneko argitaraldia –guk zitetako darabilguna–, egilea hil ostekoa dogu, 1957koa (Bilbao, Verdes). Orrialdeak, guztira, 164 dira; euskeratik gaztelaniarakoak, 88 or. ditu (7-95 or.), eta gaztelaniatik euskerarakoak, 63 or. (99-162 or.).

Hiztegia baino gehiago «*vocabulario*»-a danez, «berbategia», eta beronen asmoa didaktikoa dala kontuan harturik, hiztegi-moderno baten parametro guztiak ez ditu beteten. Ez da orokorra, hasteko; sarrera-hitzak hautatuak dira, ez hiztegi konbentzional batek hartuko leukezan guztiak; euskera-ikasle baten neurrira hautatuak baino. Hitzen kategoriak be ez datoz markauta. Kontestu-adibiderik be ez dakar. Baina zedarri honeek gorabehera, berbategi praktikoa eta jakingarri erantsi aberatsez hornidua da. Abantailetariko batzuk honeek dira:

a) Sarrera-hitz esangura-adierazpenak guztiz adierazgarriak dira. Gaztelaniazko hitzei euskeraz jagokezan izenak, eremu semantikoaren arabera, diferenteak badira, zehatz adierazoko deusku. Adibide gitxi batzuk ipinteko, gaztelaniatik abiaturik:

Ubre. *Ugat*. | Errape. «Se dice por ubre de mamífero animal hembra. Por ubre de mujer se dice *ugatz*» (157 or.).

Vestido, vestidura. *Soñeko*. «Se llama *soñeko* al vestido ya puesto. Al vestido en general se le llama *jantzi*. Y también *jazki*» (159 or.).

b) Hitz batzuen kategoria gramatikalak zehaztu eta esangura jakinakaz lotzen ditu. Halan:

Agindu. Mandar. «Se dice *agindu* por mandar, ordenar, y por mandar, encargar. Y por mandar, prometer, y por mandar, legar. Por mandar, enviar, remitir, *bialdu* en B. y *biali* en G. | El mismo *agindu*, como sustantivo, significa mandato, orden, precepto» (8 or.).

c) Hitz batzuen zenbaterainoko erabilereaz be argibideak damaguz:

Aitaorde. G. «Padrastra. En B. más se dice *ugazaita*» (8 or.).

d) Aditzen erregimenaren gaineko oharra be badakar batzuetan:

Igon. Subir. «Nótese que se conjuga como activo, tanto en su significación activa de trasladar algo o a alguien arriba, como en la neutra de trasladarse uno igualmente arriba. En G. se dice *igo*. Y éste en la segunda significación se conjuga como neutro» (44 or.).

Ikutu. Tocar. «En Tx. y otras comarcas se dice *ukutu*. Rigen dativo» (45 or.).

e) Estilo oharra be eransten deutsez berba batzuei. Halan:

Garnu. Orina. «Se dice como eufemismo de *txiz*» (39 or.).

f) Neologismoen zale ez da agiri, baina onartzen ditu batzuk batzuk, gizartean edo hobeto esan idatzietan sarturik eta onarturik ikusten dituan neurrian. Halakoak zelanbait onartzen ditu berbategian, baina beti atze-izartxoaz (*) iragarriarik.

Inoiz sortu be egin ditu bat edo beste, baina arantatarrenai auke-ra hobeago bat emotearren. Horreotarikoa dogu *garbuts*:

Garbuts.*-Virgen. «Nos parece este vocablo *garbuts*, creado por nosotros, más aceptable que el discutido *neskuts*. Desde luego, tiene la ventaja de ser aplicable a ambos sexos» (39 or.).

Zuzen-zuzen baztertzen ausartzen ez danean, inguru-oharrez adierazo gura deusku, hoba dala eurok ez erabiltea. Halan:

Txonitz. *-Sermón. «Se han hecho entender fácilmente en G. y B., respectivamente, los neologismos *itzaldi* y *berbaldi*; por lo cual creo que vino un poco tarde este neologismo, que, sin duda ninguna, no es tan fácilmente inteligible» (81 or.).

g) Arkaismoak, *RS* bildumakoak asko, onartzen ditu, baina honeek be osteko laukitxo batez iragarrita.

h) Hitz-aldaerak euskalki banaketaren edo eskualde-banaketa-
ren arabera. Berbategi honek, bizkaierarenei ezeze, gipuzkeraren aldaera askori be sarrera emoten deutse (*ipui*, *iritxi*, *irten*). B. (bizkaiera) eta G. (gipuzkera) euskalkien aldaerak zehaztasunez marketan ditu orokorrean, baina eskualde jakinetako aldaera edo sinonimoak be, berariaz Txorierri, Arratia eta Nerbioi aldekoak, adierazoten deuskuz. Halan:

Inguma.-G. Mariposa. «En Tx. es *txirpilota*, y en otras comarcas de B. *pirtxilota*. Y en otras, así como en algunas del mismo G., se dice *mitxeleta*» (46 or.).

Sukalde.-G. Cocina. «En B. generalmente se dice *sute*, en Tx. *sute*. En Guernica y otros sitios, *eskaratz*» (76 or.).

i) Hitz batzuen inguruan, abere batzuenean kasurako, zehetasun txikienetaraino doa. Halan *txarri* berban:

Txarri.-Cerdo. «Se dice *txarri* en B. y *txerri* en G., ya por cerdo, ya por cerda. Precisamente por cerdo se dice *ordotz*. Precisamente por cerda, *txarrieme* en B. y *txerrieme* y *urdeeme* en G., y precisando aún más, por verraco, cerdo padre, *apo*, y por cerda madre, *arke* en Tx. y *makera* aquí y en otras comarcas de B. y *urdama* en G. *Urde*, sinónimo de *txarri* y *txerri*, no es tan usual como éstos» (79 or.).

Labur esanda, Zamarriparen *Vocabulario* hau, dituan neurri estuetan, bizkaieraren eta sartalde euskerearen inguruko zehatz eta ziurrenetarikoa dogu. Ikasleentzako zuzendua izanda be, hiztunen

ardatzean harilduriko berbategia. Bertako oharrak (didaktikoak, estilistikoak, gramatikalak) inoiz be ez dira alperrikoak; ohartasunez irakurtekoak bai, ostera.

Horrezaz gainera, gramatikan bertan, ikasgai askoren azkenean txertatzen dituan *vocabulario* diralakoak, eta hitz kategoria batzuetan finkatzen dituan hitz zerrendak be aintzat hartzekoak dira, didaktikoak izan arren. Glosario eta zerrenda guztiok, aldamenen gaztelaniazko ordezkua dautsela datoz. Eta batzuen kasuan, semantikearen aldeko argibide interesgarriez horniduak.

8.2. Azkueri bere Hiztegi Nagusirako emon eutsan laguntza berariaz aitatzekoa da Zamarriparen lexikografia lanean. Emaizta horri neurri osoa hartzen ez da erreza, baina B (bizkaiera) markadun sarrera-hitzetan *ts* (Txorierri) laburduradun gehientsuenak, Zamarripak Azkueri zuzenduak dira. Ohar bedi, kasu honetan, herri baten izena barik, eskualde oso batena emoten dala berbearen jatorritzat. Zamarripak berak autor deusku norainoko laguntza opatu eutsan bere maisuari, *Zaparradak eta* liburuko lehenengo atalean:

«Txitxuk ez daki Azkueren Hiztegi ederrean dagozan Txorierriko berbarik gehienak, edo erdiak inguru behintzat, neuk emonak diranik» (*Zaparradak eta*, 12 or.)⁷.

8.3. Lexikografia horren ezaugarriak

Zamarriparen lexikografiaren zer esan? Tradizino mintzatuaren bidekoa dala bete-betean, ez hainbesteko tradizino klasiko idatziarenekoa. Ez berbak bakarrik, baita lokuzino eta esamoduak be, ezpagnetatik harakoen antz osoa dabe idatziz ipiniko deuskuzanak. Horrexegaitik dogu barriketa-zale, kontalari baino gehiago. Hizkuntza

⁷ Idazlan honetarako *Zaparradak eta* liburuaren 1926ko edizioa erabili dogu; hau da: *Zaparradak eta*, Emeterio Verdes, Bilbao, 1926.

bata besteagazko autuan garatzen dan moduan, halantxe idatziz be, berbaz balihardu legetxe.

Zamarriparen denporan gora-goraka joian aranatarren hizkuntza-moda, bere neologismo guztiakaz. Baina gure idazlea, pentsaeraz be guztizko kontserbadorea izanik, nekez labanduko da hitz barrien aldera. Onartu bai egingo ditu, gaztelaniaren morrontzatik uxatzeko dan neurrian, baina neurriz, neurri estuz jokatu dau hitz barriakaz. «Berba barriak asmatzeko *berarizko* jasa daukie euskalzale batzuk» autor dau (*Kili-kili*, III) behin, eta «okertxu asmaurikoak izaten dira gehienetan» gehituko dau aurreratxoago; ez ironiazko ziri-kada bat egotzi barik.

8.4. Euskal lexikografiari egin deusan ekarririk onena, aurrekoen aurretik neure ustez, hitz lauuko idatzietan barreiatu dauen errepertorioa dala esan daiteke. Zertan datza, besteak beste, Zamarriparen meritua? Arteragoko literaturan idatziz gitxi, bakan edo nekez erabilitako berbak (izen, aditz, adberbio...), hitz-aldaera, berba-kate eta lokuzinori bere idatzietan leku emon izana. Eta berbak eurak baino, berba batzuen esangurak dira jakingarriak hainbat berbatan; arteragoko testuetan jasorikoakaz bat ez datozalako halako batzuk. Beronen idatzietako hizkuntza errepertorioaz eretxi osoko bat emoteko, meritua horretan dagoala esan daiteke: mintzairako baliabide eta egiturak, artean literatura idatzia onartu edo bedeinkatu bakoak, testuan txertatu izana; eta txertatzeaz, mendatu, bizibarritu eta «goratu», gura bada.

Berba edo berba-kate batzuen bakantasuna datza, Txorierraldean ezaguna izan arren, beste paraje batzuetan hainbeste ez izatean. Baina sarritxotan, berbaz ezagunak izanagaitik, arteragoko idazleek idazterakoan baztertu izan dituelako. Dana esateko, gehitu daigun, Txorierraldeko egitura batzuk literaturan jaso daben lekukotasuna, Zamarripari esker dala.

Txorierraldekoa da, ezin ukatu, idazlearen erreperteriorik ugariena. Edo berak zabalagotzat autortzen dauen eremu batekoa –Arratia eta Orozko barru dirala–. Adibide batzuk, dinoguna on egiteko.

a) Berariaz ohartzekoa da, darabilzan berba batzuk, artean eta gerora be idatziz bakan erabiliak dirala, ahoz –batez be bere inguruko berbetan, Txorierrikoan– ugariak diranak.

Izen kategoriakoak dira:

Igotzi: ‘igurtzi, laztan’: «abade jaunak, mutilkotxu bion alkarren anai izan gurea ikusiaz poztuta, *igotzi* gozo bana eurori burutxuetan eginda, poz-pozik dinotsie» (*Anayak*, 12 or.).

Tranku: ‘salto’: «Ta *tranku baten* oian aurrera heldu, ta bere esku ikaratu bien ganean atrapau eban bere lobatxua» (*Anayak*, 6 or.).

Izen-kateak:

Buruko joana, larria, ‘desmayo’: «Gantxo Pantza zorizkoak *buruko joan* baten antzeko bat izan dau» (*Firi-firi*, XVI, 104 or.); «*Buruko joan* baten osteko onaldirako, zer esakune egokiagorik hori baino?» (*Firi-firi*, XVI, 105 or.).

Adberbio kategoriakoak:

Arrapaladan: «Txitxu gurea gaur (...) *arrapaladan* sartu jat neure logelan» (*Firi-firi*, VII, 74 or.).

Aratinik, ahoz gora: «Ta barre-zantzoka ta neure radio-tresna eupalariaganantz eskua luzatuta, *aratinik* jausi zan» (*Kili-kili*, XLVIII, 138 or.).

Behin, ‘por fin, de una vez’: «Eta ez da jausi? Ez da tragau *behin?*» (*Firi-firi*, XVI, 104 or.); «Neuk jo barik, Jainkoak bihotzean ikutu degiola *behin...*» (*Firi-firi*, XXV, 132 or.).

Zenbatzaile edo graduatzaile erabileran ugaria da berbaz *sano*, ‘asko, guztiz’ esangurakaz:

«Ta *tauxifetxu* hau eukiteko, ez dago *sano* jan beharrik» (*Firi-firi*, XIV, 97 or.).

Baina ez da ahaztu behar, Berneon luzaro bizi izanaren porazuz, handiko era bereziak be hor-hemen isurtzen dituala:

«Behintzat harako asmoz urten eben. Ta ederto urten be. Haizca *poparean* daukiela» (*Firi-firi*, XI, 86 or.).

b) Tradizino zaharraren oihartzuna dakarren berba batzuk be agiri ditu, baina, tradizinokoak diralako barik, berbaz erabiliak diralako, geure ustez. Halan:

Zemakuntza: «Josepak, tren horren sarean bere burua ikusi ebanean, gorroto biziaz (...) makinisteari inon direan *zemakuntzak* egiteari emon cutsan» (*Kili-kili*, XLVII, 135 or.); « (...) inon direan *zemakuntzak* egiten hasi dira» (*Firi-firi*, XVII, 106 or.).

c) Hitz batzuen kasuan, euren esangurea edo kategoria berezia da aitagarri, euskeran nagusi danaren bestelakoa edo izateagaitik. Horretan be, beti, inguruko herri-hizkerako erreferentzia sendoek on egiten dabe beraren erabilera.

Asmau, 'barruntau, sentidu, sumatu': «Baina orain ez da *asmetan* bere zaratarik, bizi bada be» (*Firi-firi*, IX, 80 or.).

Eraso(n), 'esanarazo, atera': « (...) eta katu berorreri, polito-polito berba eginda, jakin behar direan *gauzatxuak erasotea*» (*Firi-firi*, X, 84 or.).

Aurki, segurutik, 'probablemente', perpaus *markatzailea*: «Dubarik egiteko, nahikoa barrerik egin dozue, *aurki*, nire ta honen gauzakaz» (*Kili-kili*, V, 31 or.).

d) Esamoduetan be ez ditu gitxi. Berbaz erabiliak diranetatik hartuak, batez be:

Igarri barik, 'ohartzeke, konturatzeke': «Txitu, neuk *igarri barik*, neure atzean egon da, antza» (*Firi-firi*, XLVII, 205 or.).

Ikara baten, 'dardaratan': «Ta atea zabalduaz batera, gorputza guztia *ikara baten* iminteko berba honeek entzun zituzan» (*Anayak*, 4 or.).

Hurretan be, 'ni por asomo': «Hamahiru milagino agindu deusak? Bajagok herri honetan, *hurretan be*, horrenbeste boto-dun?» (*Firi-firi*, XLIX, 215 or.).

Zati baterako, 'para una buena temporada', denpora zentzuaz erabilirik: «*Zati baterako*, hain ondo irabazita daukan atsedena bere buruari emoteko itxiten deusala bere bertsozko lan horreri, dino berak» (*Firi-firi*, XIV, 98 or.).

Haor dago untzea, 'ahí está el quid': «*Haortxe jagok untzea* gauza askotan: laprast egin eta ez jaustean...» (*Firi-firi*, XIII, 93 or.).

9. Euskerearen apologista, eragile eta bultzagile

Euskal hizkuntzaren alde dihardu, bai euskeraz, bai gaztelaniaz, bai argumentu-artikuluen bidez, bai poesia bidez, aldizkarietan barreiatutako idazlan batzuetan. Bat edo beste aitatzeko:

— «En favor del euskera: Academia y Revista», lantxo laburra, 1907an aterea (*Vasconia: revista ilustrada*, 480 znb., 179 or.).

— «Sobre la difusión del euskera», 1930ean aterea (*Euskal Esnalea*, XX, 151-152 or.). Euskal hizkuntza hegoak zabalik ebilen orduko egunkari bat euskeraz aterateko asmo sendoetan. Hara bere berbak:

«Si me entregaran dos millones de pesetas a condición de que los emplease en beneficio del euskera, yo los invertiría en la implantación de una estación radiotelefónica euskérica, que, entre otras cosas igualmente euskéricas y atrayentes, diese diariamente, en sus tres o cuatro emisiones, su periódico euskérico diario radiado».

Zamarriparen idazlanetako gramatika berezitasunak

Gramatika berezitasun batzuk apuntatuko ditugu ondoren, beraren testuetarik ohargarri begitandu jakuzanak.

1. Adierazkortasun marken ugaritasuna

— Mugatzaile hurbilak:

«Eta esan be egin deutso berari, gaur *goizeon*, neu eleizatik izan nazan artean» (*Firi-firi*, XLVIII, 209 or.).

– *Hara* aurkezlea eta *-xe/-txe* intentsiboa kategoria batzuei erantsirik:

«*Haoluntxe* jausten da edurra» (*Firi-firi*, I, 58 or.)

«*Haor* berton berba bi bakotxa efe bizazu» (*Firi-firi*, I, 59 or.).

«*Haorretantxe* dago, ba, jauna, nire errazoiaren indarra» (*Firi-firi*, IV, 67 or.)

– *Ber-* eta beste bihurkariak:

«*Neure* eretxia esateko, *neu* berorrenaren bila etorrita?» (*Firi-firi*, IV, 67 or.)

2. Deklinabide-kasu batzuen berezitasuna:

–GAZKOA:

«Beharko da burua, ugazaba, Txurigazkoa eta norbere barruagazkoa (kontzentziagazkoa), bata bestearen kalte barik, zabal-zabal egiteko» (*Firi-firi*, XLIX, 214 or.).

–ETARAINOKOAK, –ETARAINOKO GUZTIAK:

«bularreko umeetarainoko guztiak botoa daukiela» (*Firi-firi*, XLIX, 216 or.).

–RAKO:

«Eta gaur urten dau *harako*» (Madrilera joateko) (*Firi-firi*, X, 93 or.).

–RANTZEAN:

«Ez al dau beste katurik atrapauko bidean, *harantzean* ez *honantzean*!» (*Firi-firi*, X 83 or.).

Gramatika egituren arteko diferentzia semantikoakaz berba-jokoak be egiten ditu, umorea dariola. Halan, *-i begira* eta *-en begira* bereizten ditu pasadizu-kontaera baten:

«Eta arratsalde guztian egon ziran Azaña eta alkatea dantzarien begira, eta haorixe suerteori euki eben: *dantzarien begira* egoteko suertea; baina *dantzariak begira* egoteko suerterik ez eben euki» (*Firi-firi*, XLVI, 204 or.).

3. Aditz egiturei buruz, ohartzekoak dira besteak beste:

a) Iraganeko aditz laguntzailea *nor-nori* egiturakoa danean, *ekion* eta erduko adizki zaharraz hornitzen dau batzuetan, ez baina gehienetan; Txorierrian eta Uribe-kostan hondino be esaten dan erara:

«berak nondik ez ekiala, izeko barria ezaututeko bildurra poz biurtuten *ekiola*» (*Anayak*, 8 or.).

«Maciarentzako guztia itxi barik, lotsearren be, jango eban berari toketan *ekiona*» (*Firi-firi*, XVIII, 109 or.).

b) Aoristoko baldintza alegiazkoei jagokezan adizki zaharraz be badarabilz: *banengi*, *balegi*, *bazengi* erdukoak, Txorierriko berbetan, gaur be bizirik baina, orduko sasoian biziago egozanak. Kontestuok argi darakuse, adizkiok ez darabilzala baldintza-perpauzak eragiteko, desira kutsuko zehar galderazko kompletibak baino:

«Emon barik, hartu egin ez *bazengie* gero!...» (*Firi-firi*, XV, 101 or.); «(...) ea hauxe egin ez *bagengi*, ba, esan eustan umore onean aurkitu ninduan hurrengo egunean» (*Firi-firi*, XLV, 198 or.); «Ta egarri honek ito ez *banengi*... Behintzat, ez dot bakerik eukiko kondizino bata edo bestea beteta ikusi artean» (*Firi-firi*, XLV, 200 or.).

c) Aditz trinko batzuen agerrerea be aitatzekoa da. Halan, *eutsi*, *ikusi* aditzenak:

«(...) biak neurri bardinekoak, biak alkarren antz handikoak, eta biak alkarren ondotxutik, ia bata besteari *deutsala*» (*Anayak*, 11 or.).

«*Badakusk*, ikusten dok... hau pardeltxuau?» (*Firi-firi*, XXXII, 155 or.)

d) Aditzen errepikak:

«Barrabantxuorrek, *ibili eta ibili*, hurrean ipiniko nok kontzejal-nonbrazino hori hartzen» (*Firi-firi*, XLVIII, 211 or.).

«Ez jeustek emon. Baina *emoten* bajceustek *emon*, eta *hartzen* bajoat *hartu*, ez joat neuk itxiko kontzejaltasun hori gehiagoko barik» (*Firi-firi*, XLVII, 211 or.).

e) Aditzizenak ezezka eregiteko, bizkaieraren sartaldean ezagutzen dan joera berezia:

«Ia Patxixuk zer daukan, gaur arratsaldean dotriñara ez errosariora *etorri ez egiteko*». (*Anayak gara*)

f) Aginduzko perpaus batzuetan *eutsie*, *tirok* eta halakoen erabilerak:

«Eta *eutsie*, neure baimenagaz, neure bedeinkazinoa» (*Firi-firi*, X, 85 or.).

4. Juntadura eta menderakuntza egitura batzuk

Juntadura eta menderakuntza egitura batzuk be ahozko ereduetatik hurrago dagoz idatzizko tradiziotik baino.

a) Aurkaritzazko juntadura adierazoten dauen *ze* atze-posizinoan:

«Bebaz be badaki, nortzukaz esan behar *ze*» (*Firi-firi*, X, 84 or.).

b) Konpletiba edo mendeko osagarri tipo batzuk *-na* atzizkiaz marketko dauen joerea be gogoratzekoa da. Baina ez bakarrik *jakin* aditzaren mendeko diran kasuan; baita osterantzeko aditzakaz be; beti be, ekintza konpletiboa egintzat edo ziur egitekotzat adierazoten danean. Haetariko bat edo beste:

«*Esan* neutsun, *urreean*, irakurle maitea, harako urten *ebena*, zelan urten eben esan ez baneuntsun be» (*Firi-firi*, XI, 86 or.).

«Eta baita be *egia da*, aspalditxuon batera ez dabiltzana» (*Firi-firi*, XVI, 104 or.).

«Behingoan *konturatu* zan tenk egiten eutsana kanpokoren bat izango zana» (*Kili-kili*, L, 148 or.).

Zabalago dabilz, aditz nagusia ezezka emona dagoanean, *-nik* marka erabiltea konpletiboan:

«Ezin sinistu dau Txixuk Gantxo Pantza hori hona bere zoritxarrak buliz eginda etorri *danik*» (*Firi-firi*, XVI, 103 or.).

c) Denporazko menderakuntzan *-n orduan* egituraren ugaritasuna dogu beste ezaugarri bat, bizkaieraren sartaldean zabal dabilena:

«Hori dok eta! —esan dot neuk hona heldu *orduan*, pozaren pozak erasonda» (*Kili-kili*, IV, 17 or.).

«Nire poza, biok neure aurrean ikusi dodezan *orduan!*» (*Firi-firi*, XII, 89 or.).

d) Modalidadea adierazoten dauen *lango* postposizinoa, menderperpaus bati dautsala:

«(...) ordura artean inoiz entzun ez deusagun *lango* barre-zantzo bat egin dau» (*Firi-firi*, X, 84 or.).

5. Adierazpen perpausen modulatzailak

Adierazpen perpausen modulatzailen ugaritasuna eta dibersidadea da Zamarriparen idatzietan deigarria dan estilo ezaugarri bat. Horreetarikoak dira *antza*, *urreean*, *aurki*, *seguru be* eta besteren bat. Testuetan irakurri ez dogun bat, Txorierri aldean zabal dabilena, *itzurea* da, 'al parecer' adierazoteko.

«Ba Ermari negarrez dagoalako itaunduten jako, *antza*, zegaitik negarrez dagoan» (*Kili-kili*, XXXII, 94 or.).

«Jausten hasi eta gero, zutundurik, gora ikaragarri bat jaurti dau, *seguru be*» (*Firi-firi*, XVI, 104 or.).

Modu ajutuan jokutzen dau ondoko pasarte honetan, *aurki* eta *urreean* markak bata bestearen atzean erabiliaz:

«Hau *Kili-kili* hau, geuk gura ez dogula, *Zaparrada*-antza hartzen hasi da, *aurki*; ta gura geunken baino luzetxoago urtete-ko antza be hartu dau *urreean* ta, hurrengorako itxiko dogu, zeure baimenagaz, beronen amaia» (*Kili-kili*, XXVII, 84 or.).

Hanpaduraz eta zenbatekoaz zerikusia daben lokuzino batzuk:

«Azaña gizajoari *handiak jazo jakoz*» (*Firi-firi*, XLVI, 204 or.).

«Kanpotik izan garean artean ostu deuskue *etxerik erdia*» (*Firi-firi*, VII, 74 or.).

Ezeztapen egitura adierazkorrak: «Ez da izango!» (*Firi-firi*, XLVIII, 210 or.), harrituarena edo zurtz eginda dagoanarena egiteko. Harridurazko perpaus egiturak be ugariak ditu testuetan.

Estilo ezaugarri batzuk: euskerea, literatura eta abar

1. Herri hizkera

Herri-herriko hizkera islatzen dau Zamarripak bere idatzietan, gazte-gazterik hasita. Eta herri-herrikoa dinoguncan, Txorierrikoa dauela ardatz, ardura barik esan leiteke. Baina herri-hizkera izatetik haruntzago doa Zamarriparen idazkera: herri-hizkerari dariozan lokuzino eta esamoduak trinko eta lodi eskintzen saiatzen da idazlea. Ez da berez datorren hitz-jario soila, berezkotik haruntzago bilatua eta aztertua be bada; herri-hizkera ederraren bitxi edo baliabide bana-banakoen bila dabil, bai hitzetan, bai esapideetan, bai itaun erretorikoetan, bai harriduretan, edo osterantzeko hainbat egitura-tan. Dialogoak horretarako emoten deusan errazbidez. *Manual del Vascófilo* estilo-liburuan eta gramatika-metodoan garandu izan zituan hainbat egitura bere «izkirimiri»-otan hazurmamindu gura leukez; gogoeta bidez formulaturikoa bere idatzietan on egin gura baleu lez. Horrexetan dau Zamarripak meriturik handienetarikoa, hesteak beste.

2. Herri-erregistroak

Idazleak ondo bereizten ditu eredu landua eta herri-hizkera eredu. Kontaeretan eta dialogorik gehienetan be —poesian zertan esanik be ez—, bizkaiera eredu jasoa darabil, nahiz hau be herri usainekoa.

Baina aldian-aldian herri-hizkera eredua be badarabil, bere Txorierri maitekoa, zertan esanik ez. Herri-eredu hau berenberegi —berebererik berak esango leuke— darabil, eta aurretiaz iragarten dau batzuetan. Herri-erregistro horretara sarriroen herri-usaineko pasadizu edo «izkirimiri»-ak kontau orduan joten dau, eta batez be eurotako dialogoetan.

Kili-kili liburua dogu beharbada horreetarikoetan ugariena. Adibide bi: bata, «Badoa ikasiaz» (XLII) izkirimiritik, Anton eta *organisteruaren* ahoan ipiniriko berbok aitatu gineiz:

Anton: «-Polito jo ete deun dinozu? Nik berori joko neuke 'zezegaz polito edo ahal dodan lez. Horren organu-jotea eta zâin errea... bat antzean. le entzun be ez jako eiten ta!...» (*Kili-kili*, XLII, 120 or.).

«—Ta... Anton... gaurko organu-jotea gusteu jatzu ala?

—A... bai, jauna: gusteu jat! Badoa berori ikisiez» (*Kili-kili*, XLII, 120 or.).

Liburuko azken aurreko «Injiniru baten urrebidea» (XLIX) izkirimiriko berba-jardun hau:

«—Egunon dekola, jauna.

—Halantxe ekarri deizula zeuk be.

—Mediku barrie ixango da berori.

—Zelango medikue?

—Nik dakit ba, jauna! Medikue zaharra joan jakun te,... barrie atzo ixen da etorteko ta...

—Enozu ezetuten, Joanpe?

—Berorrek bai neu, antza; ba izenagaz deitzen deust.

—Hara: egia esateko, zeu baino hobeto etzea ezetuten dot.

Ba, aspalditxuon ikusi ez badot be, gaztetxuten, sarriten etorten ixen naz bertora... Zeu... eguno behin bakarrik ekusi zaitude gaur artean... Ezkondu egin behar dozule ta,... etxea eta etxaldea behar dozuzela ta, eurok eskatzen Bilbora neure etzera etorri zineanean...

—A, jaune, parkatu bei! Berori neure uzaba da, oñez?

—Bai, bat, zerbietako. Baina ez medikutzean. Injinirue banaz, txarra edo ona; bainâ medikue ez, ez ona ez txarra.

—Baie uzaba badot berori, eta ona be ona! Eztakit neuk be zer dala-ta itxi deuskun aurtan errentarik kobreu barik. Oindino lehenengoa emoteko dekotset» (*Kili-kili*, XLIX, 143 or.).

«—Bai, jaune, ezta nahikoa ba, errentak emon eragiteko estutu eztea? (ez estututea?)» (*Kili-kili*, XLIX, 145 or.).

Firi-firitik beste hau atera dogu, Sondikako sakristauaren loba-txoaren ahoan:

«—Naie egon dozak? (...)

—Naie ez; baie baino aputxu bet gitxiao» (*Firi-firi*, VII, 75 or.).

Baina hitz neurtuan be ez dira falta honeetariko ereduak. Halan, *Gora begira* bildumako azken olerkia: «Aiko antojagarrie! (Txorie-rriko euskeraz)» (109-114 or.).

Herri-hizkera eredu horretan onartzen dituan lizentziak honee-tarikoak dira: berba-amaierako bokala zarratzea: *ordie*, *txarrie*, *gure*, *moskortute*...; berba batzuetako laburtzeak: *ao* (hago), *astunao* (astunago), *ibil de* (ibili da); berba-aldaera jakinak: *duztie* (guztia).

Ordurako euskal etnografo eta herri-literatura ikertzaileak —Azkue, Trebitsch, Barandiaran, Lekuona...— ahozko berbaldiak diran-diranean transkribatzen hasita egozan. Eta Zamarripak, Bermeon Gaubeka-renean 1925ean argitaratu zan R. Ortuzar-en *Oroi-garriak* antzerki-bilduma liburua ezagutzen eukean.

Puntu hau aitagarria da Zamarriparen kasuan, ze gramatika baten, estilo-liburu baten eta hiztegitxo baten egile izanda, ondo eki-zan bereizten, idatzizko araua batetik, eta ahozkotasan idatzia bestetik.

3. Aranismoa iheska

Betiko euskerearen aldeko eta «euskera barria»-ren kontra agiri jaku behin eta barrero Zamarripa. Jokabide diferenteak darabilz, garbizaleakandik urruntasuna erakusteko, nahiz batzuetan, lexikografia mailan berariaz, berau be garbizale agertu.

Ironiaz eta burlazar ekiten deutse batzuetan aranatarren barri-keriai eta garbizalekeriai. Adierazgarriak dira honeetariko ohar batzuk:

«Mungiar *Mugie* esaten deutsienak trenari *bultzia* esaten deutsienak baino gehiago etc diran nago» (*Kili-kili*, XLVII, 133 or.).

«Ugazaba, hemen gaur entzun dogu: Txorierrin *euskera barri* bat sartu dala. Barrabana!» (*Firi-firi*, XI, 87 or.).

Herri literaturaren azterrenak

Testuetan barrena herri-literatura genero diferenteen oihartzuna agiri dau Zamarripak han-hor-hemen. Gitxi batzuk gogorarazoko ditugu.

—Errefrauak ditugu batetik. Herri jakituriaren gordailu diran esaldi laburrok, arlora ondo datoza bakotxean isurtzen ditu idazle-ak. Ezagun dau herri genero honegazko atxikimendua. Hara adibide batzuk:

«*Gazteak gogoa zoro* da esakunea» (*Firi-firi*, XIV, 96 or.).

«*Biziak bizilan egin behar dauela*, euskerazko beste esakune jakitun batek dinoan legez» (*Firi-firi*, XIV, 97 or.).

«Eta ez ahaztu beste esakune euskerazko batek hauxe dino-ala entzun gura dabenentzat: *norberarentzako ez daua ez da inontzako*» (*Firi-firi*, XIV, 97 or.).

—Errezitatu antzeko errefraua da, komentario gisa testuan txer-tatu dauen beste hau be:

«Horreek bai mutilak, jateko opilak!» (*Firi-firi*, IX, 81 or.).

—Kantutik baino gehiago erritmo eta errimadun hitz neurtuen gai-hariari tenk eginez, *uneentzako errezitatuak* be jaso ditu, berba-ekarrian erara datozanean. Halan:

«Txorierriko aita on batek, beste beharrik ez eukanean, bere emaztearen eskutik hartuta, eurok hain maite eben hamar-hamairka hilebeteko semetxua (...), sarri be sarri inintzen ei eban bere belaun ganean, eta, bera belaunagaz gora eta behera darabilela, hauxe kantatxuau kantetan ei eutsan:

*Nire semea, semelote!
Martian dauka urtebete,
Beste martian beste bete,
Ta orduan bere... semelote.*

(...)

*Nire neskatoa, neskato!
Aprilean dauka urtebete,
Beste aprilean beste bete,
Ta orduan bere, neskato!».*

(*Firi-firi*, XIII, 94 or.).

—Herri koplak be tarteka-marteka sartzen ditu bere idatzietan. Halangoa da honakoa:

«Nork leukan gurdi zahar bat / txirrinka zahar bigaz, / bota-
teko Pautxi Baltz / Martin Eperdigaz!» (*Firi-firi*, XLVI, 203 or.).

Edo Mari Motako deritxan, bere amamaren amamaren denporakoa ei zan andrearen ezpanetan ipinten dauen harako pasadizua eta koplak:

«Mari Motakoaren oiloak lez, agertu balediz, *senaileak* onak daukiez. Mari Motako hau txorierritarra zan, eta bere oiloa be bai, bere etxean jaioa. Neuk ez nebazan ezagutu bata ez bestea (...). Baina Marik berak ondo ezagutzen eban bere oilo hori, antza.

Ba aldendu ei jakon behin, halako baten, berak igarri barik, mutil errondariren batzuen eskuz alde egin, eta aldendu eta gero, hilebetegarrenean be, guztiz galdutzat euki barik, hauxe esaten eutsen, seguru be, Mari zuhurak, bere auzoko andra lagunai: «*Seinaleak* onak daukaz, agertu baledi» (*Firi-firi*, XI, 87 or.).

Gure herri-koplategian, dantza-kopla kantatu lez, kopla biko segida da ezagumena gure artean.

«Oiloa faltau jako Mari Mondrongori, / seinale onak ditu, agertu baledi;

buztena luze-luze, paparra beilegi, / haren arreultzetxoak bolea dirudi».³

—Herri ohitura, joko eta beste

Bola jokoa aitatzen dau zeharka, eta berean *kaxina* deritxana:

«Hor doa bolea. Hemeretzi egiten ez baditu be, kaxina aparauko dau, urrean» (*Firi-firi*, XV, 99 or.).

Ereduak eta jarraitzaileak

Eredutzat hartzen dituan idazleen artean Azkue aitatu dogu gorago, baina haren eta honen idazkuntza-estiloak guztiz bestelakoak dira, edukiaz aparte estiloan berean be. Zamarripak hitz lauz darabilzan gaiak eta eurok erabilteko modua, guztiz personalak ditu, bere-bereak. Beste inogaz nekez dau antzik, eta aurrekoakaz arabere gitxiago.

Jarraitzaile izan dituan ondorengoak behin banan aitatzen ez gara hasiko, baina guztien artean bati hartzen jako antzik handiena; beste txorierritar bati: Mikel Zarate Lezamako semeari. Honen *Bilbo irribarrez* liburuskak, eta neurri apalagoan *Ipuin antzeko alegi mingotsak* bildumak —honeek «alegien» generokoak izateak marketan dauen diferentzia agiria kenduta—, Zamarriparenen ide-idekoak dira gauza askotan.

Adolfo Arejita

Derion, 2012ko apirilaren 28an

³ Zeinuriko kopla-bilduma batekoak, gudu aurrean jasoak dira bersino honetakoak. Ikusi: Kalzakorta, Jaber (2007): *Dantza-kopla zaharrak*, Laratz-6, Labayru Ikastegia, Bilbao, 134 or.

FIRI-FIRI
IPUIN ETA NAHASTE

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
eta agertu daigun
firi-firi.*

BERBAURRETXUA

Ondasun handia da umore ona, Jainkoaren adiskidetasunaz baterakoa danean.

Holangoxe umore ona, Jainkoaren adiskidetasunezkoa, euki gura neuke neuk beti.

Jainkoak berak gura izan dagiala neuk eta zeuk, irakurle maite-
orrek, beti-beti holangoxea eukitea.

Eta itxi deigula berak, bihar zelango bidetik ibiliko diran ez dakigula, gaur geure ustez bide okerretik dabiltzan lagun hurkoen gauzen alderdi barregarria ikusiaz eta erakutsiaz, barretxu bat edo beste egiten eta eragiten.

Euroi, bide okerretik geure eretxian dabiltzanoi, ez beste edozein bidazti bide okerrekoai, ezta Jainkoaren beraren gauzen aurka dabiltzala euron ahoz dinoela, agiri-agirian bide okerretik dabiltzanoi be, gorrotorik bape ez deutsegula.

Jainkoak berak gura dau holantxe eta.

Barreagaz, ez barrearen atzetik ez aurretik, ez daitela sortu neugan ez zeugan eurokanako gorrotorik, irakurle maitea.

Eurok eta geu, guzti-guztiok, eroan gaizala Jainkoak berak, bide zuzenetik erabilita, bakotxa berak deritxan orduan, bere ondotxura. Bere arpegi gozoa erakutsiaz, negarrezko erbeste honetako barre guztiak baino hobe eta iraunkorragoa dan gozotasun esanezinekoaz beteten.



I

GAUZZEA FIRI-FIRI ZELAN JAUSTEN DAN

Badakizu, irakurle maitea, gauzea firi-firi zelan jausten dan.

Zarata gitxigaz, badaezpadako zaratatxuategaz, edo zaratarik bape barik, eta jarraian.

Haolantxe jausten da edurra, firi-firi jausten danean.

Beste zertxu bat be eukiten dau gauzeak firi-firi jausten dan bakotxean: mehetasuna edo mehaztasuna.

Edurrak berak, firi-firi jausten dala entzun gura badau, mehe edo mehatz jausi behar dau.

Ba, lodi edo zarratu jausten bada, berak ez beste guztiok, hauxe esaten dogu euskeraz, berari begira: «Hona hemen edurra fara-fara jausten!».

—Horreek guztiok egiak izango dira, baina...

Et! Baten batek berbara urten deust, urrean, eta ea zer dinoskun ikusi behar dogu.

—Zer dinozu, adiskidea?

—Horreek guztiok egiak izango dirala, baina...

—Zelango baina?

—Euskeraz ez dagoala eferik.

—Ez dagoala eferik euskeraz? Haor berton berba bi bakotxa efer bigaz. Eta harro, egon be!

—Nik, *firi-firi* barik, *piri-piri* esango neuke.

—Ez zaitue eroango horregaitik Batara. Baina neu banintz agindu behar dodana...

—Zer?

—Batara bialdu barik, *bata* ulertzea gura badozu, *bestea* ez daizula esan aginduko neuskizu. *Piri-piri* edurrak ez dau egiten, adiskidea. Txoriak-eta egiten dabe *piri-piri*, horretarako umorea daukienean.

Irribarre gozo bat ezpan-ertzetan erakusten deuskula, alde egin deusku berbara urten deusku lagun ezezagunak, neure *firi-firi* polit honen alde erakutsi neikezan errazoi guztiak entzun barik.

Eta holan, polito-polito, nekerik bape barik, amaitu dogu geure eztabaidatxua.

Hauze da gauzea *txiri-txiri* egitea.

Txiritik txorira alde handirik egon be ez dago eta, Txorierrin sarri esaten da nekerik bape barik egiten diran gauzakaitik *txiri-txiri* egiten dirala.

Holantxe, txiri-txiri, egin gura neukez neuk, neure GACETA DEL NORTE maite-maiterako gaurtik aurrera, Jainkoa lagun dodala, egin-go dodazan *Firi-firi* izeneko lantxu guztiak.

Eta baita be gura neuke berton agertu daitezcan guztiak gaurko honen antzera, zatika, apurka, *firi-firi*, irakurleak txiri-txiri irakurri daizan.

Gaurko lantxu hau berau egiten, nekatu barik egiteko, nahikoa lanik euki dot eta, neure orde, neure isilzain¹ txorierritar zintzoak firmauko dau.


Neure isilzain txorierritar zintzo hau, badakizue nor dan, ezta? Ez badakizue, oraintxe esango jatzue: Txitxu.

¹ [isilzaina: sekretarioa.]

—Tirok, Txitxu, Txitxu ona, *entxufea* erderaz ez euskeraz zer dan jakin baino lehenagotik, papu bietatik barre egiten eta batetik bakarrik jaten mutila hazan Txitxu maitegarria; mesede egiten doan bakotxean bihotza pozez dantzari erabilten doan neure isilzain doariko txalogarria, egin eidak oraintxe gaurko lehenengo mesedea! Bota eik hementxe heure firmea!

Txitxu.

1932ko zemendiaren 20an.



II

TXITXU ARPEGIA LUZATUTA

Ez neban esango nik, ikusi barik, Txitxuk gaur erakutsi deustan besteko arpegi luzea daukanik.

Baina ikaragarritzko luzea erakutsi deust gaur eta. Badinot, hao-langoxe ikaragarritzko luzea daukala ereak agintzen deutsanean.

Arpegi hain luzea eukiteko agintzen deutsan ere, gaur behintzat, ikarea da.

—Holangorik ikusteko be! —dinost berak.

—Heure gaurko arpegi hori, ala? —erantzuten deusat neuk, arpegira begira.

—Ez dot gogoan neure arpegirik, jauna.

—Ikaratuta hagoala esan leike.

—Ez naz egongo, ba! Horreekaz irarkola-langileokaz jazoten da gauza bakotxik! «Batar» ipinteko esan geuntsan leku baten, «batera» ipini deuskue barrabanok geure *Firi-firi* politean.

—Bai, *batera* ipini beharrean, *bestera*.

Gatozan beste gauza batera.

Bizkaiko jaun handi batek esan deutse lehengo baten izparringi-kari² batzuei, eta honeek esan deuskue gero, euren izparringietan³, berak esan dauenetik, bera bizi dan etxean gauza asko dagozala egon behar ez leukien lekuetan.

Aspaldituon, hori gauza askogaz jatozen da Espainia zabalean.

Eta gauzok holan ikusirik, arpegia zabaltzeko baino luzatzeko egun hobeak daukaguzala esan geinke, urrean.

Adiskidea –zu be adiskidea zaitut, langile, irarkola-langile mai-tea–, *úrrean* esan dot, azentu eta guzti, *hurrean* esan gura izan doda-la uste izan ez daizun.

Gauzeak bere antza behar dau.

Horretxegaitik, urregorriak urregorri antza behar dau, antza, eta nire etxean sartzekotan, antz eta guzti sartu behar ei dau eta.

Nik daukadan urre apurra –urrezuria, gero, ez gorria!–, hain da apurra ze, ez da aitatzeko be.


Eta aitatzeko ez bada, ez dago zertan aitatu. Ez da egia?

*Nahaste asko dagoala
batean-bestean?
Ez urre-nahasterik
gaur nire etxean,
zuria zuriagaz
nahastau ezean.
Eta hauxe nahaste apurrau
egin ezinean,
laster naz aurkitu,
neure eretxian,
gauzak bajoakuz
oraingo antzean.*

1932ko zemendiaren 27an.

² [izparringikaria: *periodistea*.]

³ [izparringia: *periodikoa*.]



III

AI, UNAMUNO GEUREA!

Ai, Unamuno geurea! Geure-geurea dogun Unamuno Migel jaun ospetsua dot gogoan, irakurle maitea.

Eta geure-geurea dogun Unamuno jaun horregaitik, *geure Unamuno* esan barik, *Unamuno geurea* esan behar dodala deritxat neuk.

Ai, Unamuno geurea!, dinot barrero. Eta zergaitik ez dogu esan-go barrero, beste behin behintzat, geure-geurea dogula?

Egingo al deusagu kalterik horregaz inori?

Bizkaitarra da; Bilbon jaio eta hazia. Eta Bilbon jaio eta hazia izanik, ia-ia txorierritarra be bada.

Artxandaz handiko herri baten, esate baterako, Sondikan, jaio eta hazi izan balitz, Txitxu bera dan besteko txorierritarra izango zan.

Baina zertan gagoz, adiskidea? Bilbon jaio eta hazia izanagaz beste barik, edozelan be, txorierritarra da, txorierritar izena bere-bercan ulertzen dan eran ez bada be.

Ba, bilbotarrai *txinboak* deitzen jake. Eta txinboa, txikia edo handia, txoria da beti, jaioten danetik gora. Holan dala, Bilbo *Txin-*

boerri da. Eta *Txinboerri* eta *Txorierrri* harenbaten dabilta, euron txori eta txoriburu eta guzti.

Halan nahi holan, ez da basurdea Unamuno geurea. Eta alde honetatik be geure-geurea dala esan leike.

Baina, ai, Unamuno geurea!

Ibiltaldi batzuk egin ditu *basurdeakaz*, gizon-jantzidun basurdeakaz, eta geure-geurea ez balitzean ibili da hortik, ezkerreko aldetik, alde horretara aldea hartuta.

Espainiara *neskatotxua* ekarten lagundu deutse; eta orain, antza dagoanetik, damututa dago hori ekarten lagundua. Ta..., ta, ta, ta!

Neskatotxua ekarri aurrean Espainia ez egoala honen txarto, eta holango gauzatxuak esan deutsez, erdera garbian, lehengo baten) han Madril aldean, basurdeai eta basurde ez diranai.

Basurdeak haserratu egin jakoz eta txurupinak izan dira.

Baina bera ez da, horraitino, txurupinen bildur.

Bera ez dago atzera begira, esatea ondo dala deritxan gauzak esateko.

Esan eta bakea. Bakea bere barruagaz, inguruan txurupinak sortuko badira be.

Eta berak daki esaten dituan gauzak zelango asmoagaz esaten dituan, eta aurrera bolea.

Behinola bilbotarra, Bilbo bertoko *Teatro Arriaga* deritxan antzokian, hauxe esan eutsen, sinuetan ibili barik: «*Conviene que al vascuence le demos por muerto y le demos honrosa sepultura, haciéndole funerales de primera clase*».

Eta orduan be txurupinak izan ziran. Bilbotarrik gehienak haserratu jakozan. Eta «*mal vasco*» deitu eutsien gehienok. Eta gehiago mintzearren, askok *baldrasko* be deitu eutsien.

Nik, *baldrasko* kontuan ez neban sartu gura; baina «*mal vasco*» deitu eutsienai hauxe esan neuntsen neure barruan:

«*Mal vasco*» dala?

Bai, zera!

Egunen baten

«*se verá...* ».


Ez ete eban esan, gero, esan eban guztia, ordu hatan bilbotarren artean bere *unamunokada* baten bitartez, euskalzaletasuna biztearren?

Behintzat, ordurik gora, artean baino berba gehiago egiten da euskeraz Bilboko urian.

Madril aldean emon dituan *unamunokadak*, euron asmo eta guzti, bai ulertu ondo, neure eretxian, hango entzule guztiak!

Basurdeak batez be. Ai, honeek sur onak daukiez! Mutil onak dagoz eurok *neskatoagaitik* esan dituan gauzakaitik!

1932ko abenduaren 4an.



IV

TXITXU ETIMOLOGIAK ATERATEN

Txitxu, egunokaz, behar barik egon da. Eta zeozer egin barik bera ez dagoala ondo eta, etimologiak aterateari emon deutso. Berak uste dau holantxe aterako dauela burua.

Koipe handirik etimologiok berari itxiko ez badeutsie be, berak bai koipea atera edozeinbere berbari! Etimologia koipea ateraten mutila da Txitxu. Onean edo txarrean. Onean emoten ez dauen berbeari, txarrean aterako deutso.

Ez euki bildurrik. Berak ez dauka.

Dan langoa dala, berak deritxan etimologia emoten ez dauen berbeari badaki zer egin: aldatu, aldakuntzarik txikiena berari, aha-leginez, emonaz.

Prieto berbeari, esate baterako, oratzen deutso garri-garritik, eta kentzen deutso bere *pri* polita, eta *pri* horregaz egiten dau, inor mindu barik, berak deritxan guztia.

—*Pri-eto* ezin leike esan *piri-eto* dala, jatorriz, euskera garbian? —itandu eustan atzo, ohetik jagi nintzaneko.

—*Prieto*, euskera garbian, *estu* dok, adiskidea, neure eretxian. Eta ez naik *prietotu*, ez naik estutu.

—Estutu barik erantzutea gura dot.

—Tirok, ba! Esan eik heure eretxia.

—Neure eretxia esateko, neu berorrenaren bila etorrira? Tira, ba! Nire eretxian, esan leike *prieto*, jatorriz, *pirieto* dala.

—*Defentsa* izeneko lege ospetsuak ez jok eragotziko hori esaten.

—Ez! Esan daigun, ba, jatorriz holantxe dala. Eta etimologiak berez-berez urtengo dau.

—*Piri-piriak*, bai, urteten jok berez-berez. Sarritan, norberak gura dauen baino errazago.

—Ez dot gogoan *piri-piririk*. Eta behar be ez. *Piri* bat nahikoa dala.

—Nahikoa eta lar. *Piririk* bat be ezagutu ez hobe. A! Itxi eidak apur baten kristinauari ohetik jagikera egitea jagokon otoitzak egiten. Behingoan nok heugaz. Baina *prieto* ez dok euskerazko berbea.

—Haorretantxe dago, ba, jauna, nire errazoiaren indarra. *Prieto* ez da euskerazko berbea. Ederto esan dau berorrek. Baina euskerazkoak izan behar dau; eta *prigaz* hasten dan berbarik euskeraz ez dago eta, *prieto* berbearen *pri* hori, jatorriz, *piri* dala esan beharko dogu, edo ez dago *logika* edo *lukainka* edo dana dalako hori munduan.

—Askok *logikeari* baino *lukainkeari* hobeto begiratzen jeutsiek, adiskidea. Ez daukak beste etimologiarik?

—*Azaña* berbearenak, hamabi; zein baino zein hobeagoak.

—Ikustekoak izango dozak.

—Bai, ba.

—Orduan, hurrengo baten ikusiko joaguz.

Errukia emoteko moduan egon da Txitxu, egunokaz, behar barik. Baina errukiago deritxat oraintxe, hartu dauen beharmodu barri horregaz.

Entxufe onari oratu deutso, arraietan!

UGT deritxan zereko zerak

Horra UGT deritxan zereko zerak ikaragarrian dagoz zertuta. Erkala⁴ zaintzeko ardurea hartu dabe. Badaukie zeri.

Koipe gehiago itxiko deutse euroi erkala zaintzeak, Txitxuri etimologia aterateak ixten deutsan baino.

Okerrak dagoz eurok, gero!


Erregezaleai begira, argi eta garbi dinoe erkalari bakean ixteko; ze osterantzean, eurok...

Kontuz, erregezaleak, kontuz! Kontuz, dinotsuet! Ba, horreetariko askok bildurra emon leikie.

Jaten dakien baizen polito *joten* badakie.

1932ko abenduaren 11n.

⁴ [erkala: errepublikea.]



V

CAMPOAMOR DIPUTADU-NESKATILEA ETA BOTOAK

Campoamor Klara diputadu-neskatileak bere gogaide⁵ erradikalai *agur* eta *hor konpon* esan deutse. Eurokaz ondo konpontzen izan ez dalako, antza. Ea eurok alkarregaz konpontzen diran beragaz egin diran baino hobeto.

Martinez Barriosek...

—*Martinez Barriohotzek* esan gurako dau berorrek. *Barrios* hori, jatorriz, *Barriohotz* da, nire eretxian.

—Hago isilik, Txitxu!

—Ez da, ala? Nik baietz uste dot. Eta nire ustea sendotzeko, horra hor *Barriobero*.

—Ez joat ikusten hemen *Barrioberorik*, heu *Barrioberotu* ez bahaz.

—*Barriobero* bera ikusten ez badau be, *Barriobero* izena ikusi edo entzun egin dau behintzat. Eta zer deritxo? *Barriobero* izenak

⁵ [gogaidea: korrelijionarioa.]

berak ez dau eskatzen Barriohotz izena be egotea, holantxe, euskera garbian?

—Nik neuk haxe esan neikek: ez daukadala orain burua *Barriohotz* eta *Barriobero* izenok aztertzen berotzeko.

—Hurrengo baten izango da orduan, jauna.

—Hurrengoan itxi ez deuat egingo hemen sartzen egun onak emon barik.

Gatozan Txitxuk etenda itxi deuskun lehengo harira.

Martinez Barriosek, edo Martinez Barriohotzek, Txitxuk gura dauen lez esateko, konpondu gura izan dau gauzea, esanik Campoamor Klara neskatilea horrek prisara handia daukala.

—Ezkontzeko, ala?

—Txitxu! Hara, gero!

—Oraindino ez ei da ezkondu eta.

—Ezkontuta balegok, ez litzatekek izango neskatilea.

Campoamor diputadu-neskatileak daukan prisea beste gauza baterako da. Neskatileak eta neskatileak ez diran emakume botodun guztiak botoa emoten ikusteko. Eta horretarako prisarik ez da hartu behar, Martinez Barriohotzen eretxian.

Lerrouxen erlojuak horretarako ordua ez dau markau oraindino. Azañaren boltsan dagoala erloju hori dinost Txitxu barrabanak.


Doña Klara diputadu-neskatileak gura dauena egiteari ondo deritxo Martinez horrek, baina prisara hori egitea ez jako hain atsegin.

Botoa euki dagiela emakumeak. Horretarako emon jake: eukiteko.

Eukiteko! Honetan badago bera be. Eta euki dagiela urte askotan, osasun-bakeaz.

Baina, kontxo!, euki dagiela berak edo Lerrouxek edo Azañak esan artean, inori emon barik ondo gordeta.

1932ko abenduaren 18an.



VI

GAURKO HAIZE FIRI HAU ETA LOTERIA

Gaurko haize firi honek —holangoxe haize mehe hotzari esaten deusie Txorierrin *haize firi*—, gaurko haize firi honek, adiskidea, neurtitzak aterateko zera emoten deust.

Ateraten dodazan neurtitzok paperean ezarten ixten badeust, ez naz haserre. Beti emongo deust horregaz, loteriak bere suerte ganora-bakoagaz emon deustan baino gehiago.


*Egunak joan eta
egunak etorri,
egunak jarraituten
deusie egunari,
ta joan doazanak
han doaz kantari,
argiro dinotsiela
entzun nahi dauenari
ikastea ondo jagokon
zerbait jakingarri.*

—Egia handia!
 —Hemen hago hi be, Txitxu?
 —Bai, jauna. Egun on asko euki dagiala, Jainkoak emonda.
 —Baita heuk be. Baina ez haz etorri orain sasoi onean. Ez deustak itxi txirlorea amaitzen.
 —Zelango txirlorea?
 —Egiten hasi nazana.
 —Ez dot ulertzen.
 —Nahikoa dok txirloretan eurotan dinodana ulertzea.
 —Txirloratzako zer horretan esanikoa ulertu dodalakoa daukat.
 —Horregaitik esan izango dok: egia handia!
 —Bai, ba, halantxe da izan be eta!
 —Eta mira egiten deustak nik egia bat esateari? Guzurrrik entzun deustak inoiz, ba?
 —Loteriak ez jeustak urten; baina urten baleustak, entzungo henduan beste egia bat be.
 —Ze egia?
 —Loteriak urten deustala.
 —Neuri be ez deust urten loteriak, jauna, eta bardin gagoz.
 —Jokatu egin dok, gero?
 —Ez, ba.
 Txitxuk neure ezpanetan irribarre bat ikusi dau. Eta irribarre honek poztuta, zer bait gehiago be esan deust.
 Inor baino *hurrago* ibili dalako-edo, Hurren abizena daukan bateri ikutu deustala premio nagusiak, eta Lerrouxeri be zeozer jausi jakola, eta holango loteria-kontuko kontuak.
 —Itxi degiogun horrerri, Txitxu, eta entzun eidak beste egia bat. Baina lehenago, esan eik bene-benetan: ez dok jokatu loterian?
 —Ez, jauna.
 —Baina haorretxegaitik berorregaitik urtengo deualako amesik be ez henduan eukiko!
 —Ez, ba. Jokatu barik zelan urtengo eustan!
 —Aiko hor, ba! Asko jagozak mundu zabalean zeruko loteria nagusian jokatu barik zeruko loteria-premioak urtengo deustela edo ikutuko deustela uste dabenak.

—Zoroak dira horreek.

—Bai, zoroak dozak. Jainkoa loteria horretarako txantel-opaka doarik, eta txantel bedekinkatu horreetariko batxu be hartzeko ahaleginik egin ez! Ze zorakeria handiagorik! Ez hadi izan heu horreen artekoa!

1932ko abenduaren 25ean.



VII

OSTU DEUSKUE ETXERIK ERDIA

Txitxu gurea gaur, behinolako arpegi luzea, eta *egun on* barik, *eguerdi on*, *loti ona* dinostala, arrapaladan sartu jat neure logelan. Eta barrura ezkerro, neuk baimenik emon barik, agiraka egiten hasi jat.

—Lo orain be, lotitzarra?

—Geldi-geldi, Txitxu! Ez eik esan *orain be*, ba ez dakik lehen lo egon nazan ala ez.

—Egia hori be.

—Ganera, jakin eik bart ez dodala lorik egin, bost orduko loa gizonarentzat nahikoa dala Marañonek esan arren, zelan neuretzat nahikoa izan leiteken pentsetan. Honetan emon joat gau guztia; eta gero, goizalderik orain artekoa, Marañoneri jaramonagaz konturik ete daukadan kontuak ateraten.

—Kontua eukiko dau, beti be, zuhur ibilteaz, ugazaba. Kanpotik izan garan artean, ostu deuskue etxerik erdia.

—Horrenbeste?

—Horrenbeste be ez, baina bai *aputxu bet gitxiao*, Sondikako sakristau Txomin zelebrearen lobatxu zelebretxuak erantzungo eu-

tsan lez. Sondikako landan eginiko mitin baten baturiko lagunakaitik, «*naie egon dozak?*» itandu eutsan mutilko lagun bateri, holantxe erantzun eutsan honek: «*naie ez; naie baño aputxu bet gitxiao*». Eta nik honen antzera erantzuten deusadala.

—Tirok, Txitxu, esan eik gauzea zirki-mirkietan ibili barik!

—Hara, ba, jauna. Badaki berorrek Bilboko GACETAN geure etxea daukaguna; eta geure etxe horrek *Firi-firi* izena daukana be badaki, inork jakitekotan, ba berorrek ipini be egin eutsan eta.

—Bai, bajakiat.

—Ba, jakin bei orain *Firi-firi* horretatik *fir* bat ostu deuskuela lapur barrabanen batzuk, ezer esan barik.

—Lapurrok atrapau egin behar joaguz.

—Hobeto litzateke, nire eretxi argalean, eurok osturiko gauzea atrapetea.

—Bai, egia dinok.

—Baina urruntxu daukagu, eta geurea dala erakusten gatz izango dogu, antza. Ba beste *antz* bat hartuta dabil, antza, han Madril aldean. *Firpe* gora eta *Firpe* behera dabil han jentea.

—Orduan, argi jagok gauzea: geure *fir* polita ostu deuskuenok, *Firpe* izeneko ganorabako zer horrerri izena zelan emon asmau ezinik ibili diran errepublikanuai neke gitxigaz mesede bat egitearren, geure *Firi-firi* politera jo deuskuen lapur euskaldunen batzuk dozak. Ez deritxak?

—Antza, halan dauka gauzeak. Eta nik horreei...

—Itxaron eik apur baten. Azterrenak egiteari ekin behar jeutseagu, logureak ixten bajeuskuk.

Jiménez Asua ez da Asukoa

Jakinik garrantzi^o handiko gauzea dala, gauzeari arrantzioa egiten itxi barik, bera nortzuk ostu eikien jakitea, honetara jo dabe gure

^o [garrantzia: inportantzia.]

lehenengo azterrenak, bera ostutera lapur barrabanok euron aldian jo eben lez.

Behingorako konturatu nintzan ni, neure logura eta guzti, geure *fir* polita Estu jaunaren gorputz motroa baizen astuna be ez dala-ta, lapur batek bakarrik be hartu eta eroan eikela.

Eta honetan Txixu bera be neugaz baten egoala ikusirik, atzekoaren begira egon barik, berari begiratuta, hauxe esan neuntsan berari:

—Jakín eik, Txixu, lapurra, edozelan be, errepublikanua edo, gitxienez, sozialistea dala.

—Eta euskeraz dakiana.

—Ez ete dok Jiménez Asua?

—Ez, jauna.

—Zer dala-ta dinok ezetz, gehiagoko barik? Ez al dok Asukoa?


—Berori lo dago oraindino, antza. Berorrek esan gura dauen Jiménez Asua hori, bada Jiménez Asua, baina ez da Asuko semea. Eta Asuan egon be ez da egin inoiz. Beti be, *asatik* baino *azatik* hurrago ibilikoa da.

—Zelan dok hori?

—Hori be itandu? Ez da gomutetan berori zelan Madrilen ikas-lari⁷ batek igurdi eutsan arpegia aza bategaz? Barretxu batzuk egin genduzan, ba.

1933ko zezeilaren 12an.

⁷ [ikaslaria: *estudiantea*.]



VIII

DON KITOTE ETA GANTXO PANTZA

Don Kitote eta Gantxo Pantza, jaio ostetxuan harturiko izenez, euron izenak erdizka esatea galarazota ez badago, Manu da bata eta Lezio bestea.

Banan-banango mutilak eurak, arraietan!

Eta euron abizenak, apelliduak, susmau izango dozuz, e? Batarena erderazkoa izanik, euskerara bihurtuta, *Estu* dala esan leike; eta bestearena, Txixu argiaren eretxiz, euskerazkoa da, eta bere esangurea, signifkazioa, hauxe da, erdera garbian: «*Tantos como berzas*».

—Hiru berbatan, Txixu? —urten deusat nik, baina zer?

—Gitxiagotan ezin esan leike, jauna, bere antza kendu barik —erantzun deust berak, eta bakean itxi behar.

Eurok, Don Kitotek eta Gantxo Pantzak, ez daukie bakean egoteko asmorik, alkarregaz eta euron lagunakaz baino.

Zergaitik deitzen jakon gurean Don Kitoteri *Don Kitote* eta Gantxo Pantzari *Gantxo Pantza*, arin esango leuke Txixuk Bilboko frontoi baten, nahi beste leku erazko baten, jan on baten ostean.

Halan nahi holan, orainganik esan geiuke Don Kitote ez dala *Don Quijote* eta Gantxo Pantza ez dala *Sancho Panza*.

Don Quijotek, beti edo gehienetan, bere atzetik erabilten eban Sancho Panza otzana. Don Kitotek, oster, gehienetan edo beti, aurretik darabil berari zer egin esaten eta bidea erakusten –guztiak argi ikusten ez badabe be– bere Gantxo Pantza.

Hau egiaz da gantxoa edo kakoa. Eta gauza bitarako: sozialistak Don Kitoteran esanera ekarteko eta Don Kitote bera bere esanera ekarteko; ahal izanik, lehenengo, hauxe jadesten dala.

Don Quijotek eta Sancho Pantzak bide ezkerretik, okerretik, ez eben ibili gura izaten. Eskumatarrak ziran.

Honeek, oster, bestera jokatzen dabe.

Noiz artean? Jainkoak daki.

Halan nahi holan, Gantxo Pantzaren jokoerearen barri badakigu eta, orainganik esan geinke nork irabaziko dauen, *ezkerra gora* eta *ezkerra gora*, eta *gora ezkerra*, Don Kitotek eta Gantxo Pantzak herriagaz darabilen jokoan azkenerantz. Gantxo Pantzak.

Baina azkenean, jakina!, Jainkoak berak. Zori ona, suerte ona, bere eskuan dauka berak, eta ez dauka tranparik egin beharrik jokoa irabazteko.

Mahaikoa ez da nahikoa

Gitxitan izaten da mahaikoa nahikoa, behar dan baino lagun gehiago mahaira batzen badira.

Eta haorretxegaitik-edo, Madrilgo Frontoi nagusian jana eta lana Don Kitotek eta Gantxo Pantzak euki dabenean, janera baino lanera lagun gehiago batu dira.

Don Kitoteran eta Gantxo Pantzaren lana berba egitea izan da. Eta janera heldu ez diran lagunena, euron berbea entzutea eta eurok zer jan daben eta eurok dinoen berbeaz zer esan gura daben jakin barik be txaloak jotea.

Baina bide okerretik gabiltza gu be, aurki, ordu honetan, gura ez dogula bada be.

«Mahaikoa ez da nahikoa» hor goian esan dogunean, agirakal-ditxu bat geure irarkola-langileai egitea izan da gure asmoa. Eta ea egiten deusegun polito-polito!

Ez dakizue, barrabantxuok, *mahaikoa* ez dala *nahikoa*? Ez al dakizue, mahaikoa *mgaz* dala, nahikoa *ngaz* izaten dala? Badakizue-la? Orduan, zergaitik ipini dozue hau holan?: «Ganera, jakin eik bart ez dodala lorik egin, bost orduko loa gizonarentzat nahikoa dala Marañonek esan arren, zelan neuretzat *mahaikoa* (!) izan leiteken pentsetan».

Txitxuk eta nik mahaian ez dogu lorik egiten, ohean baino.

*Mahaian,
lan edo jan.*

Hauxe da gure programea, mahaian gagozan artean.

1933ko zezeilaren 19an.



IX

SÁNCHEZ GUERRA, SANTXEZ BAKE

Zarata onik egin eban Sánchez Guerrak, Alfonsogaz ministro izanikoak, Errepublikaz zorioneko hau ekarri arteko egunetan.

Baina orain ez da asmetan bere zaratarik, bizi bada be. Esan leike orain Sánchez Guerra izateari itxi eta *Santxez Bake* dala. Badauka zeri. Berak hain maite dauen seme Errafaelek leku ona atrapau dau Alfonsoren ministro izaniko beste jaun handi baten ondoan eta.

Otxorio Gariarto ez dago isilik

Hau be Alfonsogaz ministro izanikoa edo izan gurakoa da.

—Otxorio Gariarto dino, jauna? Otxorioak badagoz Mungian be. Ez ete da honeen senidea, lehengusua-edo?

—Ez jakiat horixe, Txixu. Gauza bat, bai, bajakiat: Mungiako Otxorioak ez dirala Otxorio ospetsu hau besteko ospetsuak.

—Hori dan ginoko ganorabakoak be ez. «*Yo soy monárquico sin rey*», Otxorio Gariarto horrek bakarrik esan dau.

—Canorea bajaukak, mutil, zeozertarako.

—Ez monarkikoa dala erakusteko. Monarkikoa bada, erregeza-leak izan behar dau. Ba, zelan izan leiteke monarkikoa erregerik gura ez dauela?

—Horreek guztiok egiak dozak, Txixu. Baina izan leitekek «*yo soy monárquico sin rey*» esan eban orduan, hauxe esan gura izatea: «*yo soy monárquico, pero no tengo rey*».

—Ez daukala? Itandu deigula geuri non dagoan bat, jasekoa, eta arin esango dentsagu.

—Badaezpadan be, itandu barik ez eiok esan, behintzat Etxeres Kirogak jakiteko lekuan.

Gatozan barriro Txixu barritsuak eten deuskun hari gozora.

Zer izan dogu gogoan? A, bai, Otxorio Gariarto be Alfonsoren ministroa izanikoa edo izan gurakoa dala! Goazen aurrera, Txixuk ixten badeusku.

—Ni isilik nago. Holantxe egon behar eban Marañonek politika-ko gauzetan beti eta leku danetan.

—Txixu, hago isilik heu orain, Jainkoarren!

—Isildu naz, jauna.

—Tirok, ba! Otxorio Gariartori ekin degiogun, heure baimenaz.

Otxorio Gariarto, ba, Santxez Bake lez *neskatoa* ekarri artean, zarataka ebilen. Baina Santxez Bake lez ez da isildu.

Santxez Bakek lez, honek be beronen seme maite bat dauka bere bizimodua *neskatoaren* beste etxe handi baten ateraten dauena. Eta ez dago isilik. Bakotxak daki zelan jokatu.

Santxez Bakek uste dau, antza dagoanetik, bere semea ondoen jagoten dauela isilik egonagaz. Eta Otxorio Gariartok, osteraz, uste dau bere semea berba eginagaz ondoen-ondoen jagongo dauela. Esate baterako, Azaña beste lau urtean dagoan lekuan egotea ondo izan-go dala esanagaz.

—Horreek, bai, mutilak / jateko opilak!

—Bertsoak botaten be hasi haz, Txixu?

—Ai, ugazaba, bertsoak baino beste gauzarik bota gura neuke!

Horra UGT horregaz

Barritsutxu dago gaur Txitxu gurea. Baina parkatu be egin behar jako gaur beste askotan baino gehitxuago. Izen handia eta ospe ikeragarria emongo deutsan zeregin astun bat darabil esku artean eta. Beronek emongo deusku beronen zeregin honen barri, asko zirikatu barik.

—Eta zertan jagok heure behar hori, Txitxu?

—A, jauna, horixe berorreri esan gurarik nago! Badaki zeinbat esangura edo signifkazio atera leikiozan UGT ospetsuari euskera garbian?

—Heuk esango dok, ez jaukat neuk astirik horretan ibilteko eta.


—Berorren parkazioaz, lehenengo esango deutsat burutara etorri jatana; eta gero gerokoak.

—Hortik hasi behar dok, lehenengotik.

—Tira, ba, jauna! Lehenengoa hauxe da: «Uzkarti Gaixotuen Tarratadea».

—Nahikoa dok, Txitxu.

1933ko zezelaren 26an.



X

TXITXU GUREA MADRILERA

Egunokaz ez da egon bakerik Txitxugaz, Madrilera, bere katu Txurigaz, joatalditxu bat egiteko baimena emon artean. Eta gaur urten dau harako. Neure baimena hartu eta gero, bere katu Txuri hartuta. Ez al dau beste katurik atrapaiko bidean, harantzean ez honantzean! Ba, hori *on antzean* barik, *txar antzean* ibiltea izango litzateke.

Txuri Txitxuren kolkora

Ez dau nekerik bape euki osteko katurik inoiz, neuk dakidala, atrapau ez dauen Txitxu zintzoak, urrezalea baino urzalea gehiago dan Txitxu txalogarriak, bere katu Txuri atrapetan.

Baimena berari emon deutsadanaz batera, Txuri bizkorrak jesarrita egon dan lekura joan eta belaunganera igon deutso. Eta belaunganetik polito-polito bere eskutxuak alkondarearen paparrera botata, erpakaz kolkora bidea bilatzen hasi jako; hantxe, kolkoan, eroan leikela bera ondoen-ondoen ulertu eragiten deutsala. Eta Txitxuk hantxe egin deutso lekua.

Madrilgo atzetan arielzainen³ batzuk ea han zer daroan itandu badegioe, Gantxo Pantzarentzako pergamino lodi zabal bat daroala esango deusela dinost Txitxuk, katuari atzeko oinak mokor bien atzetik sartzen lagunduaz.

Eta katuak, hau entzunik, bere bizileku barritik burua aterata, ordura artean inoiz entzun ez deusagun lango barre-zantzo bat egin dau.

—Katuari grazia egin jeutsak, antza, heure esateak, Txitxu barrabana —dinotsat barraban honeri.

—A, bai, jauna! Honek guztia ulertzen dau.

—Guztia?

—Berbaz ez beste guztia daki honek, ugazaba. Baina, zer esan dot? Berbaz be badaki, nortzukaz esan behar ze. Bere lagunakaz, katu-lagunakaz, zelanbestean egiten dau. Haorretxegaitik eroan gura dot Madrilera, han berba egin dagian Otxorio Gariartoren katuagaz, katu horren bitartez berorren ugazabaren bizimoduaren barri jakiteko.

—Baina, Txitxu, hi ez hago ondo burutik. Zelan jadetsiko dok Txuri hori Otxorio Gariartoren katu ospetsuagaz berbaz ipintea?

—Zelan? Otxorio Gariarto zein etxetan bizi dan jakinda. Behin hau jakin ezkerro, badakigu nora joan. Eta jakin daigun egun berean, gauez, Otxorio Gariarto bere Kongresoan dagoan arteko ordutxu baten, bere etxearen atzetxura joan eta hantxe, inork ikusten ez gaituala, aterako dot kolkotik Txuri bizkor hau —eta barre egiten dau beronek—, eta harik gorako zeregin guztiak beronen ganera itxiko dodaz. Bai. Beronen ganera Otxorio Gariartoren etxeko teilatura igo-tea, eta beronen ganera beronek asmauko dituan marramiau egokia-kaz Otxorio Gariarto beraren katu hori beronen ondora ekartea, eta katu berorreri, polito-polito berba eginda, jakin behar diran gauza-txuak erasotea.

—Holan izatekotan, tirok, ba! Joan hadi, joan zaiteze, ordu one-an. Eta eutsie, neure baimenagaz, neure bedeinkazinoa. Eta ez dai-zuela hartu, laguntxuak, ez harantzean, ez bertan, ez honantzean, Asaltoko fraileen bedeinkazinorik.

Beste katu bat aiatatuaz

Madrilera heltzea eta han gauza hain garrantzi handiko horreek egitea nahikoa ez dala-ta, al bait arinen euren helduerearen barri emoteko agindu deusat Txitxuri, Txuriri bere bizileku barriko atea itxi eta, geure bizileku honetako atea, kanpora urteteko, zabaltzen hasi danean.

—Emongo deusat, jauna: EAJ *Zazpiterdiren* bitartez. Eguazte-nean, gaueko hamar eta erdietan, Jainkoak gura badau, konferentzia bat emongo dot —dinost serio-serio.

—Konferentzia dinok, Txitxu?

—Bai, Jauna. Eta konferentzia hori entzun ezkerro, ez dau behar berorrek gehiago ondo heldu garala jakiteko.

—Itxiko deue gero konferentzia hori emoten?

—Gantxo Pantza goratzeko dala esango deuset.


—Gairik badaukak konferentzia horretarako?

—Bai, bat, jauna, eta ez makala be, gero! Hona hemen; ea zer deritxan: «*El séptimo gato de Gantxo Pantza es oriundo de Artebarrakarra (Derio), de donde trajo a su abuela como recuerdo de su estancia en dicho lugar a raíz de una huelga revolucionaria*».

—Ondo jagok. Baina ezer entzuten ez bajoat...

—Ezer entzuten ez badau, egin leike kontu amaitu jakuzala diruak, eta atzera etorteko lain batzearren fraile sartu nazala hilebe-terako Asaltoko fraileen komentu baten.

³ [arielzaina: *zeladorea*.]



XI

EZ DIRA BIHURTU, ANTZA

Txitxu gurea eta bere katu Txuri Madrilera joan ziran lehengo egun baten. Behintzat, harako asmoz urten eben. Eta ederto urten be. Haizea poparean daukiela. Txitxuk, oinez; eta Txurik, kolkoz.

Esan neutsun urrean, irakurle maitea, harako urten ebena, zelan urten eben esan ez baneutsun be.

Orain, zelan atzera bihurtu diran jakin gura izango dozu zuk; baita neuk be, adiskidea. Ba, oraindino ez jataz agertu, neure aurrera behintzat; eta sasoia badabe neure aurrera agertzeko, etxeratu badira.

Okerren bat ez ete jake jazo han, Madril aldean, gure Txitxu onari eta bere katu Txuri zintzoari? Bildur behar, han txakur asko dago eta.

Galdu ete dira, ba?

Mari Motakoaren oiloak lez, agertu balediz, seinaleak onak daukiez.

Mari Motako hau txorierritarra zan. Eta bere oiloa be bai; bere etxean jaioa.

Neuk ez nebazan ezagutu bata ez bestea, neure amama bien amamaren aldikoak ziran eta.

Baina Marik berak ondo ezagutzen eban bere oilo hori, antza.

Ba, aldendu ei jakon behin, halako baten, berak igarri barik, mutil errondariren batzuen eskuz alde eginda, eta aldendu eta gero, hilebetegarrenean be, guztiz galdutzat euki barik hauxe esaten eutsen, seguru be, Mari zuhurak bere auzoko andra-lagunai: «Seinaleak onak daukaz, agertu baledi».

Txitxu gureak eta bere katuak be ezaugarri onak daukiez. Txitxuk berak inork ez daukan lango orainen polit-polit bat dauka bere eskumako belarriaren zulo ganean.

Eta katuak, Espainiako banderazarraren antzeko zertxu bat, bere kolore eta guzti, kokotaren erdi-erdian.

Haorixe zertxuori eukiteak galdu ez badau... Asaltoko fraileren batzuk ikusi badabe geure katu hori eta erreparau badeutsie bere kokoteko zertxu horrerri.

Ganera, lodi samar be eroan ditu kokotaren atzeko lepoa eta inguruak eta... jun! *Jun* esan dot? *Jan* be ez ete dabe egin, gero?

Dana dala, ziur esan neike Txitxu ez dala etorriko bere katu hori barik. Halan emoten dau ulertzen, bidean doazala, Burgosetik bialdu deustan telegramatxu honegaz:

«Ugazaba, hemen gaur hau entzun dogu: Txorierrin euskera barri bat sartu dala. Barrabana!

Honako gure katu Txurik, hau entzun orduan marramiau garratz bat egin deust kolkoan, bere haserrea erakusten deustala. Eta esan deust, entzun dogun barri hau egia dala horra-ko gure GACETA maite horrek badino, bera ez doala gehiago Txorierrira.

Ba, gurago dauela bizi *Katuerrin*, Madrilen, Etxeres Kirogagaz, Txorierrin euskera barriagaz baino.

Eta hau neure katu maiteau Madrilen geratzen bada, badaki, ba, jauna, neu be...».

Eguazten gaueko konferentzia


Eguazten gauean, hor, hamar eta erdiak inguruan, jo eta su ibili nintzan neure erradio-tresneagaz, EAJ *Zazpiterdiren* bitartez, Txitxuk bere helduera onaren ezaugarritzat aginduriko konferentzia panparroia entzuteko asmoz.

Baina ez neban entzun bere berbarik, neuk dakidala behintzat. Ordu horretan entzuten neban berbeak beste batena zala emoten eustan. Izan leiteke, horraitino, EAJ *Zazpiterdi* hori, beste askotan lez, moteltxu ibiltea.

Honenbesteko zoriona sarri izaten da EAJ *Zazpiterdigaz*. Eta haxe gogoratzeak emoten eustan itxaropen apur bat.

Izan zeitekean Txitxuk handik berba egin eta bere berbea zan lez hona ez heltzea. Kontsoletako modua daukagu, moduren baten, gogorazino honegaz, EAJ *Zazpiterdiri* eskerrak.

1933ko epailaren 19an,



XII

AGERTU JATAZ TXITXU ETA TXURI

Gaur heldu dira hona, euron etxera, Madril aldetik izaniko geurre Txitxu ona eta bere katu Txuri zintzoa.

Txitxu agertu jat lehenengo. Eta Txuri gero. Txitxuren kolkotik urten dauenean. Nire poza, biok neure aurrean ikusi dodazan orduan!

Harainegunera ezkerro, euron barririk hainbeste egunean ez daukadala konturaturik, galdutzat euki dodaz, eta esan be egin deusat Txitxuri, katua nagiak ateraten ibili dan artean:

—Galdu hazala-ta egon nok, ba, Txitxu.

—Ni galdu? Igarle txarra izango zan berori, jauna, galdu izan banintz. Ba, behin baino gehiagotan esan deust berorrek: «Hi ez haz lehorrez galduko».

—Bai, egia dok hori. Eta hi, oraingoan, ez haz joan Madrilera itsasoz.

—Ai, ugazaba, itsasoz ibilteko ez gara gauza Gantxo Pantza eta ni!

—Hik ez dakik Gantxo Pantza gauza dan ala ez.

—Bai, jauna. Dakianak daki nor dan Gantxo Pantza; eta nik ondo dakit behin, Primo Riberaren txakurrakandik itsasoz iges egin gura izan eban baten, zelan ibili zan. Itsasoko zerak ez eban bera ondo hartu, lodiegia dalako-edo, eta bide-erditik atzera etorri behar izan eban Bilbora. Eta gero lehorrez egin eban iges, bape zer barik, fraile jantzita.

—Ikusteko mutila egongo zoan bera fraile jantzita, bere buru murri⁹ eta behe-erdi-eginak begitxu biakaz. Baina itxi degiogun orain bakean.

—Jauna, itxi degiela berak eta bere lagunak bakean fraileai. Ez deritxu kontua daukala, berak behintzat, fraileari bakean ixteaz? Fraileak Espainiatik kanpora bota eta gero, iges egin behar dauenean, ez da gauza izango fraile-jantzia iges egiteko.

Zelan ibili diran

Gantxo Pantzak hurrengoan, iges egiteko, zelan jantzi behar dauen jakitea Gantxo Pantzaren bururako itxita, handik, Madril aldetik, eurok zelan ibili diran esan deidala eskatu deusatzat neuk, holango baten, Txixuri.

Ba, haxe ez geunke jakingo, Gantxo Pantzari beti ekinda.

—Ibili ondo egin gara, jauna —dinost berak—, baina ez dogu ezer egin.

—Ez dozuela ezer egin?

—Egin bei kontu ez dogula ezer egin; ba, ez nik emon ahal izan dot, EAJ *Zazpiterdiren* bitartez, berorreri agindu neuntsan konferentzia, ez Txurik jadetsi ahal izan dau Otxorio Gariartoren katu ospetsuagaz berba egitea. Neure konferentzia panparroia emon barik geratzea, ugazaba, horrerri Txuri barrabanorreri zor jako. Berbaz has-teko jesarri nazauaz batera, jesarkeran, kili-kili neuk gura ez dodala egin deusadalako, edo berau, non gagozan begiratu barik, biderako

⁹ [murri: kalbo.]

eroan dauen *Kili-kili* liburua irakurten egon dalako, barre-zantzo bat egin dau, eta agur gure konferentzia. Burlazar nabilela uste izan dau bertako ugazabak edo dana *dalakoak*; eta honek barrabanonek ez, baina neuk hanka egin behar izan dot. Eta pozik, neure hankarik ez beste neure gauzarik galdu barik, hau osorik eta estarian dodala, atea atrapau dodanean. Eta begiratu beio barrabantxu honeri. Barreka dago oraintxe be.

—Orain ez jaukak, ba, kili-kilirik.

—Ez; orain, *Zaparradak*-eta. Egin deuskun behar txarra eragiteko liburu bietatik bata nahikoa dala, biak eroan ditu barrabantxu honek.

—Eta Otxorio Gariartoren katu ospetsuagaz horrek berba ez egi-tea, zergaitik izan dok?

—Ez behar handi horren errurik ez dauka inork, jauna. Igon dau honek ganoraz Otxorio ganorabakoaren etxeko teilatura, eta marra-miau egokiak egin be bai zelanbestean; baina, katu ospetsuaren orde, bere atezainaren katuak urten deutso, eta emon deutso ulertzen, katu-euskera garbian, bere ugazaba nagusi ganorabakoaren katu ospetsu hori gaixorik dagoala, gripeagaz, eta ez dagoala inogaz berba egiteko taiuan; ba, ugazaba nagusi ganorabakoaren antzera, burutik egiten dauela.

—Osatu dala jakin daizuenean, barriro atzera joatekoan geratu zarie?

—Ez neu horretan-horretan! Doala berau bakarrik, barbarik emon badau.

—Joango nintzatekek neu, ba, astia eta modua baneukazak. Eta bertan geratu be ...

—Ez beite joan, eta arabere gitxiago bertan geratu. Entzun bei hor zoro batek zer dinoan kanta-soinuan.

—Isilik orain, katua! Entzun zuk be, Txuri, zoroak dinoana!

*Ai, ene Jaungoikoa!
Zeruan banengo,
ez nintzateke gehiago
mundura etorriko!*

—Ez dok zorakeria hori esatea, Txitxu.

—Zorakeria bai izango litzateke, ugazaba, berorren ahoan, gauzak aldatu artean behintzat, hauxe esatea:

*Ai, ene Jaungoikoa!
Madrilen banengo,
ez nintzateke gehiago
Asura etorriko!*

—Asua aitatu deustak, Txitxu barrabana? Badakik barrabantxuorrek, neure bihotzari entzunda-edo, Asura gehiago ez etorteko promesarik egin ezin neikena neuk, ez Madrilen, ez Murtzian.

1933ko epailaren 26an.



XIII

MATXALEN, EZKERTARRAK ETA TRENA

Lerrouxen eretxian, antza dagoanetik, Errepubliketa triste dago.

Gauza tristea bada, ba, triste egotea, beti be, triste dagoanarentzat. Triste dagoanarentzat berarentzat eta bera maite dabenentzat. Gauzea argi dagoala esan leike, tristetzeko gauzea bada be.

Beste gauza bat be badakigu, Lerroux zuhurrari eskerrak. Errepubliketa triste honek beronen andra-izena daukala. Eta *Matxalen* dala beronen andra-izena.

Ba, berau triste dagoala esan eta behingoan, argi eta garbi esan dau: «*La Magdalena no está para tafetanes*».

—Matxalen Oriubelgorri izango da, ugazaba.

—Oriubelgorri? Zergaitik, Txitxu?

—Bere jagoleak ezarri deusiezan hiru koloreakaitik.

—Filosofo handia haz, mutil; baina ibili hadi arduraz eta kontuz holango filosofokeriakaz, laprast egin barik.

—Jausi ezik...

—Haortxe jagok untzea gauza askotan: laprast egin eta ez jaustean.

—Egia handia hori be. Halan egon leiteke bat edo bat bultz egi-
teko be eta.

—Ta..., ta, ta! Goazen orain beste gauza batera, beti baten egon
barik.

Txorierriko aita on batek, beste beharrik ez eukanean, bere
emaztearen eskutik hartuta, eurok hain maite eben hamar-hamaika
hilebeteko semetxua, hamar edo hamaika hilebetekoa berau zan arte-
an, sarri be sarri ipinten ei eban bere belaunganean, eta, bera belau-
nagaz gora eta behera darabilela, haxe kantatxuau kantetan ei eu-
tsan:

Nire semea, semelote!
Martien dauko urtebete;
beste martien, beste bete.
Ta orduen bere, semelote.

Hainbat bider kantauko eutsan Lerrouxek berak hain maite
dauen *neskatotxu* horrerri, orain urtebetera artean, bere belaungane-
an hartuta, Azañak-eta itxi baleutsie, Txorierriko aita on horren kan-
tatxu hau jakinik, kantatxu honen antzera, hau besteau:

Nire neskatoa, neskato!
Apirilean dauko urtebete;
beste apirilean, beste bete.
Ta orduen bere, neskato.

Ez dakigu gaur zer kantauko leuskion.

Baina, itxi degiegun honeei gauzoi, eta goazen beste gauza bate-
ra.

Treanean joan geinteketz, gura izan ezkerro. Horra hor Norteko tre-
na!

Haortxe egin ez bagengi biajetxu bat Valladolidera, Zuzentasuna
eta Askatasuna, —erderaz, *Justicia y Libertad* izena daukien neskato
panparroiak—, alkarrerri eskuak emonda, zelan dabiltzan uri horreta-
ko kaleetatik ikusten.

Uri horretan, domekan, ikaslari katoliku batzuk, eskubiderik¹⁰
ete daukien ondo begiratu barik, jaurliariaren baimena, gobernadore-
aren permisoa, badaukiela-ta, paper batzuk zabaltzen hasi ziran. Eta
uri berorretako ezkertarrak haserratu egin jakezan. Errazioaz eta, ez
eutsien ondo eretxi ikaslari katolikuak paperak zabaltzen kalerik kale
ibilteari.

Handitxua egin be egin dabe ikaslari katolikuok. Kalerik kale
ibili behar dabela euron paperak zabaltzen! Ez dago deretxorik!!!
Teilaturik teilatu, bera jausteko arrisku apur bategaz, ibili balira,
tira! Baina, kalerik kale?

Ikaragarritzko zorakeriak egin ditue, gero, ezkertarrak, ikaslari
katolikuak eginiko zentzunbakokeria ikusiaz hartu daben suagaz!
Bai, ba. Orain, ondo izango litzateke hara gutariko bat joatea, ezker-
tar *errazoizaleok* euron amorruez egin dabezan zorakeriak ikusi eta
gero, Zuzentasuna eta Askatasuna pozik ete dagozan jakiteko.

—Joango gozak, Txitxu?


—Bai, jauna, Norteko treanean. Norteko trenak jentea merke
darabil, antza.

—Orain ez jagok merkerik ezer, mutil.

—Ba, neuk dinotsat berorreri, ugazaba, Norteko trenak ikaraga-
rrian izan behar dauela merkeak, Gantxo Pantzaren ardurapean
dagoanetik gora. Igazko zezeilean baino, bost miloe eta larehun mila
pezeta batu ei ditu gitxiago aurtengoan.

1933ko jorrailaren 2an.

¹⁰ [eskubidea: *deretxoa*.]



XIV

EZ GALDU UMORE ONA!

Gazteak gogoa zoro da esakunea. Eta zoro be zoro daukie, antza, euron gogoa egunokaz Bilbon espetxeratu¹¹ diran nazionalista gazteak.

Espetxean¹² dagozan artean jan barik egon behar dabela erabagi dabe.

Hori dok umorea! Benetan erakusten dabe umore ona nazionalista gazteok. Baina umore on hori ez daroe bide onetik, Txitxuren eretxian; eta, egia esanda, neure eretxian be ez. Arerioai bakarrik barre eragiteko bidetik daroela uste dogu geuk, Cantxo Pantxak ezetz badino be.

Umore ona daukanak ondo egingo dau, beti be, umore on hori jagonagaz.

¹¹ [espetxeratu: *kartzeleratu*.]

¹² [espetxe: *kartzela*.]

Jan barik luzaroan dagoanak, barriz, gatx eukiko dau bere umore ona jagoten. Umore txarra bai jagon leike jan barik eta edan barik be.

Egizuez, gazte umore on-zaleok, zeuron umore ona ez galtzeko moduak! Umore onak, gazteak, bere entxufetxu ona behar dau, Corderontzako danak itxi barik!

Polito erakutsi eban egia handi hau, Tapia olerkari harrikalariak baino aurreratxuago, olerkari zentzun handiko batek, entxufe izenik aitatu barik baina, egia handi berau esangurako berba osasungarri honeekaz: «*Mens sana in corpore sano*».

Mens sana, hauxe lehenengo. Haonetan dauka umore onak bere lehenengo bizibide nagusia.

Baina hau ez dau nahikoa. Bere entxufetxua behar dau: *in corpore sano*. Eta entxufetxu hau eukiteko, ez dago *sano* jan beharrik; baina bai bada behar-beharrekoa gosea kentzeko beste jatea.

Ganera, konturatu behar dozue, gazte umore on-zale euskerazaleok, «biziak bizilan» egin behar dauela, euskerazko beste esakune jakitun batek dinoan lez.

Eta ez ahaztu beste esakune euskerazko batek hauxe dinoala entzun gura dabenezat: «Norberarentzako ez dana ez da inorentzako». Halanda ze, norberaren eta norberatarren barrearentzako be ez.

Gauza *serioa* da umore ona jagoteko euki behar dan ardurea.

Tapiaren tapea

Madrilgo Tapia olerkari harrikalari ospetsuak, Errepublikea bere bertsoetan goratu gurarik, hainbeste badaezpadako bertsoren artean, inoiz ahaztuko ez jakun bertso panparroi hau jaurti euskun:


*¡Qué bien, qué bien, qué bien
va el tren, va el tren, va el tren!*

Baina, antza dagoanetik, orain tren hori berak gura dauen lez ez dabilelako, edo bera berak gura leuken lez ez dabilelako, edo gauza biokaitik, itxi dau bere bertsoak jaurtiteko hartuta euki dauen luebana, trintxerea.

Zati baterako, hain ondo irabazita daukan atsedena bere buruari emoteko ixten deusala bere bertsozko lan horrerri dino berak. Baina Txitxuk ez deus sinisten. Eta, bere antzera, bertsoan dino beronen eretxia.

*Hauxe da Tapiak gaurko
topau dauen tapea,
estalduteko «trenak»
topau dauen topea.*

Hau zerbait gehiagogaz,
1933ko lorailaren 7an.



XV

OTXORIO ETA BERE SEME POLITA

Behin baino gehiagotan esan leikio Otxorio Gariartori, berak hain *polito* egiten dituan gauzak ikusirik: «Hi haz semea!».

Baina bere semea ez da bera. Bere semea Otxorio Polit da, *ondradamentean*, Gobernuari eta Errepublikeari laguntzeko. *Otxorio Polit* esan dot? Bai, aurki. *Otxorio Florit* ei da, baina politago dala-ta, *Otxorio Polit* deitzen deusagu Txitxuk eta nik.

Eta ze polito jarraitzen deusan bere aita ganorabakoari! Edo honek berari. Halan nahi holan, biak be ez dira txarrak Gobernuaren eta Errepublikaren opilari su eginagaz euron etxekoari su egiten.

—Jauna, itxi beit niri bertsoan esaten berorrek horreekaz berbo-kaz esan dauen guztia edo gehiena.

—Tirok ba! Baina kontuz ibili hadi, heure buruari egurrik batu barik. Eurok etxekalte ez dirala esaten hasi eta, heu etxekalte bihurtu barik, kontuz ibili, Txitxu! Etxeres Kiroga ospetsua Espainian jagok oraindino.

—Badakit, jauna. Jaungoikoak jagon gaizala, ugazaba! Hor doa bolea. Hemeretzi egiten ez baditu be, katxina aparauko dau, urrean.

*Otxorio Gariarto
eta Otxorio Polit,
etxekalte ez diran
aita- seme bi,
alkarren antzean
su eta gar dabiltza,
Errepublikearen
opil onari
su eginaz, su egiten
etxekoari.*

*Errepublikeak
badaukaz lagun bi
horreekaz gaur; baina
bihar edo etzi,
ikusi dagienean
«neskatotxu» hori
«fi» dagoala, biok
egingo deutsie «fit».*

Txitxu konplot baten sartuta

Neuri ezer esan barik konplot baten ez da sartu, ba, Txitxu gurea!

Oraindino ez doguz ikusteko guztiak ikusi. Eta, zer ikusi behar ete dogu?

Hauxe jakitearren deitu deusat oraintxe Txitxuri berari neure ondora. Eta itandu be egin deusat.

—Esan eik bene-benetan: zer darabilk egunokaz?

—Nik, jauna, soineko-jantzia eta lantzean zigarro bat edo beste. Orain fumetan be ikasi dot eta.

—Sasoi onean, arranoetan!

—Oraingoan fumetan jakitea ondo etorriko jat.

—Zertarako?

—Geure triunfo egunean txapliguak¹³ botateko. Txapliguari zigarroaz emoten ei jako sua ondoen-ondoen.

—Zelango triunfoa dok gogoan?

—Bilbon aste honetan irabaziko doguna.

—Nortzuk?

—Geure eskuz, geure buruz asmauta daukagun behar zaratatsu bat egingo dogun euskalzaleok; eta geure bitartez, berorrek eta beste euskalzale guztiok. *Golpea* emon behar dogu, ugazaba.

—Emon barik, hartu egin ez bazengie, gero!

—Ez bei euki bildurrik; zuhur gabiltza. Hatan be, ni. Badaki berorrek ni kaikutzat inork ez naukana. Ba geure planak golpe horretarako berbatuta daukadazan lagunai aitatu behar deusdazan eskutitzetan¹⁴, *Kaiku* ipinten dot neure firmatzat. Eta noizik behinean, poliziakoak igarten gatzago euki dagien, haolantxe: «K. I. Q.».

—Asti gitxigaz naiagok eta, esan eik arin zer egingo dozuen.

—Berba gitxitan esango deusdaz geure planak. Lehenengo, binan-binan, ordu bat-baten, Bilboko liburu-denda guztietan atrako antzeko bat egin, euskerazkoak edo latinezkoak ez diran liburu guztiak liburu-denda bakotxaren aurrean eukiko dogun autoan edo kamioian sartzen doguzala. Gero, euron liburuakaz, autook edo kamioiok Artxandara eroan, liburu-dendariak hara datozala kobretan esanda. Eta hantxe, liburu guztioi, pilo baten ipinita, txapligu-hotsean, sua emon. Eta erre guzti-guztiok, hantxe. Bilbok eta Txorierrik ikusi dagien euskereagaitik zelan geu erreten garan.

—Pilo horretatik erderazkoren batzuk apartauko dozuez, horraitino, surik eurai emon barik.

—Batxu be ez, ugazaba!


—Euskerea bera irakastekoak be ez, Txitxu?

¹³ [txapligua: *bolanderea*.]

¹⁴ [eskutitza: *kartea*.]

—Ai, holangoak, bai, jauna! Etxekalte ez gaitezan izan. Behar ona egingo geunke geure *Gramática Vasca*-eta erreagaz! Parkatu bei, ugazaba. Eta isilean euki bei gauzea, berak geure eskuz zarata egin artean.

1933ko lorailaren 14an.



XVI

GANTXO PANTZA ETA BERE ZORITXARRA

Gantxo Pantzak diskurso bat bota deutse bere herritarrai Oviedon, lehengo domekan. Dirurik ez deutse bota. Tira! Euki be ez dauka dirurik berak holan, botaka, erabilteko.

Diruaren ordeztu, antxinako bere zoritxarraren gorantziak emon deutsez. Gogoan dauela esan deutse berak serio-serio, zelan zoritxarrak bultz eginda etorri zan handik hona, geure artera. Zoritxar hori albo batera zelan bota ahal izan dauen esatea hurrengo baterako itxi dau.

Ezin sinistu dau Txitxuk Gantxo Pantza hori hona bere zoritxarrak bultz eginda etorri danik. Honen eretxi argalean, Gantxo Pantza bera baino apur bat argalagoan, ezin izan leiteken gauzea da zoritxarrak bultz egitea zoritxarrak berak bere eskutik dakarren morroiari. Eta Txitxurentzat argi dago zoritxarrak bere eskutik ekarri deuskula morroi polit hori.

Jakingo da bihar-etzian zelan sartu ziran hemen Gantxo Pantza eta bere zoritxarra. Baina, Txitxuren ustez, Gantxo Pantza hemen

sartu zanean bere zoritxarra be sartu zala berton, beragaz batera, egia handi bat da.

Eta, baita be egia da, aspalditxuon batera ez dabiltzana. Bera hona ekarri eban zoritxarra aspalditxu honetan zabal dabil geure artean, baina berari ikutu barik.

Ai, bera hona ekarri eban zoritxarra bera barik etorri balitz! Hauxe esan dau Txitxuk oraintxe, zizpurutxu baten erdian. Oraindino gehiago be esan leike, aurki, eta jarraitu daigun aurrera.

Gure eretxian, Gantxo Pantza hona ekarri euskun zoritxar peste hori geuretzat, bera edo beratarrak ez garanontzat, da *zoritxarra*. Baina berarentzat behintzat, eta aspalditxuon behinik behin, munduan zoriona egiazkoa izan leiteken bestean, egiazko zoriona da.

Bera ona ekarri euskun zoritxar hori, askorentzat zoritxar egiazkoa dan berori, aitatu eta ospatu eta gero, Gantxo Pantza zorizkoak buruko joan baten antzeko bat izan dau.

Eta aratinik jausten hasi da.

—Eta ez da jausi? Ez da tragau behin?

—Txitxu, ez hadi estutu.

Jausten hasi eta gero, zutundurik, gora ikaragarri bat jaurti dau, seguru be. «*Viva la República!*» esan ei dau gora horretan.

Haorretantxe be suertea euki dau. Aratinik jausten hasi danean bere alboan egon diran adiskide batzuk hartu dabe euron besoetan, eta zorizko besootan hartu dauen hotsagaz saltu handi bat egin dau bere gorputzak, eta saltu horren indarragaz urten deutso hain indartsu osterantzean makaltxuago urtengo eutsan gora zarata handiko horrek.

Eta gorearen indarretik neurtzen bada Errepublikeaganako maitetasunaren indarra... Nahikoa esan dogu, urrean.

—Berorrek bai, nahikoa esan dau, gehiago esateko gogorik ez badauka; baina nik...

—Hik zer?

—Nik kontuak eskatuko neuskioz horrerri morroiorreri. Lehenengo-lehenengo, ea zergaitik ez dauen esan, ondo ikasita dauka eta, harako behinola liburu baten idatzita itxi eban esakune egoki hau:

«Buruko minik ez». Buruko joan baten osteko onaldirako, ze esakune egokiagorik hori baino?

—Txitxu, hori baino inportantzia gehiagoko konturik bajaukak.

—Baina danak eskatuko neuskioz nik banan-banan.

—Orain ez jagok astirik, Txitxu.

—Astoak bai, asko, Espainia zabalean.

1933ko lorailaren 21ean.



XVII

MITINA, MOTINA ETA MUTINA

Beti be, agrario izeneko zerak zer diran ondo dakie eurok, agrario izeneko zerok.

Halan nahi holan, ez dira eurok «zero» *a la izquierda*. «Zero» *a la izquierda* ez dirala, nahikoa argi erakutsi eben oraintsurengo botazinoetan. Eta «zero» *a la izquierda* ez dirala nahikoa argi orduan erakusteaz asetu ezta, orain mitin nagusi ikaragarri bat emon gura izan dabe Valladoliden. Mitin nagusi ikaragarri horregaz barriro be eurok «zero» *a la izquierda* ez dirala erakusteko. Beti horretan: eurok «zero» *a la izquierda* ez dirala erakusten.

Hori da horreen jokoa. Eta sozialistak horrerri jokoorreri ez deritze ondo; errazoiak. Ba joko horretan eurok ez dabe olgetan bape; apur bat gehiago olgetan dabe euron entxufe-jokoan.

Eta horretxegaitik, agrario izeneko zeroi euron jokoa galarazotearren, inon diran zemakuntzak egiten hasi dira. Mitina agrario izenekook egiten badabe egin, eurok...

Eta Etxeres Kirogak esan dau: «Kapaz-kapaz dira honeek *mitina* egiteko. *Mutina* agindu degiogun Agrario izeneko alderdiari, *mitina* galarazo degiogun, beste alderdi honek *motina* egin ez dagian».

Karlistak daukie errua

Naparroako karlistai otu jaken, akordau jaken, egun zorigaizto-ko baten, Estellan mitin bat egin behar dabela. Albait lagunik gitxien batzea gura leukiela esan barik. Eta beste egun zorigaiztoagoko baten, hile honen 21ean, egin be bai mitina lagun-pilo ikaragarri bategaz. Lagun larregaz, kontxo!

Eta, jakina, Joakina!, Etxeres Kirogak egin behar zeozter, agrario izeneko burugorrekook egin ez dagien bardin, haolantxe, lagun larregaz, euron mitina.

Eta orain Txuri zer egin ezean

Txitxuren katu ospetsua, geure Txuri, lagun gitxigaz ibiltzen zalea, Otxorio Cariartoren katu entzutetsua errepublikanutu egin zala entzunik, katurik gehienak errepublikanutu dirala-ta egoan. Eta zer egin ezean parau zan. Eta holantxe, zer egin ezean, zer egin ez dakiala, egon zan egun batzuetan.

Holango baten, horraitino, Txitxuk erpetara jaurti eutsan arrain bat jaten egoala, konturatu zan bera zalea dala lagun gitxigaz ibiltzen, eta, bere zaletasunaren erara jokatu gura izan ezker, ondo izango dauela nondik lagunik gitxien dabilen jakitea, berak be handik jokatzeke. Eta honetan egoala, laster entzun eban, bera bila ibili barik, berak jakin gura izan ebana.

Alboko etxe baten, baten batek hauxe esan eban berak entzuteko eran, besteren bategazko eztabaidan:

—Karlistak lau katu baino ez dozak!


—Ba, nigaz, bost —erantzun eban berak, eztabaidakoak entzun ez haeutsien be—. Nigaz, bost esan dot! Baina, kontuz. Asko gehiago ez gaitetzala izan.

Eta orain ikusirik asko gehiago dirala bera eta bere lagunak, katu, gizon, andra, neskatila, mutil eta ume, nahaste gehiago barik, barriro parau da zer egin ezean. Halan nahi holan, karlisten kontrario ez leuke izan gura. Hobeto esateko gauzea, dan lez eta euskera

garbian, ez dau izan gura karlisten arerio, bizi dan artean. Eta ez leu-ke hil gura Madriler a Txitxugaz beste joatalditxu bat egin barik. Han «gora Erre...!» (beste *Erre...* bat!), Txitxuren zantzoen artean, berak ahal dauen eran, indartsu-indartsu esateko.

Esan leike Txurik burua bere lekuan daukala.

1933ko lorailaren 28an,



XVIII

MACIARI, *MAZIA*

Macia Madril aldetik dabil egunokaz. Eta Gantxo Pantzak afari bat emon deutso uri hatako jatetxerik dotoreenatariko baten. Eurok be dotoreak dira eta, ez da mirari.

—Eta afaria bera be holangoxea izango zan, ugazaba: dotorea. Dotorea baino gehiago izan ez bada...

—Dotore baino gehiago, Txitxu?

—Bai, jauna. Dotore-dotorea.

—Izango zoan, beharbada.

—*Beharbada* barik, ugazaba.

—Hi ez haz egon han, Txitxu.

—Ni ez naz egon; baina Gantxo Pantza bera egon da, antza, afari horretan eta Gantxo Pantzak afari horretan, Maciarentzako guztia itxi barik, lotsearren be, jango eban berari toketan ekiona. Eta berari toketan jakona, beti be, jateko kontuan, dotore-dotorea izan daiten moduak egiten maisua da eta.

—Orduan, hire eretxian, ez jagok inori itandu beharrik afari hori dotore-dotorea izan ete dan ala ez.

—Ez horixe! Beste gauzatxu bat bai itandu leike, berorrek baderitxo...

—Zer?

—Afari dotore-dotore horretan, afariko kopau gozoen artean, Gantxo Pantzak berak Maciari berari zelango *mazia* bota deutsan ahora.

Otxorio Gariartori, mazua?

Erromanonesen seme Albarok, bere aitaren izenekoak, Otxorio Gariartori, *mazia* barik, *mazua* jaurti deutso. Mazua edo *magaz* hasten dan beste gauza bat, makilea edo antzekoa. Makilakada antzeko onik jaurti deutso.

Bat, polita be polita jaurti deutso, «*monárquico sin rey eta católico sin Dios*» dalako zera emoten dauela esanaz.

Eta beste bat be jasekoa, hauxe egiten dauela arpegira boteaz: «*Uso constante del vaso, llenándolo primero en el grifo de un régimen y luego en el otro*».

Makilakada guztiak banan-banan esateko astirik ez daukagu geuk, irakurlea, eurok hartzeko astia Otxorio Gariartok berak euki badau be.

Halan nahi holan, Otxorio Gariarto hori ondo markauta geratu dala esan leike. Baina, markarik handiena berak egin dau, berak erabili dauen joko politagaz. Holango *markarik*!

Eta sozialistai, zer? Ostatua?


Barikua da gaur. Gaur zortzi lez. Eta atzo, eguea izan dan atzoko egun zorionekoan, errepublikanuak, Errepublikea eta sozialistak ondo ezagutzeko zio edo motiboa daukan diputadu errepublikanu batek —horretarako da erradikal sozialistea— hauxe esan ei deutse Madrilen, askok entzuteko lekuan, bertan egon diran diputadu sozialistai: «*Los republicanos debemos ser dueños de la República, y no vuestros pupilos*».

Jaun horren eretxian, Errepublikea ostatu bat da, errepublikanuak, ostatariak, eta sozialistak ostatuaren jaubeak.

—Nik zeozer gehiago be esango neuke, ugazaba.

—Hi hago isilik, Txitxu, kontu honetan, badaezpadan be, Etxeres Kiroga ospetsuak Espainiatik alde egin dauela entzun artean.

Hau zerbait gehiagogaz, baina orain gehitutakoa barik, Txitxuri ahaztu jakon egun baten argitaratu zan...



XIX

EZ DA EDOZELANGO

Azañaren Gobernua bai hilgo ez hilgo ikusi nebanean, Txitxuk ez hainbeste, baina neuk burua estu ikusi behar dodalako gogorra ikusi neban, edo euki neban behintzat.

Ba, behingoan susmau neban gobernu hori, bai hilgo ez hilgo egonik, laster krisian agertuko zala.

Eta Errepublikarentzako bere gobernua krisian agertzea lantegia bada, neuretzako ez da lantegi txikia krisi izeneko gauza hori aitatu beharra, erderazko izen baragarri horrek esan gura dauen berba euskerazko bat erabiliaz.

Gogamen honek buruan daukadazala, aurrean euki dot zabal-zabal, jesarleku baten jesarrita, Txitxu zorizkoa, gobernua krisian dagoala entzun dodan orduan.

Eta atzekoaren begira egon barik, beroneri itandu deust:

—Zelan esango joagu *crisis* euskeraz? Esateko ordua heldu dok, Txitxu, eta ez jakiat! Hau dok estualdia!

—Haorixe da *krisia*, ugazaba, hiztegi baten irakurri dodan lez bada.

—Zelango haorixe?

—Bai, jauna, haorixe: *estualdia*. Halanda ze, ez beite larregian estutu. *Krisia* esateko, *estualdia* esan bei, eta bakea.

—Baina, Txitxu, krisia ez dok izaten edozelango estualdia.

—Ez beite ito titera bete uretan! Euki bei kontuan Errepublikaren gauzen krisia be ez dala edozelangoa.

Badaezpadan be, konsultatxu bat

Oraingo krisia edozelangoa ez dala jakinik, ondo izango dala zelangoa dan jakitea adierazo deust Txitxuri. Eta ondo parau jako hau, antza. Baina ez jako hain ondo parau, zelangoa dan jakiteko konsultatxu bat egin behar dodala esatea.

—Holan dala, ez dauka berorrek, ugazaba, nigaz behar dan konfiantzarik —esan deust.

—Konfiantzea, bai; baina...

—Tira! Deitu beio berorrek gura dauenari. Eta gero, baderitxo, deitu beit neuri.

—Txuriri deituko neuskiok nik orain.

—Ondo dago, jauna.

Txitxuk ondo dagoala esan deust, baina ez dago ondo Txuri gurea. Elgorri ikaragarri bat dauka, eta ez dago barbarik egiteko jasean, Gordon Ordagok dinoanetik. Hau berau bai ondo dago, eta ondo dabil ibili be, antza. Beroneri itandu ez baneio...!

Hatan-horretan

Ai, irakurle maitea! Hatan-horretan, joan jaku astea, lehengo aste guztia, geure *Firi-firi* barik!

Baina, poztu gaitezan. Zoritar horren alderako, zorian jaseko bat izan dogu.

Aste horretako *Firi-firi* gozoak urten behar eban egun berean, hain zuzen be, Txitxuk irakurri dau paperetan zelan deitzen deustien

askok Azañak bere gobernuaren krisiari emon deutsan epaiari.
Komedi bat izan ei da.

Eta Txitxuk hauxe dino gero bere burutik:

—Ez ete da izan *komedia* krisia bera be!

—Ai, Txitxu, hi ahaztuta hago Txorierrin komediari zelan deitzen deutsien! Ez dok entzun inoiz erderazko *habrá comedias* esateko, *faínek ixengo dire?*


—Baita hau be entzun dot inoiz, eta berorrek be bai, beharbada:

*Komediek, Mari, Mungien:
zazpi atso zortzi gurdien.*

—Sarritan jazoten dok, Txitxu, bertsoa egitearren, berba bat esateko beste bat esatea.

—Herriaren lepotik jatearren, horrako horreek gauza bat esateko beste bat esaten daben lez, ezta?

Hau zerbait gehiagogaz,
1933ko bagilaren 19an.



XX

EUSKALZALEA BADA, HAINBAT HOBETO

Bilboko *Acción Republicana* deritxan moltsoko morroiak batzartxu bat egin dabe oraintsu. Eta batzartxu horretan erabagi gogor bat hartu dabe. Euron artean euki daben Aldasoro jauna euron alderdikotzat ordutixek aurrera ez eukitea.

Zergaitik erabagi hori hartu daben jakin nahi jakin ez bardin izango deutse askori; baina euron aurrean euki daben Aldasoro jaunak jakin dagian-edo, erabagi hori hartu baino lehenagotik esan dabe erabagi hori hartzen dabela, Aldasoro jaun hori, euron alderdiko lez diputadu urten eta gero erradikal sozialista izenekoan alderdian sartu dalako.

Aldasoro jaunak han esan dau zeozer bere burua garbitzeko. Baina alperrik, bere lagunzarron eretxian. Eta geure eretxian be bai.

Ba, gure eretxian, horreen artean, politika-gauzetan, burua garbitzen emoten dan denporea galdua da, euron zat irabazterik ez dagoanean. Ganera, guk uste doguncz, geuretzako behintzat, erradikal sozialistok eta *Acción Republicana*koak bat dira.

Eta Txitxuren amama be geure eretxikoa izango zan, bizi izan balitz gaur eta hori jenteori ezagutu.

Holangoakaitik, bere aldian txarkerietan edo okerrerietan bardi-nak edo bardin antzekoak ziranakaitik, haxe esaten eban berak, erderaz bere eretxia esaten ebanean: «*Todos "herri batekos"*».

Holangoakanik apartau egiten dogu guk Aldasoro jauna geure eretxian.

Beti egin dogu gaur artean, uste izanik bere politikan ez dala horreek langoa. Eta orain *Acción Republicanak*ook euron artetik jaurtita ikusten dogun egunetik gora, hobeto apartauta ikusten dogu.

Eta, orain zer egingo dau berak?

Haorixe bizi danak ikusiko dau.

Jainkoak gura badau.

Baina nik neuk haxe aginduko neuskio, neure aginduan balego: euroi agur egin degiela betiko edo behintzat eurok aldatu artean, behar daben aldakuntzea eurok hartu artean.

Eta euroi agur eginda, datorrela, bide-erdian geratu barik, artez-arte, artez-arte, jokatzen zaleak diranen alderdira.

Datorrela, betor, etorri beite, diputadu-akteagaz, nahi akta barik. Baderitxo, gure aldetik ez dago eragozpenik eta, akteagaz etorri leiteke, zabal-zabal. Berari eta bere akteari biai be, atea zabal-zabal egingo jake, eta etorri eta atea jotea baino ez dauka, eskuaz nahi akteaz.

Ea, Aldasoro jauna, jo arin atea! Beharbada, lehengo lagunzarrok esango dabe horrako akta hori, behin zeu aldatu ezkeror, ez dala zeurea. Ez jaramon! Edo, jaramon gura badeutsezu, jaramon egiozu haxe esateko bakarrik: «Neu aldatzea ez da errazoa niri akta hau kentzeko, aldatu, aldatuta dagozan lez, neuri akta berau emon eusten botodunik gehienak».

Eta euskalzalea ei da. Txitxuri nonbaiten esan deusie haorixe: Aldasoro jaun hori euskalzalea dala. Eta ez deust poz txikia emon barri hau etxera ekarri deustanean.

Haoraintxe ekarri deust: aste honetako barikuko arratsaldeko bostetan.

*Bostak,
nire lepoan
ondo kostak.*

Haxe esaten eban, bostak entzuten zituan astegun-arratsalde guztietan, Txitxuren aitaitak.

Baina guretzako, Txitxurentzako berarentzako eta neuretzako, honeek gaur arratsaldeko *bostak* ondo gozoak izan dira bihotzean, lepoan ondo *kostak* izan barik.


Bila ibili barik jakin dau berak. Eta, neuk be bai. Holango suertetik!

Euskalzalea dala Aldasoro jaun hori? Ez dago horregaz kalterik. Kaltea, ostera? Bestera! Asko pozten gara Txitxu eta ni hori jakiteaz.

Kontxo, kontxo! Euskalzalea dala Aldasoro jaun hori! Tira, ba! Euskalzalea bada, hainbat hobeto. Bai, hainbat hobeto.

Holan dala, betor, etorri beite, datorrela, albait arinen, akta eta guzti. Jesarri beite, Urkijo diputadu euskalzale handiaren ondoan. Euskerearen ganean beronegaz eztabaidarik atera barik.

1933ko bagilaren 25ean.



XXI

PÉREZ MADRIGAL

Atzo, Kongresoan, Royo Villanovagaz batera ibili da Pérez Madrigal —gurea laster deituko deusaguna—, Guallar diputadu-abadeari interrunpiduten ibili diran diputadu errepublikanuai euron *interrupzi-noetan interrunpiduten*.

Ibili eta ibili, azkenean, Royo Villanovagaz edo Royo Villanova barik, karlisten alderdira pasauko da. Begia lez!

Eta barre onik eragin behar deusku, bere lagunzarren lepotik, Urkijon albotxutik euroi zirika.

Bakotxa fusil bigaz!

Corderok, arranoetan, ez ditu txarto armau gura izan bere lagun sozialista militanteak! Bakotxa fusil bigaz!!!

Frantziako LE REMPART deritxon izparringi batek dinoanetik, azkenengo ministro-krisian erabagita euki dau sozialista militanteen artean berrogeta hamar mila fusil zabaltzea, eurokaz kea aterateko, bere opilari sua egiteari *a* bako don Anizetok ixten baeutsan.

Zorionean, *a* bako don Anizetok ez deutso itxi Corderoren opilari sua egiteari.

Osterantzean, Jainkoak berak daki bakarrik Espainia guztiko hogeta bost mila sozialista militanteak zelango barrabankeriak egingo zituen bakotxak fusil bigaz.

—Hogeta bost mila dirala-ta egongo da berori, ugazaba.

—Egon, ez naiagok horretan, Txitxu; baina *emon* egin joat horrenbeste izan leitekezala, bakotxari bina emotearren.

—Kontuak ondo urteteko, hiruna be emon beharko leuskiez.

—Kontau egin dozak heuk, horretarako, Espainian dagozan sozialista militante guztiak?

—Bai, Bantzo edo *Garbantzo* diputadu erradikalak Zaragozako karlistak kontau dituan baino apur bat hobeto. Ez dau esan, ba, Kongresoan, atzo, serio-serio, Zaragoza guztian seirehun baino gehiago ez dirala?!

Handia da, gero!

Txitxuren eretxian, grazia handia dauka berak aste honetan andra biri entzun deuten berbaldi polit honek, oraintxe berak kontau deustanak, eta berak kontau deustan lez kontau gura neuskizu, irakurle maitea.

Entzun eizu, barreka jausi ez zaitezan, zezeri oratuta. Neuri jazo jatana zeuri jazo barik. Eup! Hor doa!

—Badakusu hori? Ikusten dozu hori, Pantxike?

—Nor, Kontze?


—*Nor* dinozu? Ez dozu ikusten, eleizpetik oraintxe urtenda, honantz datorren gizon hori?

—A, bai, Urlia! Ikusten dot.

—Ba, oraintxe be eleizatik dator hori. Jai eta aste dabil eleizara eta etxera. Eta karlistea ei da!

—Handia da, gero! Karlistea dala beti eleizara eta etxera dabilen gizona! Holangorik!!!

Hau zerbait gehiagogaz,
1933ko garagarriaren 2an.



XXII

CASANELLAS, MORROI OSPETSUA

Casanellas morroi ospetsua, behinola bere antzeko lagun biren laguntasunaz, Dato jauna Madrilen hil eta gero Errusiara biziten joan zana, Errepubliketa behin Espainian ipini ezkerrean bihurtu leitekela Espainiara eta, Errepubliketa hemen ipini zan egunetik egun gitxi barru etorri jakun atzera.

Errepublikako Gobernuak, horraitino, ez eutsan itxi egote handirik egiten. Hemen sartu zanezko, edo sartzeko asmotan ebilela, urrundu eban hemetik, ez dakigu zergaitik. Baina berak baekian zer egiten eban, eta atzera etorri zan barriro.

Atzera barriro etorri zanean, Errepublikako Gobernuak beste erabagi bat hartu eban: espetxean sartzeta. Eta orain, egunokaz, beste erabagi barri bat hartu dau: espetxetik urtenik, Espainiatik urten barik, Espainia barruan nondik-gura ibiltzen ixtea.

Eta orain hemen jabilku; hemen jabilku, Espainia barruan, berak gura dauen lekuetatik, zabal-zabal.

Hoba ez! Zer, ba? Casanellas hau ez da harako Segura kardenala. Ez dagoz eurok gura leukien baizen pozik Valentziako sozialistak. Gobernadoreak ez ei deuse ixten eurok gura daben guztia egiten eta.

Gobernuari, haorretxegaitik, errazoiak eta, euron haserretxua erakutsi deuse. Eta euron haserretxua erakutsi eta gero, sozialista onak izateko, zerbait eskatu barik ezin egon eta, Gobernuari berari gobernadore hori kendu eta beste bat bialdu dagiala eskatu deuse, seguru be.

Ondo egina, ze kontxo! Baina eurok gura daben guztia egiteko, hobeto egingo eban eskatu balebe gobernadore ipini dagiala eurotari-ko bat. Edo Casanellas bera.

Companys, Maciaren otsein nagusia

Marinako ministrotasuna hartu dauenetik gora, bai dagoala pozik Companys, Maciaren otsein nagusia! Berak esan dau pozik dagoala. Eta sinisten deusagu.

Berari *txoritxua* deitzen deusienak ez dira, beharbada, pozik egongo. Eta asko ei dira, Bartzelona aldean, *txoritxua* deitzen deusienak. Baina, zergaitik deitzen ete deuse holan?

Beste txoritu batek esanda, Companysen beste gauza asko badakiguz, baina haorixe ez dakigu oraindino esateko moduan.

Hauze, bai, esan geinke: beste txori batek kantauko eutsela askori, Bartzelona aldean, txoritu hori ezagutu ez balebe.

Txitxu liburu barri bategaz

—Jauna, liburu honen egilea errepublikanua da?

Hauze dinost Txitxuk, liburu barri bat begien aurrean ipiniaz. Eta nik ez dakit zer erantzun eta, haorretxegaitik, beste itaun bategaz erantzuten deusat.

—Zergaitik egiten deustak itaun hori?

—Liburuan berton dakarzan erregina eta erregari zuketan berba egiten darabiltza beste lagun guztiak eta.

—Hori beharriori ez jok egin egileak, euskeratzaileak baino. Euskeratzailea bera dok holango zu zalea. Ostean euskal idazle gozoa

dala, zu zaletxua dok, tamalez¹⁵. Ostean, zer deritxak bere euskereari?

—Lekurik gehienetan egokia deritxat. Baina *erexi* aditzagazko¹⁶ berbak, hain zuzen be, ez darabiltza ondo *erexi* horrek erderazko «*parecerle a alguien*» esan gura dauen esakera batzuetan. Ez litxakio txarto etorriko berorrek berorren *Gramátican* 158garren orrialdean eta hurrengoan dinoana irakurtea.

—Tirok, mutil! Ekin eiok heuk hori liburu euskal usain handikoori irakurteari, ba ez dok damu izango. Euskal esakera ederrik asko aurkituko dok berton.

—Haorixe *tirok*ori ez dot aurkitu. Eta aurkitu behar neban mutilari hiketan *tira* esaten jakon leku baten baino gehiagotan. Hiketan berba egiten jakon lagunari ez jako esan behar, *tiraren* orde, *tirok*, mutila edo gizonezkoa bada, eta *tiron*, neskatoa edo andrazkoa izan ezker?


—Hi, akats bila hasten hazanean...

—Hara, jauna: ez deusat aitatu gehiago akatsik; aitatu deusadaz aitatzekoak. Jakin bei, barriz, bere lehenengo irakurtaldian gozo be gozo eretxita, bigarren irakurtaldian dihardudala.

Hau zerbait gehiagogaz
1933ko garagarriaren 16an.

¹⁵ [tamalez: *lastimaz*.]

¹⁶ [aditza: *berboa*.]



XXIII

ABADEAK ONDO BIZI DIRALA...

Bartzelonan, fraile dominikuen eleizako ateetan, abade bat limosna eske agertu ei da, eta bera limosna eske agertu dan lekuaren inguruan eskean jarduteko lekua artetik hartuta daukien eskekoak, besteak, abadeak ez diranak, ez ei deusie ondo eretxi.

Errazoia euki dabe honeek, abadetzako hori abadea benetan izan bada. Ba abadeak, beti be, hobeto emoten dau limosnea emoten, limosnea eskatzen baino.

Baina izan ete da benetan abadea abadetzako hori? Izan ete da egizko abadea? Ai, eskean eta holan ibilteko, abadeak ondo bizi dira!

Entzun izango dozu zeuk, irakurle maitea, behin baino gehiagotan, abadeak ondo bizi dirala. Gorra zaralakorik ez daukagu, irakurle maitea. Baina gorra bazara, gor handia eta gogorra euki behar dozu, zeure bizian, behin baino gehiagotan esaten dan esate hori ez entzuteko, behintzat, behin edo beste.

Ba, abadeak ondo bizi dirala esaten dabenak, esate hori berarizko¹⁷ zeragaz esaten dabe. Eta indar gehiago euron esate horri emoteko, *ai* eta guzti. Haolantxe: «Ai, abadeak ondo bizi dira!».

¹⁷ [berarizko: *aparteko*.]

Abadetzako hori abadea dalako gogorra euki badabe ohiturazko eskekook, ondo egin dabe euron haserre gogorra erakustea. Baina hobeto egingo eben, ezertan hasi baino lehenago, abade egiazkoa ala guzurrezkoa dan ziur jakitea. Eta abade egiazkoa dala agerturik be, hobeto egingo eben, haserre erakustea geroagorako itxita, ea euron sindikatoan sartu gura dauen ala ez berari itantzea.

Ba, gaur egunean eskean ibiltea negozio bat ei da. Eta negozioa, beti be, sindikatoagaz negozio hobia izaten da eta, eukiko dabe, urrean, eskeko ohiturazko horrek euron sindikatoa euron negozioa jago-teko.

Albornoz gizajoa

Albornoz gizajoa ez da abadea ez eskekoa eta, ez dauka beste zerik, gaur, *Tribunal de Garantías* erderaz esaten deutsien zer horretako presidentetasuna baino. Eta presidentetasun horregaz ez dakigu zeinbat garantiaren kontu emon beharko dauen berak; baina berari ez ei deusie emongo, garantion jagole-beharragaitik, urtean aloger bat baino gehiago. Urtean ehun mila pezetako aloger bat baino ez.

Hau entzun dauenean, Txixu gurea, txistua baino arinago, neure idazmahaira¹⁸ joan da, papera eta arkatza¹⁹ behar dituala-ta.

—Zertarako behar dozak papera eta arkatza?

—Kontuak aterateko.

—Zelango kontuak?

—Albornoz gizajo horren alogeraren kontuak, ugazaba. Ez deritxo, ondo izango dala jakitea urtean ehun mila pezetagaz zeinbat daukan astean, zeinbat hilean eta zeinbat egun bakotxean?

—Txixu, horren kontuakaz ez dok jango, eta itxi eiek horren kontuai. Begiratu eik jesuitak aste honetako txekian zeinbat mila

¹⁸ [idazmahaiia: *eskritorioko mahaia*]

¹⁹ [arkatza: *lapiza*.]

pezeta bota deuskuen lehengo astekoan baino gehiago. Ba, bajakiat aste batetik bestera milaka pezeta batzuen aldea dagoana.

Horreek jesuitok!

Jesuitak aberatsak dirana askok dakigu. Badaukie horreek dirua baino ez dana! Eta dirua ez dala, dirua balio dauena eta dirua emoten deutsena be ugari, sekula bada. Eta euki behar, guri, abade bakotxari, milaka pezetak astean-astean emoteko.

Lehengo baten Txixuk errepublikanu bateri entzun eutsan beste errepublikanu bateri hauxe esaten:

—Jesuitak dinok, jesuitak? Horreek oraintxe be ondo jagozak. Bakotxak hirurogei mila ogerleko jaukiek.

—Ja, ja, ja! —egin eutsan Txixuk.


—Barre egiten dok, Txixu?

—Ez joat egingo barre, ba! Hik ez dakik zeinbat diru daukien horreek. Eta neuk be ez. Kar, kar, kar!

Barreka-barreka, egia esan eutsan Txixuk errepublikanu horre-ri. Errepublikanu horrek ez daki zeinbat diru daukien jesuitak. Eta Txixuk beronek be ez. Eta ezta neuk be.

Hirurogei mila ogerleko baino ez daukala jesuita bakotxak? Apur bat gehiago emoten deuskue eurok abade bakotxari urtean-urtean, euren diru eta ondasunak zelango bideetatik irabazita daukiezan esan ez daigun.

1933ko garagarriaren 23an.



XXIV

LARGO CABALLERO-ETA

Errepublikanuak haserre dagoz Largo Caballerok domekako bere berbaldian esan zituan gauza batzukaitik. Batzukaitik; ez danakaitik.

—Euroi txarto parau jakezanakaitik.

—Bai igarri be hik, Txitxu!

—Ene! Hara, ba, ugazaba: inork esan barik igarri dot, igarri badot.

—Ai, hire zuhurtasuna ez jaukak edonork!

—Zuhurtasuna aitatu dauen ezkerok, gauzatxu bat itauduko neuskio.

—Zuhurtasunari jagokona badok gauzatxu hori.

—Bai, jauna.

—Itandu eik orduan ardura barik.

—Nortzuk dira zuhurrago, konplota nondik dagoan igarten dabenak ala konplotik egon ezta, konplota asmau egiten dabenak?

—Konplotik egon ezta, konplota asmau egiten dabenak zuhurak be zuhurak dozak, eurok asmauriko konplot guzurrezko horre-ri antza emoten bajakiek.

—Haorretan, ba, ez da hain zuhurra, antza dagoanetik, Andres, Naparroako gobernadorezarra.

—Seguridadeko Buru Nagusia?

—Horixe berori. Hori morroiori hobeia ete dan nago konplotak egiten asmetan baino.

—Txitxu, haoraintxe esan doanagaz, nortzuk zuhurragoak diran ez deustak erakutsi, baina heure zuhurtasuna bai erakutsi deustak.

—Neure zuhurtasunaren erakuspenik gehiago behar baleu...

—Ez joat behar; baina emon eik beste bat, irakurleak be ikusi dagian.

—Berba gitxitan emongo dot. Hauxe bakarrik esanda: «guzurza-lea ez da zuhurzalea».

—Nahikoa esan dok, mutil.

—Bai, ulertu gura dauenarentzat, neure eretxian. Eta ulertu gura ez dauenari ez dago zertan esan.

—Haorixe be egia dok, mutil! Geroago eta zuhurtasun gehiago erakusten dok.

—Daukadan zuhurtasun guztia ez deustak erakutsi, horraitino.

—Ez, ba. Daukean zuhurtasun guztia behin erakutsi ezkerok, ez neukek esango geroago eta zuhurtasun gehiago erakusten doala.

—Eta ganera ondo izango da kontuan eukitea beste gauza bat.

—Zer, Txitxu surluze zuhur-zuhurra?

—Norbere zuhurtasun guztia era batera erakustea, ez dala zuhurtasuna.

—Hori dok berba-jokoaren polita!

—Zer uste izan dau berorrek, ba? Hara, jauna: barbarik jaten ez dakit; baina berba-jokorik egin behar danean, berba-jokoa egiteko, euskeraz behintzat, ez dot behar Unamuno ez besterik. Berba-jokorik behar danean, agindu niri.

—Tirok, ba! Ondo jagok gauzea. Baina, kontuz *artobero-usainagaz!*

—Asmau dau, ba, irakurleak artobero-usainik?

—Ez, antza; baina, badaezpadan...

—Badaezpadan, berorrek ez beio esan.

—Eta neuk esan barik, artobero-usaina bera surretara bajoa-kok?

—Haorretxetara ez dakit neuk zer esan, eta irakurleak zer esan leiken be ez. Beharbada hauxe esango dau: ostean emoten deuskun atseginareen alderako izan daitela.

—Holantxe izan daitela. Holan izan ezkero, Gobernuak bere konplotagaz baino zori hobea izango joagu.

—Gobernuak, konplotagaz eta konplotagaz, biak batera dituala, aterako dau burua, zapaltzen ez deusien artean.

—Konplotik egiten jok, ba, Gobernuak?

—Bai, bat, oraintxe Lerrouxegaz.

—Sukaldari onen bat dok, kozineru onen bat dok Lerroux hori.

—Bai, jauna; eta kozineru ona izan eta gero fraile izan gura ei dau. Gobernuko komentuko fraile nagusi. Oraingo fraile nagusi Azañak bere fraile-lagunakaz komentu horretatik urten dagianean. Izan leiteke, horraitino, Azañak urten eta Lerroux ez sartzea.

—«Holan izan daitela» esango jok batek baino gehiagok. Baina badakik, berbaz-berbaz, gauza asko esan doguna geuk *Firi-firi* honetan?

—Bai, asko esan eta askori ikutu be. Baina inori kalterik egin deusagu? Ez orain artean, agintzen be ez gagoz eta.

—Horreek guztiok be egiak dozak, baina badakik? Inoiz egin ez dogun lango *Firi-firia* egin joagu.

—Ederra eta gozoa, oiez?

—Luzea, mutil, luzea.

—Ederra, gozoa eta luzea esan bei geuretzako. Eta halantxe bada irakurlearentzako, ez dogu besterik behar, artobero-usain barik, txalo-usaina asmetako.

—Baina, zer esan joagu hasikeran?

—Errepublikanuak haserre dagozala Largo Caballerogaz.

—Hori esan dogunetik hona adiskidetu be egingo zoazan. Baina hori baino lehenago beste gauzatxu bat esan joagu. Eta bertsoan esan be.

—Bai eta halantxe da, jauna:

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
eta agertu daigun
firi-firi.*

—Aiko hor, ba! Gaurko lan hau, egin joagu txiri-txiri, baina ez joagu agertzen firi-firi. Hik ondo dakik geure *Firi-firi* guztiak, bertsoak dinoan erara izateko, zatika agertu behar doguzana.

—Hurrengo egingo dogu haolantxe, zatika, geu osorik bagagoz. Trotsky ei jatorku, ugazaba, egun gitxi barru, Espainiara.

—Zer dinok, Txitxu? Trotsky jatorkula Espainiara?

—Bai, jauna. Bere lagun *trauskien* enbajadore lez ei dator. Baina ez al dau hain arin ikasiko geure euskera maitea Madrilen, *zohi bietako* edo sobieten edo horrako *trauski* boltxebike horreen enbajadore lez biziko dan urian. Bere lepotik berba-joko batzuk, berak igarri barik, egiteko modua izango al dogu! Jainkoak euki gaizala bere eskutik.

1933ko garagarriaren 30ean.



XXV

GRANADAKO TXINEL BATZUK ABADE BIGAZ

Gobernuak oraintsurengoz asmauriko konplot barregarriari eskerrak, gauza polit bat jazo da Granada aldean. Gobernadorearen aginduz, Ducal deritxan herriko parrokoa preso hartuta, Padul ize-neko herrira joan dira gobernadorearen txinel²⁰ zintzoak gobernadorearen tarrantan²¹ herri honetako parrokoa preso egiten.

Hau mezea emoteko gertuten aurkitu dabe. Eta itxi deustie mezea emoten, mezea emon eta gero eleizatik eurok ikusi barik urte-teko modurik ez dauela egingo eta. Holangorik egin ez dagian, bada-
ezpadan be, eleizpean geratu dira berari itxaroten.

Baina, bera mezea emoten egon dan artean, eleizatik eta eleizpe-
tik kanpora egon diran herriko lagunak, eleizako ateetan gobernado-
rearen tarrantea eta txinelok ikusiaz haserratuta, haserre bizian jagi

²⁰ [txinela: *aguazila*.]

²¹ [tarranta: *automobila*.]

dira txinelon aurka, euron artzain ona preso eroaten ez deutseela itxi-
ko argi eta garbi arpegi-arpegira dinotseela. Eta txinel zintzook,
halan jentea ikusirik, abade biak bertan itxita, hanka eragin deustie
eulon tarranteari txistua baino arinago.

Eta pozik, abade biak eta ganera eulon hazurrak bertan itxia
gertau ez jakenean.

Errazoa emotea izango zoon

Atzo Kongresoan, diputadu katalan batek, Royo Villanovari
begira, hauxe esan dau: «*¡Viva Perogrullo!*». Eta Txitxuk, jakin egin
gura izan dau, antza, zergaitik esan deustan hori diputadu katalan
horrek Royo Villanovari, eta jakitearren, seguru, itandu egin deust.

Baina, leku onera etorri da oraintxe sagarretan!

Nik, barriketarako —badaezpadan, badinotsut, irakurlca, ez
dodala gogoan hemen *barrikarik*, *barriketea* baino—, barriketarako
asti handirik ez daukat orain eta, ahal dodanik erantzuerarik arine-
na eta errazena emon behar deustat, hauxe dinotsadala:

—Zezergaitik esango eutsan.

—Hori, hori banekian, ugazaba —dinost berak.

—Diputadu katalan horrek berorrek be jakin jok Royo Villano-
vak esan barik Royo Villanovak berak berorren lagunai esan eutsen
hau zertxuau: «*O queréis y no podéis, o podéis y no queréis*».

—Jakiu badau, «*¡Viva Perogrullo!*» esan barik, «*¡Eso ya lo sabía-
mos!*» esan behar eban morroi gatzbako horrek erdera garbian.

—Baina hori, Royo Villanovari berari errazoa emotea izango zan.

Zer jazoten jako Txitxuri?

Txitxuk ez dakit zer daukan oraintxe, ordu gomutagarri hone-
tan. Zer jazoten jako orain Txitxuri? Esku eskoian erabili dauen
idaztortza²² idazlanetik aldendu eta paperaren ganetik kendurik,
mahaiaren ganera, edo, laburtxuago esateko, mahai ganera bota dau.

²² [idaztortza: *idazteko luma*.]

Eta gero, neuk esan neinken baino arinago, beso biai eta esku biai Uzkudunek baino be jas hobeaz eraginda, esku biai alkar hiru bider jo eraginaz hiru txalo indartsu jo ditu, bere sur luzearen azpian daukan hagin bako aho politari hauxe esan eragiten deusala:

—Aufa! Hau da poza! Ondo gabiltza gaur, oiez?

—Osasun apur bat bajaueagu, Jainkoari eskerrak.

—Osasun hori, Jainkoari berari eskerrak, ugazaba, *Firi-firi* lanak egin doguzan guztian euki dogu. Eta umorea be bai. Baina gaur, ganera, beste zorion bat daukagu.

—Bai, ez dok zorion txikia heuretzat eta neuretzat heu aspaldiko pozen egotea.

—Berori be ez da gitxi poztuko gaurko zorionaren barri jakin dagianean. Horretarako, hona, berorrek eta neuk esaniko gauzakaz neuk baltzitu dodazan lau paperotara begiratzea baino ez dauka.

—Halantxe dok. Inoizko letrarik ederrena erakusten deustak hor, Txitxu.

—Nik letrea beti daukat ederra. Ez beio begiratu letreari. Begiratu beie erraiari eta kontau beiz, ea! Bat hemen, lehenengoan; beste bat hemen, bigarrenen; beste bat hemen, hirugarrenen; eta beste bat hemen, laugarrenen.

—Holan dala, paper bakotxean *Firi-firi* bat joak gaur geure GACETA maitera.

—*Quod erat demonstrandum.*


—Mutil, latin be badakik?

—Bai Albornozezagaz jarduteko beste.

—Itxi eiok bakean apur baten Albornozeri. Hilebeteen atseden egin behar jok, seguru be.

—Atseden egin behar dauela? Deskantsau egin behar dauela? Emongo neuskio nik horrerri mundu honetarako *deskantsua*, behin eta betiko, buruan zeozegaz jota. Jesus! Zer esan dot orain? *Quod erat vitandum?* Neuk jo barik, Jainkoak bihotzean ikutu degiola behin.

Hau zerbait gehiagogaz,
1933ko agorrilaren 6an.



XXVI

KONTU-KONTUAK

Gasteizetik asago bako uri baten, aurtengo bertako jaietan egin diran zezenketa bitan, diru asko galdu dabe zezenketok atondu dituenak. Bost mila ogerleko eta gehiago. «*De veinticinco a treinta y cinco mil pesetas*» irakurri dogu guk nonbaiten. Eta, Txitxuk dinoa-netik, horregaz esakerorregaz ulertu leike eurok be ez dakiela zeinbat galdu daben.

Eta emoten dabe ganera ulertzen, kontuak ez dabezala ondo atera oraindino. Kontu hobe eukiko eben, edozelan be, zezenketok emon baino lehenago kontuak atera balitue, ea konturik ete daukien zezenketak emonagaz.

Apur bat hobeto atera ditue euron kontuak Coruñaiko uriko kafe-etxeetako morroiak.

Euron kafe-etxeetako jaubeai astean larogeta hamar pezeta eskatu deutseez. Eta ganera, gehiago be eskatu leikiela erakusteko, esan deutsee, horrezaz ganera, eskupekotxu bat, propina kaskar bat, gogorik onenagaz eskatzen deutseela.

Eta inori itantzen ibili beharrik euron ugazabok euki ez dagien, eurok esan deutsee zeinbaterainokoak izan behar dauen eskupekotxu horrek. Egun bakotxean egiten daben saldukizunetik²³ ehuneko hogeia. Lartxu eskatzen deutseela ugazabok esan ez dagien, ez deutsee eskatu gehiago.

Ugazabok, horraitino, ez deutsee esan behin ondo deritxela euron eskari bikotxari. Holangorik esan barik, isil-isilik, euron kafe-etxeetako ateak itxi egin ditue.

Asti gehiago eukiteko, antza. Eta haolantxe, asti gehiago eukirik, asti gehiagogaz euron kontuak aterateko. Hauxe ez dabe euki kontuan, tamalez, morroi kontulari zuhurrok.

Maciaren lagunak Tarragonan

Tarragonan bai euki dabela mitin jasekoa Maciaren lagunak! Han izan dira Aiguadé, Aragai...

—Horreek gureak dira, euron abizenez, ugazaba. Gauzea argi dago. Bata, «Ai-gu-a-de». «Hau *de* hau, *da*» ez bada, ez da ezer. Beste, barriz, «Ara-gai». Ez deutse berorrek euskal usainik asmetan?

—Euskal usaina baino beste usain bat asmauko dok heuk, Txixu, eta irakurleak be bai, esateko daukadana guztia esaten ixten badeustak.

—Jarraitu bei, jauna.

Han izan dira, esaten hasi nazan lez, Aiguadé, Aragai, Riera, Gales...

—Riera, «Erri-era»... Parkatu bei, ugazaba. Eta jarraitu bei esaten esateko daukana.

—Bai, ixten badeustak heuk, zirinorrek!

Han izan dira esan dodazan lau lagunak, eta ganera, beste diputadu asko. Eta mahaiburuan, Ventura Cassol euki dabe mahaiburu-ko buru, bere buruko ule luze eta guzti.

²³ [saldukizuna: *bentea*.]

Entzule asko euki daben ala ez jakitea ez da gure arazoa eta, ez gara horretan hasi: baina entzuleen artean *rabassaire* izeneko batzuk izan dirala badakigu.


Baina, itxi deiegun honeei bakean. Eta heldu beio bakotxak hurren daukan gauzeari, ikarearen ikareaz lurrera jausi barik.

Berbalariak²⁴ *rabassaire* izeneko morroi horreei zer esan deutse-ela uste dozue? Gauza garratz asko. Eurotariko batek esan deitsena, hatan be, ikaragarria izan da. Ez deutse esan, ba, igitaiak gertu eukiteko! Barrabaskeriaren bat egiteko, antza.

Antza dagoanetik, *rabassaire* izeneko morroiok *barrabasaide* izan daitezan gura dau berbalari ahozabal horrek.

Hau zerbait gehiagogaz,
1933ko agorrilaren 15ean.

²⁴ [berbalaria: *oradorea*.]



XXVII

TXITXU GAUR OKERRA DAGO

Gaurko egun hau eguena baino besterik danik burutan ez dogula hasi gara, Txitxu eta ni, *Firi-firi* hau egiteko paperak eta paperok baltzitzeko txibizkeriak lan hau egiteko daukagun mahai bakarrera ekarten.

Baina geure eskuz mahai bakar honetara ekarteko gauza guztiak ekarri eta gero, mahaian jesarrita, zeri ekingo ete deusagun pentsetan parau nazanean, aurrez aurre jesarri jatan Txitxuri ea ezer otuten ete jakon itantzea otu jat; eta horretarako, berari begiratzen noala, bera baino lehenago bere atzean, horman eskegita dagoan egutegi²⁵ ederra ikusi dot, eta egutegian bertan, Txitxu konturatu baino lehenago, hilari jagokon izena eta egunari jagokon kopurua²⁶.

Haolantxe, lerro bitan: egunari berari, asteko eguna dan aldetik, jagokon *eguena* izen gozoa hirugarren lerroan agertuaz.

²⁵ [egutegia: *kalendarioa*.]

²⁶ [kopurua: *numeroa*.]

—Orduan, ikuskizun zorizko honek egin deustan zirikadeak eraginda, hauxe itaunau egin deusat neuk Txitxuri:

—Badakik, Txitxu, gaur ze egun dan?

—Bai, jauna: Santimami; erderaz *San Mamés* esaten deusiena. Beti izan da, nire gogoanean, Santimami San Drokerik hurrengo eguna.

—Hi ez hago ahaztuta Santimami egunagaz.

—A, ez, jauna! Benetan dot gomutagarria egun hau, neure txikitako egun handi hau. Txikitan, edo, Txorierrin esaten dan lez esateko, txikerretan, olgeta onik egiten neban, neure anaia eta lehengusua-kaz, gaurko egunez, aitaia-amamen etxean; eta, konbidadu-eguna dala-ta, arroz-esne platerkada bat edo bi jan be bai, eta gozatsu jan be. Ha zan sasoia!

—Ha sasoia joan zoan, mutil, heuretzat eta neuretzat.

—Bai, ugazaba; eta Gantxo Pantza-eta etorri jakuz.

—Horreetxena dok gaurko eguna.

—Eta geurea ez, ala?

—Geurea be bai; baina horreena modu aparteko baten.

—Izan beharko dau modu aparteko baten horreentzat, Santimamirik ez beste santurik ospatu gura ez badabe.

—Aurten, horreek eta lagunak *Donostiako paktoaren* urteurrena ospatuko joek, igaz be egin joen eta.

—Datorren urtean, izan leiteke geuk, geutarrakaz, euron *urten-hurrena* ospatzea. Ai, nire eskuan balego horreei urten eragitea neuk gura dodanean! Gaur berton urten eragingo neuskie, eta lauoinen urten eragin be, baina geldiuinerik bako arineketa ikaragarrian. Eta ez neuskie itxiko bakean, Hendaian sartu dirala ikusi artean. Eta hantxe sartuta ikusi eta gero, hauxe esango neuskie: «Hortxe egizue, gura badozue, beste pakto bat».

—A, mutil, gauza garratzak opa deusezak horreei! Apur bat gozoagoak izango zoazan amainaren etxean gaurko egunez heuk jaten henduzan arroz-esne platerkadak.

—Platerkadak, emongo neuskiez nik horreei.

—Arroz-esne barik.

—Bai, ba. Zertan esan be ez! Ez daukat neuk arroz-esnerik horreen buruetara jaurtiteko.

Okerra dago Txitxu gaur, Gantxo Pantzaren eta lagunen aurka, irakurlea, zeuk ondo ikusi dozun lez.

Baina Balbontín be ikustekoa edo entzutekoa egon da, seguru be, Kongresoan, euroi agiraka.

Beste gauza askoren artean, haxe esan ei deuse: *«Vosotros habéis matado en dos años más obreros que Primo de Rivera en siete»*.

Guk ez dakigu erderaz edo horrek esan gura dauena haxe da: «Zuek urte bian Primo de Riverak zazpian baino langile gehiago hil dozue».

—Parkatu bei, ugazaba; baina Balbontín horrek bere esate horregaz hori eta gehiago esan gura dau, neure eretxian. Eta neuk be esango neuke...

—Zer?

—Neure eretxia. Horren errepublikea ez dabilela ondo.

—Txitxu!!

—Zer, ugazaba? Zerbaiten bildurra dago, ala?

—Bildurrik, ez. Baina, badaezpadan be, horreen errepublikea-gaitik esaten hasi hazana hobeto izango dok itxi esan barik Sondika-tik diputadu urten artean.

Sediles kapitanak, kapitana dalako, edo kapitana eta, ganera, diputadua dalako, edo berak jakingo dau zergaitik, haxe esateko moduan ikusi dau bere burua: *«Este Gobierno es capaz de hundir esta República y siete repúblicas más»*.

—Neure eskuan balego...

—Txitxu!!

—Zer, ugazaba?

—Kontuan euki behar doala oraindino Sondika inguruetako herriak ez hauela diputadu atera.


—Horraitino, esan geinke euskeraz morroi diputadu horrek erderaz esan dauen gauzea bera.

—Ez jakiat lekuri horretarako eukiko ete dogun. Badakik ber-bea emon deusaguna alkarrerri ez dogula bosgarren paperik baltzitu behar gaurtik aurrera, eta hobeto izango joagu hementxe amaitutzat itxi *Firi-firi* hau, berba gehiago barik.

—Haolantxe, amaituta, berba gehiago barik, betiko mututurik geratuko al dira berorrek eta nik eta irakurleak dakiguzan pizti eta gauza batzuk!

Esan deusut, irakurle maitea, gaur Txitxu okerra dagoala.

1933ko agorrilaren 20an.



XXVIII

AUTONOMIA ETA...

Kataluniako *Esquerrako* morroi handi batek barri-batzaile bateri haxe esan deutso, lehengo baten, Bartzelonan: «*Claro que no hay arreglo. No hay dinero, y sin dinero la autonomía resulta una broma de mal género*».

Antza dagoanetik, horrentzat autonomia guztiak ez dira onak. Eta diru bakoa beti da txarra.

Zelango gauzak jakiten diran *ponporeaz*, geure txikitako Anton Zoro Asukoak esaten eban lez!

Bartzelonan bertan, bertako poliziako otsein bik, kanpotarrak diralako, edo eurok jakingo dabe zergaitik, hiru kanpotar lotu egin ditue. Baina kanpotarrotariko batek, Olivet deritxanak, txinelotariko bateri, beronek zelan ez dakiala, ukabilkada ikaragarri bat emon deutso bera lotzen dabilela. Eta ukabilkada ikaragarri horregaz albo-hagin bat tutarrez kanpora atera ei deutso. Albo-haginean holango beharra egin deutsanean, hagin alboan be egingo eutsan zeozer...

Emon holangoai autonomia, eta dirua, ganera!

Asturietan

Asturietan beste eleiza bi erre dira oraintsu. Ez berez; baten batzuk sua emonda. Baina berez erre balira letxe geratu da gauzea. Su-emoileak nortzuk izan diran ez dakie Gobernuaren otseinak eta.

Nork hau goraa edo bestea jaurtiten dauen jakiteko eukiten dauen suertea eukiko baleu Gobernuak eleizai sua emoten deutsienak nortzuk diran jakiteko...

—Baina, bilatu ditu, ba?

—Zer dinok, Txixtu? Ez dok entzun inoiz suerteak bila ibili barik etorri behar dauela?

—Horraitino, baten batek berak galarazota daukan goraren bat jaurti dauela entzuten dauenean, hasten da gora hori nork jaurti ete dauen bazterrak arakatzen.

—Hori besterik dok, Txixtu.

—Bai, ondo agiri da.

—Eleiza-erretzaileak baino hobeto.

—Atrapau leikez horreek, horraitino.

—Bai, gora-erregeka edo holan... holango su-emoteak egingo baleiezak, baina holango zarata barik egiten joezak eta.

Txitxu bildurtuta

«*Dos meses más de Azaña, y esto se acabó*» dino Barriobero diputaduak. «*Esto ya "se hisó"*» esango eban Klinklonek, bilbotarren euskera-erderaz.

—Eta, heuk zer dinok? Ea, Txixtu!

—Nik, zer esango dot? Nik, neure buruz, badaezpadan be, Santi Etxeres nondik dabilen jakin barik, ez dot esan gura ezer. Baina bai esango deusat esate horregaz haxe esan gura dala euskera garbian. Baina, esango ete dot?

—Haorixe dinoat neuk. Esango ete dok behin? Tirok, esan eik zer esan gura dauen Barrioberok bere esate horregaz! Esan eik.

—Onenak egin dauela.

—Nozonoz esan doanean!

—Esan dot, ba, behin, ugazaba. Orain bildurrez nago haorixe esan dodalako, neureak egingo dauela-ta.

—Ez euki bildurrik. Santik ezer badinoa, esan eiok berari euskeraz heuk zein ondo dakian ikustearren, neuk erasonda, esan doala. Eta gero horixe berori esan kartatxu baten Indaleziori. Badakik Indalezioak antxinatxurik dakiana *buruko minik ez* eta holango esakune euskerazkoak esaten, eta honezkero ikaragarrian euskalzaletuta egongo dok, bide-erdian geratu ez badok.

—Burua jasekoa badauka, bere erretratuetan behintzat.

Hau zebait gehiagogaz,
1933ko agorrilaren 27an.



XXIX

LAIKOAK ETA LAUKOAK

*Bilborantz goaz tarranta baten
Txitxu ta ni ta... hainbat lagun.
Ta euron artean, morroi bat dator
berbaldun bere berbaldun;
ta indartsu berba egiten dau(e)la,
guztioak entzun dagigun;
ta geure aldera begira da(g)o(a)la,
geuk ondo ulertu deiogun.
Laikoa dala bera esan deusku
hola(ng)o baten, eta guk entzun.*

*Ta ikusirik ez deutsala inork
ezertxu-ezertxu be erantzun,
«laikoak izan beharra dago,
ta ez da(g)o besterik» dinosku.
—Besterik ba(da)go, adiskidea.
Txitxuk urten deutso sutsu.*

—Zela(ng)o besterik-edo?

—Behingoan

erakutsi egingo jatzu.

Geratu beite apurtxu baten
autoa.

—Arin dau geratu

txoferrak, ugal horrerri tenka

behin ondo egiten ba(deu)tsazu.

—E(g)in deusat tenka ugalari eta
tarranteau geratu jaku.

Eta orain tenka zeuri egin behar.

—Tenka zuk niri?

—Bai, kaiku.

Tenka neuk e(g)inda, beti be hemetik
arina(g)o urtengo dozu.

—Nik urten?

—Bai, ba. Neuk aterata.

—Gero!

—Gero ez. O(ra)in, barritsu.

Honeei astia galarazo barik,
arintxu ibili behar dogu.

Sasoi txarreko barre-zantzoak
urten ez deidan bildurrez,
makurtu e(g)in dot nik neure burua
errezu-liburuan aurrez.

Ta ez dot ikusi laikoa urteten

autotik Txitxu(re)n indarrez.

Ta urten eta gero zer jazo jakon
jakiten be ez dot euki errez.

Baina barreak bai entzun dodaz
auto barruan, asko, eurrez.

Txitxu gureak laikoa(re)n lepotik
era(g)inda, zertan esan be ez!

Lepoa baino apur bat be(he)ra(g)o
zeozer gomutagarri,
jenteari barre asko eraginaz,
emon deusala berari
jentea(re)n barre ta esanetatik
bakarrik e(g)in dot igarri.
Berak esanda ez dot jakingo
beingoan. Bera ez da agiri!
Txitxuk berari emona hartuta,
emon ei deutso igesari.

Sartu da Txitxu atzera autoan
Jarri da arteko lekuan.

Ta txoferrari «jarraitu!» esanda,
geuri hau dinosku beingoan:

—Berak gura dauen guztia esaten
itxiko jakolakoan,
astakeriak dinozan laiko
horrek euki bei kontuan,
«laikoak» izan beharra baino
bestarik ba(dag)o(a)la munduan,
ta ostikada bat emon deusala
Txitxuk atzeko «laukoan».

Bilbora heldu ta behingo-beingoan
badinost Txitxuk:

—Ta, jauna,

«Firi-firi»-a noiz egingo dogu?


Gaur izan dogu, ba, eguna,
baina...

—«Baina»-rik ez jagok, Txitxu.

—Ba(da)kit ezingo doguna.

Bi(a)j(e)an gabiltz(a).
—Ba, hain zuzen bere,
bi(a)j(e)an e(g)in dok heuk bat ona,
atze txarren bat ez bajaka(r)skuk.
—Ez da etorriko gugana
atze txarrik, ez; baina, baletor,
ba(da)kit zer e(g)in, ugazaba,
atzetxu horrerri, laikoa(re)nari
egin deitsadan erara.
Baina, badaki laiko handi horrek
ez dau(e)na euki «laukorik»
atzekoa baino besterik? Eta
horretæek nauka harriturik.
Emon deitsadan ostikadeaz
ondotxu eragin deitsat nik;
baina inondik be, neuk dakidala,
ez deitsat entzun diru-hotsik.

1933ko irailaren 3an.



XXX

TXITXU, UGAZABA BILBOTIK DALA

Bilbo ingurutik urruntxu, baina Espainia barruan, herri koskor-txu baten, handitxua jazo da egunokaz edo oraindino egun asko ez dala, eskola-inspektore errepublikazale zintzoegi bateri eskerrak.

Jaun handi hau, herri horretako eskola-maisuari otoz otoan, artetik ezer esan barik, sartu jako eskolan. Eta atrapau dau eskola-maisu gizajoa umeai eskola-gauzak irakasten, baina mahai ganean izparringi eskoatar batzuk daukazala.

Ez jako ondo parau inspektore errepublikazale handi horrerri maisuaren mahai ganean holango paperak ikustea, eta badinotso maisuari agiraka-soinuan:

—*Pero, ¿qué? ¿Es usted monárquico? ¡Hombre, parece mentira! Sepa usted que ningún maestro de España puede ser monárquico, una vez que el Magisterio español ha mostrado claramente su ferviente adhesión al nuevo Régimen.*

Maisu gizajoa, agiraka garratz hau entzunik, ikaratu egin da apur bat. Baina ikaratik ahal izan dauen bestean urtenda, bildur apur bategaz be, zelan edo halan erantzun behar deitsala-ta, hao-lantxe erantzun deutso bere nagusi asto nagusi horrerri:

—*Permítame, señor inspector, que le diga que yo no soy maestro de la República, como tampoco lo he sido antes de la Monarquía. Yo soy maestro de la Nación, maestro nacional, y no conozco ley alguna del Estado que me impida profesar estas u otras ideas. Procuro cumplir fielmente los deberes que me impone mi cargo de maestro, y creo que, como maestro, no estoy obligado a más.*

Inspektore dotore horrek ez dau ezer erantzuten honetara.

Umeak aztertzen²⁷ hasten da, maisuaren aurrean, baina maisuari berari horretarako baimenik eskatu ez holango kunplimenturik egin barik. Bere *edukazino laikoak* galarazo egiten deutso, antza, holango kunplimentuak egitea.

—*Oye, niño* —dinotso umeetariko bateri—: *¿cómo se llama el presidente de la República española?*

Badaki ume horrek nor dan lehendakari hori; baina inspektore dotore berorrek bere maisu maiteari egin deutsan agiraka ganorabakoagaz ikaratuta, berari agirakea egin eta ganera ostikadaren bat emon edo beste astakeria handiagoren bat egin leikiola-ta, bildur da esaten.

Zaharragotxu batek, horraitino, arin urten deutso, atzeari begiratu barik, bizkor eta urduri:

—*Ya sé yo, señor inspector. Se llama don Niceto Alcalá Zamora.*

Hau entzunik, haserre bizian sututa, gora-goraka, geuk, asti gehiago daukagunean, Jainkoak gura badau, euskerara bihurtuko doguzan berba gomutagarri honeek esan ditu inspektore errepublikazale zintzo-zintzoak:

—*Se dice «Excelentísimo Señor don Niceto Alcalá Zamora». ¿No les enseña a ustedes el maestro a dar el tratamiento que corresponde al primer magistrado de la nación?*

Eta beste itaunik gehiago egin barik, beste ezertan eskola hatako umeetariko batxu be aztertu barik eskola bereko *Libro de visitas* izeneko liburuan serio-serio honeetxek berba biok ezarri ditu: «*Instrucción deficiente*».

²⁷ [aztertu: *examinau*.]

Horreekaz berba biokaz eskola horretako maisuaren lana guztia beharrekoa edo guztia beharrekoa baino txarragoa dala erakutsi gura dau inspektore dotore horrek.

Baina eskola berorretan berorrek egin dauen lana zelangoa dan esateko eskubidea ete daukadan jakin gura neuke neuk.

Irakurle baktzak esango dau, horraitino, bere eretxia, baktzak bere barruan. Eta gatzaren handiaz, barre batzuk egin be bai, beharbad. Nik neuk behintzat egin dodaz batzuk.

Ugazabari itanduko neuskio oraintxe ea zer deritxan honenbestegaz amaitutzat erakutsi negion *Firi-firi* honeri. Baina, hain zuzen be, bera etxean ez dagoalako izan da dana dalako hau neuk egitea eta. Berak esan deust goizeon:

—Bilbora joan beharra jaukat gaur eta ez jaukat *Firi-firi* egiteko astirik. Heuk egin beharko dok. Ea zelan portetan hazan, Txixu!

—Badoa berori, orduan.

—Oraintxe joan behar joat. Badakik zortzirak ganean doguzana, eta zortziretan urtetan jok Turubion tarranteak.

—Bai, aberiarik ez daukanean.

—Hemen ez jok euki inoz be, neuk dakidala.

—Ez Bilbon be, neuk dakidala, gaur artean; baina badaezpadan be esan deusat.


—Hire kontuak!

—Ganera, egia esanda, Turubiok berak ez beste inork kalterik ez izatekotan, poztu egingo nintzateke gaur bere autoak aberia eukiteaz, berori atzera etorri daiten, gaurko biaje hori hurrengo baterako itxita. Ba, bildur naz *Firi-firi* berori barik egiten.

—Nahikoa dok barriketarik, Txixu. Ez eidak autoa galdu eragin. Banaioak. Ondo ibili hemetik!

Badakizu zeuk, irakurlea, zelan nabilen neure *Firi-firi* honegaz. Firmau be neuk egin beharko dot, antza.

Txitxu.



XXXI

KANTA ZAHARRAK KANTETAN-ETA

Txitxu gurea gaur ikusi gura dauenak kantetan ikusiko dau, kanta zaharrak kantetan. Eta jasa dauka berak, gero, honetan! Benetan. Eta euron ganeko eretxiak emoten be bai.

Kantau behar dauen edo kantau gura dauen kantea kantau eta gero emoten dau kantau dauen kantearen ganeko eretxia, halan behar dala-ta.

Niri lehenengo kantau deustan kantea hauxe izan da:

*Asue ta Erandio,
Sondike ta Loiu,
ahaleginek ein arren,
arto gitxi koiu.*

Eta kantau eta gero, badinost:

—Zer deritxo, ugazaba?

—Ederto kantau doala. Arranoetan! Hori dok bularra!

—Bularra eta burua, biak be ez daukadaz txarrak gaur artean. Baina, ez deritxo hau kantatxuau apur bat guzurtitxua dala?

—Orain izan leitekek guzurtia; baina egundo lehenengoz kantau zanean, beharbada, ez zoan izango.

—Guzurtia orain dana edozeinek daki, edo behintzat edozeinek ikusi leike, bertara arto-sasoian joan ezkerro, urtaro txarren bat izan ezean. Baina, egundo lehenengoz kantau zanean be gaur dan langoxe guzurtia izango zan.

—Ez joat ikusten haorixe hain argi.

—Haoraintxe ikusiko dau. Entzun bei:

*Sondike ta Erandio,
Leioa ta Loiu,
ahaleginek ein arren,
arto gitxi koiu.*

—Entzun joat kanta hori, baina ikusi ez joat egiten heuk besteagaitik esan deustaana.

—Berorrek biak entzun ditu.

—Bai, mutil, sarritan entzun joadaz.

—Eta gaur oraintsurengo.

—Hori ezin ukatu neikek.

—Ez dau ukatuko alkarren antzekoak dirana be.

—Ez, ba. Hori argi be argi ikusten joat eta.

—Tira, ba! Eta, alkarren antzekoak dirala ikusten dauen ordu berean ez dau ikusten bardinak ez dirala?

—Baita.

—Ba, haortxe ikusi leike berorrek guzurtiren batek asmaurikoak dirala kanta biok.

—Ez joat haorixe, errazoi gehiago barik, ondo ikusten. Berbea aldatuta, zer dinostak Azañagaitik?

—Horrentzat be badaukat kantatxu bat. *Horrentzat* esan dot? Tira! Horrerri, moduren baten, polito jatorkona esan gura izan dot.

—Esan eik behin, behin entzuteko.

—Horra, ba.

—*Din, dan!*

—*Nor hil de?*

—*Manu zapatarie.*

—Nik *Txomin zapataria* entzun joat beti *Din, dango* kanta txo-rierritarrean.

—Berorrek *Txomin zapataria* entzun izango dau; baina Manu ez deritxo, ba, Azañari?

—Bai, hori egia dok, baina...

—*Bainaka* bagabiltza, ez dogu inoiz amaituko, ugazaba. Eta euki bei kontuan oraindino ez dodala esan esatekorik erdia.

—Esan eik, ba, guztia.

—Guztia esateko, hasikeratik esan beharko dot.

—Egia handia!

—Hareena beste kanta biena baino handiagoa.

—Mutil, itxi eiok holango zirki-mirkietan ibiltari, ba osterantzean ahaztu egingo jaku zer dogun gogoan.

—Berorreri ahazten bajako, galduak gara. Ba, neuri behintzat ahaztu jat.

—Ahaztu jak esaten hasi hazan *Din, dango* kanta ospetsua? Hire burua! Bularra eta burua heuk onak daukaazala esan dok horretarako!

—Ai, jauna! *Txomin* kenduta, *Manu* sartu dot kanta horretan, eta horretxegaitik izan da guztia. Jakin behar neban nik *Manu* hori sartzen dan lekuan gauza onik ez dagoana.

—Ea, ba, esan eik *Txomin*egaz, dan lez!

—Holan, aurki esan ahal izango dot. Entzun bei, ea...

—*Din, dan!*

—*Nor hil de?*

—*Manu zapatarie.*

—*Manu* osterara be???

—Parkatu bei, jauna. *Manugaz* ahaztu beharra daukat, kantea ahaztuko ez bajat. *Manu* barik, *Txomin* da aitatu behar dodana, ezta? Tira, ba! Egingo dot ahalegintxua...

—*Din, dan!*

—*Nor hil de?*

—*Txomin zapatarie.*

—*Zer egin dau pekatu?*

—*Auzoko txakurre urketu,*
ta eleizara daroela,
kakarraldoak uxetu.

—Ederto kantau dok. Bape hutsik egin barik.

—Bildur apur bat euki dot, ba! *Kakarraldoak* esan beharrean, *sozialistak* esango ete dodan egon naz.

—Hori kanteori sortu zanean, ez zoan egon sozialistarik munduan.

—Ez *Manu* hori be.

—Holan baino gazteagoa dok hori.

—Bai, halantxe. Baina zahar antza be hartuta dago eta, guzurtitxua be bada eta, ia egon naz, ba, esateko berak ez ete dituan asmau hareek beste kanta biak.

—Hik esateko ez dok asko.

—Ez horrek egiteko be.


—Hori dok mina, Txitxu!

—Mina hainbateri egin deutso horrek. Ez ditu gitxi mindu batean-bestean.

—Hori be egia dok, baina.

—*Baina* dino, ugazaba? Bere alde urten gura dauela esango leu-ke berorri hori entzuten deutsanak. Egiaztat dauka, horraitino, esan dodana. Ai, ni ez nau atrapauko guzurrean! Hori Manuori, barriz, atrapau egitekotan, guzurrean atrapau behar, beti dabil guzurragaz eta.

1933ko irailaren 17an.



XXXII

TXURI ZAHARRIZERA BIDEAN

Gaur neuk, Txuri deitzen deusten katu gizajonek, egin behar dot, antza, gaurko *Firi-firi* hau, aste honetan; artekoan lez, *Firi-firi* barik zeu, irakurle maiteori, geratuko ez bazara.

Nire ugazaba Txitxuk ez ei dauka astirik, eta beronen ugazaba nekatuta ei dago. Eta nik astirik ez daukadanik ez nekatuta nagoa-nik ezin esan neike eta, egin beharko dot zeozer, adiskidea.

Ganera, neuri jagot aste honetakoa egitea, Zaharrizen zelan ibili nazan esateko baino ez bada be. Ba, zuk ez dozu jakingo, beharbada, baina Zaharrizen egin dodaz egun batzuk. Eta, beharbada, Zaharriz zein herri dan be ez dozu jakingo, eta haxe be, badaezpadan, esan egin beharko deusut.

Haxe behartxuau daukat ganera, Txitxuri eskerrak.

—Txuri, Arabako uri nagusira joan beharko dok gaur —esan eus-tan lehengo astelehenean.

—Gasteizera?

—Gasteizera ez; Zaharrizera. Ordua dok, mutil, uri horrerri *Zaharriz* deitzeko, ba, urte batzuk bajaukazak honezkero.

—Deitu beio, Txitxu jauna, berorrek gura dauen lez, baina ez beit agindu niri horra uri horretara joaterik. Nik ez daukat hor zereginik. Badaki berorrek ni ogizalea ez nazana. Arraina edo okelea euki ezkerro... Eskatu al deusat inoiz ogirik berorreri, ugazaba? Ogia gehiagoko barik eskatzen dauen umeari haxe esaten deus bere amak Txorierrin:

Ogie?

Araban dauko begie.

—Ba, hik heure begia edo begiak biak, hain zuzen be, aurreko zortzi egunean, hantxe euki behar dozak: Araban; eta Araban bertan be, uri nagusi horretan: Zaharrizen. Eta han heure begiak eukiteko, bertara joan beharko dok, urrean.

—Bai, begiak bizirik han eukiko badodaz.

—Ba, bizirik, bizkorrik eta zuhurrik euki eta erabili beharko dozak han. Badakusk, ikusten dok hau fardeltxuau?

—Maletina esaten deusie horrerri batzuk, ugazaba.

—Hiretzat bardin izango dok fardeltxua deitu nahi maletina deitu. Maletina deitu arren, ez dok doan baino handiagoa izango.

—Beti be, neu baino handiagoa bada.

—Halantxe dok; baina bai behar be, heu beronen barruan joango bahaz.

—Ni hor joan? Ez beit agindu holangorik olgetan be.

—Olgetan barik, bene-benetan joan beharko dok, Txuri. Olgetako, leku gitxi geratuko jak hemen, ugazabak berton sartu dituan gauzen ganean.

—Orduan, ugazabak dauka biajea Zaharrizera.

—Bai, ba.

—Ba, beioa bera ordu onean. Ni ez nau behar biaje horretarako.

—Baina neuk behar haut, neu handi-handirik joan barik, ugazabaren biaje horretan, eta hatan be, Zaharrizen dagoan bitartean, bitarte horretan han ugazabak eta bere lagunak zer egiten daben ikusteko. Ejerziziotara doala esan jeustak, eta jakin egin gura joat zelango *ejerzizioak* diran horreek. Bildur nok horreekaz *ejerzizioak*

ez ete deuskun ekarriko buruko minen bat. Lerrouxek edo Azañak jakiten bajeutseek, jakin, zer darabilen... Eurok baino lehenago neuk jakin daidala, Txuri. Geure ugazaba on hau han fusilagaz edo ezpa-teagaz edo makileagaz ejerzizioak egiten ikusten badok, ikusi, etorri hadi arin hona, neugana, neuri esaten, lauoinean baino ez badok be, holango ejerzizioetatik sasoiz berari alde eragiten joan nakion.

—Txitxu, hartu eik fardeltxu hori, eta hator behingoan. Urten daigun —deitzen dau Txitxuren ugazabak.

—Bai, jauna, oraintxe. Ea, Txuri, hator ona isil-isilik —hau Txitxuk belarrira dinost neuri.

Eta lepotik polito-polito oratuta, fardeltxuan sartu nau txistua baino arinago. Eta ez naz neu konturatu, fardeltxuaren giltzaren zulotik behera, eskutik fardeltxu berau dauela, ugazabaren atzetik etxetik urteten ikusi artean.

Hemetixek, giltzaren zulotik, entzun deusat Txitxuri bere azkenengo onu²⁸ eder hau: «Ez egik egin ahaleginik fardeltxu honetatik urteten, ugazabak berak beronen atea zabaldu artean. Eta orduan be, ugazabak berak igarri barik urteteko, hobe itxaron ea noiz berak urteten dauen bere logelatzat han bertan, kuartelean, hartuko dauen gelatik. Orduantxe izango dok polito-polito bere atzetik urteteko ordua, albadituta²⁹ bajagok; eta egongo dok, lehengoa badok».

—Txitxu! —dinotso, honetan, Txitxuri ugazabak.

—Zer, ugazaba?

—Giltzpean eukiko dok, gero, Txuri. Katu ederra jagok bera afari bat beragaz egiteko, eta badaezpadan be, norbaitek edo norbaitzuk horretarako ostu ez dagien, ez eiok itxi etxetik urteten.

—Ez bei euki bildurrik. Giltzpean dago; ondo gordeta, bedein-katurik.

Holantxe erantzun dau Txitxuk serio-serio. Eta ni ia egon naz, ez hain serio be, baina bai gura neuken baino serioago, behinola Iparr-

²⁸ [onua: *kontsejua*.]

²⁹ [albadituta: *distraiduta*.]

girre geureak kantau eban antzera, hauxe, neuk oraintxe atonduriko kantatxu hau kantetako:

«Giltzapean sartu naute
poliki-poliki.»
Ai, Otxorio Gariarto(re)n
katuak baleki!

Txuri.

1933ko urriaren lehenengoan.



XXXIII

TXURI ZAHARRIZEN

Miau! Marramiau! Hemen nago. Hemen, esaten da, Zaharrizen. Eta oraindino neure ugazaba Txitxuren ugazaba jaun honen fardeltxu politetik urten barik. Eta jakin ez noiz artean.

Jakin baneu, jakin, Txitxuk berak hemen sartu ninduanen, bertotik urten barik honen luzaro egon beharko nebana... Baina sartu nintzan behin, eta orain bildur naz bertan zahartu egingo ez ete nazan, egonaren egonagaz.

Oraintxe eta oraintxe be burura etorriko balitxakio, deskuidu baten, honeri, geure ugazaba jaun honeri, fardeltxu honetatik bertan daukan labainea atera behar dauela... Esate baterako, bizarra kentzeko. Baina ez dago antzik.

Txitxuk, ondo egiteko, errezuetaiko liburua be bertan sartu behar eutsan. Holan, ostatura heldu eta laster zabalduko eban kartzel estua dodan fardeltxu honen atea. Baina, hemen sartu beharrean, eskura emon eutsan eta.

Halanda ze, errezuetaiko liburuagaz ez daukat neuk probetxurik, ugazabak berak eukiko dau, baina.

Ixo! Badator bera. Badator, badator! Atera dau nonbaitetik giltz-koskor bat. Oratu deutso fardeltxu honeri. Sartu deutso giltz-koskor hori «hemen nago» esaten egon jakon zulotik. Tira! Zabaltu deutso noiz edo noiz atea. Ni neu batu-batu egiten naz polito-polito albo batera; erdi inguruan nagoala, beharbada, ikusi egingo nindukela berak eta.

Holango esturarik! Tira! Ez nau ikusi. Neu ikusi barik atera ditu bizarra kentzeko behar dituan txibizkeria guztiak.

Eta nik, berak atzea emon daueneko, atzekoaren begira egon barik, zapart!, saltu polit bat egin eta txistua baino arinago atrapau dot gelatik kanporako atea.

Eta, orain zer egin? Nora joan? Arin pentsau beharra dago, oiez? Tira, ba!... Nora joango gara? Nora? Suetera noa. Bertatikurretara jatordan usainaren bide gozo-gozotik.

Bidean noala, hainbat lagun ikusten dodaz, abade jantzita. Eta eurok be ikusten nabe neu, urrean; baina bake-bakean ixten deuste neure bidean joaten. Kanpotarrak dira danok, eta etxekotzat naukiet eurok, antza.

Sueteiko jentea, beharbada, konturatuko da bertan sartu naite-neko. Baleiteke. Baina hain zuzen be, beharbada, behar izango nabe katua lez katu-beharrak egin degiedazan.

Gertu naiten, ezpan-alboetako bizar zuriok albo bietara begira dotore-dotore ipiniaz. Atea zabalik dago. Tira! Sartu naiten bertotik.

Ordurik onenean sartu nazala esan leike. Etxeko katuak euron bazkaria jateko ipinita daukien orduan, antza; ba, horretan dihardue eurok, ekin ahalean. Pilo bitan ikusten dodaz. Eta ni, neure kontuak behingoan aterata, pilorik handienaren erdian sartzen naz. Hemen jenteak neu kanpotartzat eukiten gatxago eukiko dauela-ta.

Hemen sartu naz, ba. Eta ondo hartu nabe neure lagun barriok. Hatan be, eurotariko batek.

Honeri, bigarren kopaua jan dodanekoxe, begi-begiko egin natxako, eta hirugarrena ahora daroadala, bajatort ondora, eta badi-nost:

—Kontxo! Hi be hemetik? Asko pozten nok. Bota eik hona bosteko hori, Txuri!

—*Bosteko hori*, dinok? Ez jakiat oraintxe zeinbat atzamar daukadazan. Gosearen gosez, ikusi be ez joat egiten ia-ia hartzeko daukadan kopau gozoa baino besterik.

—Jan eik, orduan, orain, asetu artean, beste ezeri jaramonik egin barik. Bazkalostean egingo joagu berba.

Eta hauxe esanda, arteko lekura joan da, neure aurre-aurrera, eta han ekin deutso barriro bere lanari, neuri eta beste mahaikide *miau-egile* guztioi jarraipide³⁰ ederra emoten deuskula.

Bazkalostean, lagun txeratsiak, eskutik hartuta, bere gelara eronau. Eta haraxe joan gara biok, baktotxa hiru hankaren ganean, inoizko edertoen. Txitxuk ikusi baginduz...

—Txuri haz heu, antza —esan deust, bera lez aulki baten, katuentsako eginiko berarizko aulki baten, jesarri eragin eta gero.

—Bai, bat. Baina, heu nor haz holan hiketan adiskide barru-barruko bateri lez neuri berba egiteko?

—Nor izango nok?! Heure txikitako lagun handi bat.

—Neure txikitako laguna izateko, txorierritarra izan beharko dok.

—Bai, txorierritarra nok; eta haorretxegaitik, Txori deitzen jeustek hemen guztiak. Eta holantxe deituko deustak heuk be, jenteak beste gauzarik pentsau ez dagian.

—Ondo jagok. Baina, nor haz heu? Zelan daukak izena, heure txikitako izena?

—Neure txikitako izenagaz ahaztuta naiagok. Apur bat hazi nintzaneko, Lapurtxu hasi jatean jentea deitzen eta.

—Hamaika barrabankeria Derio aldeko sueteetan eginiko mutila haz heu, mutil, Lapurtxu bahaz.

—Bera nok, ba, apur bat aldatuta baina.

³⁰ [jarraipidea: *ejenploa*.]

—Ez hago txarra. Esan leikek jenteak ondo esaten deuala hemen. Baina zelan izan dok heu hona etortea?

—Badakik sarritan jazoten dana suerte txarrari eskerrak suerte ona izatea, eta hauxe berau jazo jatak neuri be. Ijito³¹ batzuk atrapau naioek, afari baterako ederra naiagola-ta. Baina euron eskuetan jaus-tean hartu dodan ikareaz argaldu egin nok ordu batetik bestera. Eta orduan, euron janaririk onenak neuri emoten hasi dozak, tamala dala neu lango katu bat alperrik galtzea eta. Eta holantxe, eurok euron janaririk onenak neuri emoten eta neu horreek janariok jaten sentika-sentika Zaharrizeraino heldu gozak; eta ostatu handi honen aurreraino heldu garanean, igaririk ordurako janariok amaitu aginik dagozala, euron gurditik, eurok igarri barik, urtenda, honaxe etorri nok isil-isilik. Eta berton sarturik, miaukada batzuk euskeraz eginaz, bertoko morroi abadegei euskalzale baten bihotza irabazi joat, eta orain, hemen naukak...

—Suertetxua euki dok, gero!

—Bai, mutil. Eta heu zerk ekarri hau hona, ba?

—Mutil, nire etxetik honako ipuina luzea dok, eta ez jakiat astirik eukiko ete dodan heuk guztia entzuteko.

—Astia, zeinbat-gura jaukat nik hemen. Ez jaukat beste beharrik saguak eta arratoiak uxatzea baino. Eta hau beharrau heuk be ondo dakik arnaseaz beste barik egiten doguna, geuk gura izan ezker.


Ipini deusadan atxakiak, antza dagoanetik, ez deust bape balio, eta besterik asmau egiteko, Txitxu gurea urrun daukat eta, kontau egin beharko deusat neure ipuina Txoriri, bakerik eukiko badot beronegaz.

Gero, beharbada, damu izango dot kontaua, baina.

Txuri.

Hau zerbait gehiagogaz,
1933ko urriaren 8an.

³¹ [ijitoa: *jitanua*.]



XXXIV

TXURI TXITXUREN ONDORA BIHURTUTA

Nik, gizajo handionek, halan behar dala-ta, neu zorizko fardel-txuan sartu behar nauela Txitxuri otu jakonetik, Zaharrizko ostatu nagusiko suetea neuk neure ointxuak ipini artean, jazo jatazan jazo-era guztiak kontau deustadaz neure lagunzar Txoriri.

Kontetako eta kontetako ekin deust berak eta. Baina, zelango zerak ez deustadaz eragin berari bere esana eginagaz?

Zorizko fardeltxuan egin neban bizikera luze eta estua gogoratzek bihotza hausi deust. Eta errukizko begiakaz neuri begiratzek deustala eta besoak bere papartxuaren ganean kurutzatzen dituala, hauxe esaten izan deust, txitean-pitean, samur-samurrik: «Txuri gizajoa! Txuri gizajoa!».

Baina neure baje ospetsu hau, beste alde batetik, Txitxuri eskerak, barre eragiteko zirki-mirkiz beterik aurkitzen izan dau eta, barre onik be egiten izan dau neuri begira eta neuri atzea emonda, bietara; zelan ereak agindu eta halan.

«Txuri gizajoa!» esaten izan ez dauen arte guztian barreka ibili da, kar, kar, kar, geleka betean, eta ito beharrean, eta ia neu mintzeko bestean.

Hatan-horretan, afalordua heldu jaku. Eta gauzak euron orduan egitea ondo dala-ta, afaldu egin dogu afalordua heldu jakunean. Eta polito heldu be bakotzak han suetea agertu jakun *jan naizuko* afariko jaki-zati bakotxari.

Afaldu eta gero, lo be egin gura izango dodala-ta, logela panparroi batera eroan nau. Eta nik orduan, hauxe dala hauxe esateko ordurik egokiena eta, hauxe esan deust:

—Txori, etxe honetan nahikoa egin joat lorik; eta lorik gehiago egin barik, itxartu egin gura joat. Esan eidak behin: ostatu honetara etorri diran lagunak, abade jantzita dabiltzanak, euron ejerzizioak ezpateaz ala fusilaz ala makileaz egiten joezak?

—Kar, kar, kar!

—Egingo neukek ezkerreko belarria, Txori barretia, hik horregaz barreorregaz hauxe esan gura doala: horreek hemen euron ejerzizioak ez dituela egiten holango tretxuakaz. Ondo jagok. Baina, bada-ezpadan be, beste itaun bat egin behar deust. Ez jarabilek horreek holango tretxurik?

—Ja, ja, ja! Haorixe ez jakiat, ba. Beharbada euron errezueta liburueta euki leikiezak ondo tolestuta.

—Neu zorizko fardeltxuan egon nazan baino zabalago, edozelan be, euki leikiezak, adiskidea.

—Umore ona daukak, Txuri.

—Baita heuk be, Txori. Pozik egongo nintzatekek hemen heuk gura heiken arte guztian; baina hona ekarri nauen eginkizuna honako jasean bete joat, eta ez jaukat hemen gehiago zereginik. Jakin joat oraintxe —zorionez, Lerrouxek eta Azañak baino lehenago— berton jakin behar izan dodana, eta oraintxe, behingoan, etxera joan behar joat isil-isilik, neure ugazaba Txitxu jakitun ipinten, bion ugazaba jauna konturatu baino lehenago. Derio alderako ezer gura badok, gorantziak-edo...

—Gorantziak han norentzat? Nire lagunzar guztiak, hangoak, hil dozak. Eta euki dodan senide bakarra, lehengusua, Madrilen bizi dok orain.

—Madrilen daukak lehengusua?

—Bai, gizona. Cantxo Pantzaren zazpigarren katua dok bera.

—Arranoetan! Zelan jaukak izena?

—Hobe izango dok hik horren izenik ez jakitea. Ba, hik behin jakin ezkeru, Txitxuri esango heuskio.


—Behin baino ez neuskiok esango.

Hauxe esan eta guzti be, ezin erason izan deusatz katu ospetsu horren izena neure lagunzar Txoriri.

Holangoxe buru gogorrekoa da Txori hau, hasten danean. Bakotxak berea behar dau, horraitino, beti be; eta bakotxari berea emoten neu hasten banaz, hasi, esan beharko dot, baita be, Txori hori buru gogorrekoa badala, baina bihotz bigunekoa be bai, Jainkoari eskerak. Bere bihotz bigunak eraginda, behingoan ipini nau, neuk eskatuta, etxera bidean. Eta ganera, biderako zeozer emon be bai; buz-kantzak ordeaz izaten dirala-ta, barre batzuk egin ostean beste batzuk neuri eragin eta gero.

Heldu naz Txitxuren ondora. Hauxe be, buru gogorrekoa dala, nahikoa da bihotz bigunekoa. Apur bat gogorragoa izan da beronek Zaharrizera eragin deustan biajetxua.

Hau zerbait gehiagogaz,
1933ko urriaren 15ean.



XXXV

TXURIK DAUKA SUERTEA!

Zorizko biajetxua egin dau Txuri gureak Zaharrizera.

Lehenengo-lehenengo, gerokoak gerorako dirala, eskutitz bat hartu dau, Txorik Zaharrizetik bertatik bialduta. Eta ez da izan, lehenengo-lehenengo, suerte makala berau hartzea, bialdurik Txorik bialdu dauen moduan, txantxetan-benetan, estalkian³² hauxe zuzen-bideau, hauxe direkzinoau, ipinita:

«Bizkaian.

Txuri Katu ospetsu jaunari.

Txitxu jaunaren etxean.

Berlodion».

Zaharrizko korreo-etxean, suertez, euskeraz berba egiten eta ulertzen eta igarkizunak asmetan dakian morroi bat dago. Eta suertea izan da, eta ez txikia, eskutitza, holango estalkia ganetik dauela, morroi honen eskuetan jaustea.

³² [estalkia: *sobrea*.]

Morroi honek berehalaxe susmau dau «Berlodion» horretan igarkizungei bat dagoana. Eta igarkizungei hori igarri dauela erakusteko, eta bide batez, bideko korreo-morroi guztiak ikusi dagien norako izan behar dauen eskutitz-estalkiak bere eskutitza barruan dauela, zuhurtasun handiko berba honeek ezarri deusaz baztertxu baten: «¡Ojo! Aquí hay gato encerrado. En “Berlodion”, seguramente, “lodi” está por “me”. Hágase la prueba remitiéndolo al pueblo vizcaíno cuyo nombre tiene “me” precisamente entre su inicial “ber” y su final “o”».

Eta honenbestegaz, gehiagoko barik, hamazortzigarren egunean, inon galdu barik heldu ahal izan da Txori olgetazalearen eskutitza Txuri suerte handikoaren eskuetara. Eta honen eskuetatik etxeko guztion eskuetara heldu da, beronek poz handiaz irakurri eta gero.

Eta neuk be irakurri behar dot. Eta zeuk be, baderitxazu, irakurle maitea, bide batez. Nik neuk holan irakurten dot:

«Zaharrizetik, 1933ko irailaren 30ean.
Txuri katu txorierritar ospetsuari,
Berlodion,

Neure lagunzarra:

Baketu dozak orain apur bat baina, haserre egon dozak hemen go nire katu-lagunak. Ez eurok alkarregaz, heugaz eta neugaz baino.

Heugaz, heuk euroi ezaupiderik emon ez deustzalako; eta neugaz, horretarako, euron eretxian, egin behar izan dodazan ahalegiak egin ez dodazalako.

Esan jeutset hik gatx euki doala hemen egin doan baino denpora gehiago bertan egiten, eta bertan egin doan denporan, barriz, ez dogula euki astirik egin doguna baino gehiago egiteko.

Baina ez jeustek sinistu gura izan.

Miau! miau! egin jeustek, esaten jakun gauza bat sinisten ez dogunean, geuk, katu euskaldun guztiok, egiten dogun soinuan miaukada biak egiten deustezala.

—Sinistu gura ez badozue, zer egingo da, ba? —esan jeutset nik orduan.

—Badakit nik zer egin behar dan —urten jeustak Betokertxu deritxan gazteenak.

—Zer egin behar dan zeuk badakizu, zeuk esango dozu.

Hemengo katu guztiok, adiskidea, alkarren adiskide handiak izan eta guzti be, alkarleri zuketan egin geinkiola-ta, haolantxe, zuketan, egiten jeutseagu berba alkarleri. Saguai eta arratoiai egiten jeutseagu hiketan, hagineta emotearren; hatan be, geure hagin artean atrapetan doguzanean. Jaten emoten deuskuen beste guztiai beroriketan egiten jeutseagu. «Jaten emoten jeuskuen beste guztiai» esan joat eta ondo esan joat, urrean; ba saguak eta arratoiak eurok be emoten jeuskuek, bakotzak behin eta berean gogo handi barik baina...

Baina itxi deiegun orain bakean saguai eta arratoiai, eta gatozan barriro Betokertxugaz darabilgun berbaldira. Betokertxuk, berak badaki, berak esango dauela entzunik, hauxe esan jeuskuk:

—Neuk esango dodala? Ondo dago. Ba, nik hau dinot: Txuri hemen egon dan artean, Txuri zeuk bakarrik ikusi dozun ezker, orain beste guztiok joan behar dogula Txuri horren etxera Txuri berori ikusten.

—Hori askotxu eskatzea da —urten jeutsak albotik Erpatxu ize-neko beste katu batek.

—Zelango askotxu?!

—Bai, gizona. Jakin behar dozu Txuriren mahairako gu danok askotxu garana.

—Ez dau barriketeak balio. Txuri ikusten joatea ez da Txuriren lepotik jaten joatea.

—Ez zeure asmoz. Baina, lotsearren be, ez deusku itxiko bere etxetik urtetan goazen guztioi bere mahaian bazkari eder bat edo afari eder bat beragaz batera jan eragin barik. Eta zeinbat eta lagun gehiago joan...

—Onena izango da guztion izencan Betokertxu berau joatea —jinoat neuk orduan.

—Neu, gehiagoko barik? Ez horixe! Zozketea egin behar dogu. Suerteko zotza ateraten dauena bera doala.

—Ondo dago —erantzun jeutseagu guztiok.

Eta behingoan egin joagu geure zozketea.

Saguak atrapetako kaiola antzeko zer bat zahar eginda ikusi jok, suertez be, Betokertxuk beronek neure atzetik orain daukadan eskapolot handi baten.

Suerteza izan dok haxe be!

Kaiola antzeko gauza berorreri kendu jeutsazak Betokertxuk beronek zozketea egiteko behar doguzan beste zotz; bat beste guztiak baino handiago ateraten dauela.

Behingoan erabagi joagu, haxe zotzau beste guztiakaz neure esku eskoian neuk sartu eta gero, neure eskutik zotz berau ateraten dauen katua izango dala geu guztion izenean ikusten horra joango jakan katu zorionekoa.

Eta behingoan egin joagu zozketea. Eta behingoan atera be Betokertxuk berarentzako gordeta suerteak euki dauen zotz zorizkoa. Holango suerterik!

Baina ez dok suerte txikia heuretzako be, Txuri laztana, suerteko zotz hori Betokertxuk ateratea. Guraina barre egingo dok beronegaz. Ikaragarritzko zelebrea dok.

Betokerra begi batetik dok, gaur artean. Baleitekek bihar edo etzi batetik be ez izatea. Bietatik izatea akordetan ez bajakok. Ba, haurrenbeste be akordau lekiok honeri, hain dok zelebrea!

Errepubliketa etorri artean, bere begi okerra, ezkerrekoa, surre-ra begira euki jok; baina Errepubliketa etorri danetik gora, ezkerre-ra begira jarabilk barrabanonek, alderdi horretan ikusi leikezan gauza barregarriak hobeto ikusteko.

Berak gura dauena guztia egiten jok bere begi okerragaz. Eta beste hainbeste egiten jok begi berorregaz atrapetan dituan gauza barregarri guztiakaz.


Barre eragin gura dauen guztian, barre eragiteko hartzen dauen gauzeari bajakik nondik eta zelan eragin, berak gura dauen beste barre aurean daukanari eragiteko.

Ez jinoat gebiango. Hor ikusi dok heure begiakaz. Saihetsai ondo eutsi, badaezpadan be, berba egiten deuanen.

Agindu heure lagunzar,

Txuriri».

1933ko urriaren 22an.



XXXVI

MAURA SUTSUA EZ DABIL FIRI-FIRI

Betokertxu, Txori onak bere eskutitz gozoan aginduriko Betokertxu katu barre-eragile nagusia, ez jaku etorri oraindino. Behintzat, geure aurrean, geuk ikusteko lekuan, geuk dakigula ez da agertu.

Domekan etorri ez bada, suertez be, geu Maura sutsuak Burgo-sen bota eban diskursoa erradiotik entzuten gengoazala. Izan leitekean, gure etxeko atera heltzea, suertez be, bitarte horretan, eta berak atea jo arren, guk ez entzutea, Maura sutsu horren zaratakaz.

Holan izatea, beti be, hobe izango da gaixorik dagoala-ta haone-txegaitik etorri ezinik egotea baino. Geuk holan uste dogu, eta berak be bere eskuan dauka holantxe uste izatea, geure eretxi argalean.

Maurak berak berbea lodi bota dau.

Arranoetan, mutil hori ez da ibili *firi-firi*!

Esan deusku Txurik bere eretxia

Tira! Bota dau Maura horrek berorren diskursoa, ez behingo-behingoan, baina. Denpora gitxiago behar izan dau Txuri gureak Maura berorren ganeko eretxia emoteko.

—Eta, Txuri, zer deritxak berbalari horrerri? —itandu deutso Txitxuk, berbaldi zaratatsua amaitu daneko.

—Zer eretxiko deusatz?! Berba asko egin dauela.

—Eta ondo, oiez?

—Ondo. Tira! Batzuetan, bai. Baina ez nau ni lorindu. Hori morroiori, berbalari ona eta guztia izango da, baina...

—*Baina* dinok?

—*Baina* asko aurkitzen dot nik morroi horregan, jauna. Baina, Betokertxu noiz ikusiko ete dodanezko zeragaz, ez daukat burua gehiagotarako euki be eta, bat bakarrik esango dot.

—Esan eik, ba, esango badok.

—Hara, ba. Oraintxe esango dot, baina ez, gero, niri agirakarik egin! Nire eretxian, Maura hori katolikuentzako baino hobea da *katu laikoentzako*.

Emon dau Txitxuk bere berbea

Heldu gara barikura, Jainkoari eskerrak. Baina Txitxuri, heldu garan egunera heldu, eta bitartean, lau edo bost egun igaro eta guzti be, ez jako ahaztu Txuriren errazoi zuhurtasunez betekoa; eta gaur berton be, zazpi bider gitxienez esan dau Txurik bere errazoi horregaz Maura sutsua bere lekuan ipini dauela: berari jagokon lekuan.

Eta orain hauxe dinost, Maura eta katua, biak, euron lekuetan itxita:

—Ez deritxo, ugazaba, ondo izango dala orain geure gauzak gogoan izatea?

—Geure gauzak asko dozak, guztiak era batera gogoan izateko —dinotsat neuk.

—Danak era batera ez, baina banan-banan. Orain, lehenengo, ardurarik gehien emon behar deuskuna.

—Eta zein dok hori?

—Zein izango da?! Orain esku artean darabilguma.

—*Firi-firia* izango dok, oiez?

—*Firi-firia*, bai, *Firi-firia*. Lehenengo-lehenengo, badaki gaurko hau zeinbatgarrena dogun?

—Nik ez jaroat konturik.

—Ez, ba. Berorrek *Firi-firia* egin eta egin ibiltea baino ez dau besterik gogoan.

—Nik nahikoa egiten joat horregaz.

—Bai, ba. Argitara urteteko lekura bialdu egiteko ardurea neure ganera itxita dauka eta.

—Bai, eta hik ondo bete be ardura hori.

—Ahal dodan lez. Baina biok be, zeozer gehiago egin behar dogu.

—Heuk esango dok.

—Orain egin behar doguna hauxe da: kanpoan dirua aterata baino ez bada be, gaurko *Firi-firi* hau arteko danakaz batu eta guztio-kaz liburu bat egin, *Kili-kili* izenagaz atera genduan bestekoa.

—Heuk dinoazan *Firi-firi* guztiokaz heuk gura doan lango liburua egiteari ondo jeritxeat, Txitxu. Baina horretarako kanpoan dirua ateratea ez jatak hain ondo paretan; hatan be, kanpoan atera beharrik ez daukagula. Jesuitak, euron gauza isilekoak isilean euki daiguzan, astean-astean bialtzen deuskuezan diruakaz eurokaz, dirurik nahikoa eta lar euki behar geunkek.

—Euki behar geunke. Baina badaki, ba... Nik badinotsat: kontuak neuk ondo aterata daukadaz. Gaurko *Firi-firi* hau bape luzea bada, arteko guztiak beronerri erantsita, badaukagu *Kili-kili* izenagaz atera genduan besteko beste liburu bat egiteko lain.

—Ez jakiat, ba.

—Egin daigun eta haorduantxe ikusiko dogu.

—Egia dinok horregaz. Bai, mutil. Egin eta gero ikusiko joagu.

Baina, igarten ez badok...

—Igarten ez badot, igarri, parkatu egingo deusadaz nik berorri berorrek zor izan leidazan neure orain arteko, oraingo eta bizi nazan arteko aloger guztiak.

—Zer dinok, Txitxu?

—Emon dot berbea.

—Eta, heure berba horregaz, zeinbat berba uste dok egongo dirala orain arteko *Firi-firi* guztietan, gaurko hau barru dala?

—Nik dakit, ba? Hainbeste dira, ze! Baina hutsik egiteko bildur barik esan neio, horraitino, izango dirala eurok, gitxien-gitxienez, hogeta zortzi mila.

—Horrenbeste berbagaz zeozer egin geinkek. Gitxiagogaz egin joek diputadu izan diran morroi batzuk euron diputadutzea.

Hau zerbait gehiagogaz,
1933ko urriaren 29an.



XXXVII

TXITXUK BADINO ZEOZER

Blasco Ibáñez errepublikanu hilaren hazurrak, edo hautsak, ataute dotoreren baten ekarri ditue errepublikanu bizi batzuk Valentziara. Ba, hirurogei mila pezeta kostau ei da ataute hori. Dirua da, gero!

—Hirurogei mila pezeta hamabi mila ogerleko ez dira, ugazaba?

—Bai, Txitxu, ogerleko bakotxak bost pezeta daukazan artean.

—Nik ez daukat horrenbeste.

—*Horrenbeste* horregaz ogerlekoak beste esan gura izango dok hik, barrabanorrek, beharbada.

—*Beharbada* barik, ugazaba. Nire praketako boltsak ez dira hausiko diru lar erabiliagaitik.

—Esku artean hainbat erabilten dok, ba.

—Erabili bai, baina euki ez. Zelan etorri, halan joan.

—Hori dok garbi jokatzeta.

—Errepublikanu askok eta sozialista askok gura daben lez.

—Holan jokatu gura joek?

—Holan jokatzeta gura dabe. Gauza bat da, berorrek ondo dakian lez, holan jokatu gura izatea eta beste bat holan jokatzeta gura

izatea. Holan jokatzea gura dauenak bape neke barik gura izan leike, berak holan jokatu barik, besteak holan jokatzea.

—Euskeraz berba egiten badakiala esan leikek, Txitxu. Alde handia jagok, bai, beti be, aditza *teagaz* erabilterik *tea* barik erabiltera. Baina euskal idazle batzuk ez jakiek, antza.

—Euskeraz ondo ez dakielako.

—Zeozergaitik izango dok.

—Baina zergaitik ixten deutsee euskeraz ondo ez dakien idazleai euskerazko lanak egiten? Ez dago multarik horreentzako?

—Ezagutzen dok heuk holango idazlerik, ala?

—Ez al da nahikoa eta lar euron lanak ezagutzea? Honako papertxu honetan dagoana be holangoren batek egina izango da. Suertez be, haoraintxe irakurri dot neuk, eta neuk irakurri eta gero berorrek be irakurri dagian gura neuke. Berorrek berorren pekatuen parkazinorako irakurri gura badau, beutso. Ostean, hobeto izango dau jaramonik egin ez. Baina gaur berton, aurki, egin ditu pekatutxu bi, neuri zer handi barik, katua dala katu, egin deustazan agirakaldi biakaz; eta hartu bei, eta irakurri bei, alde horretatik ona baino hobeia izango dau eta. Badakit berorren eroapenari behar eragiteko beste atsekabe emongo deutsana.

—Luzea dok?

—Holangorik! Luzea ete dan itantzen deust eskuan daukan gauzeagaitik?

—Eskuan hartu baino ez joat egin, Txitxu. Ez jeutsat oraindino begiratu. Albadiberea³³ banok, baina ez horrenbestean.

—Neu baino gehiago ez behintzat. Handia jazo jat neuri, gaur goizeon hain zuzen be, ugazaba. Badaki Patxo Baketxu neure lagun handia hil dana.

—Bai, eta bajakiat Baketxu ezizena zergaitik ipini eutsien be. Behinola...

³³ [albadiberea: *distráidua*.]

—Itxi bei, mesedez, gerorako ipuin hori; ba ostean, neu albadi-tuko naz, bere arimearen aldeko eleizkarian bertan egin nazan lez. Joan naz eleizara, eta lutu-aukiaren atzeko aulkira joan be, trapa-trapa. Eta lutu-aukian hainbeste lagun ikusirik, hasi naz ea euron artean Patxo Baketxu bera ete dagoan begiratzen. Eta ez dagoala ikusi dodanean, «Hau beste hilen baten eleizkaria dok, antza» esanda, gehiagoko barik, atzera etorri naz etxera trapa-trapa, eleizkaria bertan behera itxita.

—Hik egiteko ez dok asko.

—Ez, jauna. Irakurri bei, orain, eskuan daukan orritxu hori.

—Lehenengo-lehenengo, eskuan ete daukadan begiratu behar joat. Hemen jagok.

—Eta zer deritxu, ugazaba?

—Zer deritxadan? Penitentzia makala ez deustaala heuk emon neuri ipuin hau dagoan eran irakurri eraginaz. Ai! Holango penitentzia barik irakurri naioan neuk ipuin berau antxina baten, erderaz, orain ahaztuta daukadan leku baten, Txitxu maitea.

—Orduan, hori euskeraz holan ipini dauena bihurtzailea³⁴ da edo izan da lan horretan.

—Bai, antza.


—Ez dauka bihurtzaile onaren antzik. Antza dagoanetik, bihurtzaile *bihurra* da. Bihurra edo okerra, edo oker bihurtzen dauena.

—Okerra be okerra haz heu, Txitxu, heure eretxi zuzenak emoten.

—Gehiago be emongo neuskie nik holango euskal idazleai. Esate baterako, gehiagotan euskeraz ez idazteko baimena.

1933ko zemendiaren 5ean.

³⁴ [bihurtzailea: *traduktorea*.]



XXXVIII

AZAÑAREN LEPOTIK

Azaña handia, bere loba neskatila bat ezkontzen dala-ta, Zaragozara joan da gizajoa. Eta bere loba neskatila hori, ezkontzeko, eleizara joan da, eta bera be hara. Baina, berarentzako, ez ordu onean, antza.

Antza dagoanetik, bere arpegiko garauak agirian dituala agertu da eleizan, eta bere loba neskatilea ezagutzen izan ez daben batzuk ondo ezagutu dabe bera; eta, berak entzuteko eran, marra-marra hasi jakoz, eta holan honeek hasirik, jentea parra-parra hasi jako holantxe marra-marra.

—Jentea marra-marra hastea ez da izan bakarrik, ugazaba.

—Zer izan dok gehiago, ba, Txitxu zuhurra?

—Ekitea. Luzaroan ekin deutso jenteak holan.

—Eta bera isilik, eztok?

—Hauxe esan dau hagin artean, euron artean atrapau baleu, birrindu egingo eban jente marramarralariari begira:

*Ai, hor zabiltze marra-marra,
ta orain nik ezin amarra!*

—Baina hori bertsoori ez jeutsak entzun jenteak.

—Ez, ba. Ez deusatz esan hagin artean esan dauela?

—Ondo jagok.

—Bertsoa, ala? Baietz nago. Ez dau egin Azaña horrek bertso hobeagorik bere bizi guztian.

—Heu be ez haz txarra bertsoak egiten.

—Botako neuskioz nik oraintxe berari, berorrek itxi ezkerro, hiru edo lau.

—Tirok, ba! Bota eiozak. Baina berari atsegin izan leikion soinu nuan botako deusatzak, gero!

—Badaki berorrek harako:

*España, España,
la Monarquía...*

—Entzun joat inoiz.

—Ba, kanta *eder* horren soinu panparroian kantaiko deusatzaz gizon *handi* horrerri berarentzat oraintxe egingo dodazan bertso txu honeek. Beioaz, bidean galdu barik, neure burutik neure ezpanetara, eta neure ezpanetatik berak hain bero daukazan bere belarri bietara!

*Azaña, Azaña,
gizajo handia!
Ai! Zure aldia
birrindu da!
Garbitu egizu
zeure arpegia,
beste bat ia
dirudian.*

—Nahikoa dok, mutil.

—Nahikoa eta lar.

—*Lar* dinok, Txitxu? Nik ez joat esan lar danik.

—Baina neuk dinot, neure eretxian, lar dala Azaña hori gaur dan lango gizon batentzako.

—Berari marra-marra Zaragozan, han, eleizan, egin deutsienak ez jeutsiek eretxi lar ez nahikoa halan marra-marra berari ekiteari.

—Ez, antza.

—Gero, eleizatik urten eta gero, beste soinu bat be entzun behar izan jok gizajo handiak. Txistu-soinuan hartu ei jok kaleko jenteak.

—Bai; txistuak jo ei deutsiez. Baina bera ez dabe jo, horraitino.

—Haorixe bai lar izango zala!

—Zer izango zan lar?

—Bera jo egitea.

—Bego isilik, ugazaba. Bera yoka ibili da nagusi izan dogun arte guztian. «*Aquí “yo” mando, “yo” dispongo*» eta holantxe *yo* egiten ekin dau. Eta orain bera *jo* egitea eskatzen dau bardintasunaren legeak.

—Ez deritxak nahikoa ekin deutsagula gaur Azaña gizajo horre-ri?

—Bai, behin. Eta ez dinot lar ekin deutsagunik, badaki zergai-rik?

—Ez heuk esan barik.

—Hurrengo baten be ekiteko eskubidea euki daidan. Hau da *juridizidudea*!

—Hori dok burua, Txitxu! Hori berbeori be ikasi dok?


—Bai, jauna. Zeozertarako aitatu deusku Otxorio Gariartok hainbeste bider.

—Eta orain hik, bide batez baino ez badok be, Otxorio Gariarto bera aitatu gura izan deustak.

—Bai, ba. Beste inork ez dauela aitutzen ikusita...

—Itxi degiogun gaur bakean Otxori Gariartori; ba horregaz has-ten bagozak, hasi, Jainkoak berak jakik bakarrik noiz itxiko deutsa-gun.

1934ko urtarrilaren 7an.



XXXIX

PORTUGALETE ETA PORTUGALETEKO GAUZAK

Portugaleteren entzuterik badaukazu, irakurle maitea? Berak badauka bat, eta ez txikia. Beti euki dau Portugaletek entzute han-dia. Batez be, Txorierrin.

Herria da bera be; herria edo uria. Baina, uria izanda be, herria da, seguru be; eta guzurrik esan barik esan geinke Portugalete gogo-an dogunean, izen hori daukan herri bat dogula gogoan.

—Ugazaba, ezagutzen dot nik hemen morroi bat Portugalete deitzen deutsiena.

—Portugaletetarra izango dok morroi hori, Txitxu.

—Bai, jauna; hangotarra da.

—Ba, eik kontu Portugalete deitzen deutsiela, hain zuzen be, haorretxegaitik: portugaletetarra dalako. Baina hemen ez joagu gogo-an portugaletetarrik, Portugalete bera baino. Eta Portugalete bera herria dok.

—Edo uria.

—Txitxu, zer jan dok gaur, holan ibilteko?

—Parkatu bei. Ondo esan dau berorrek. Uria izanda be, herria izan behar. Eta nik isilik egon behar, oiez? Tira! Azaña Albiñanaren aurrean baino be isilago egongo naz neu berorren aurrean, berorrek berba egiteko baimena emoten ez deustan artean.

—Heuk uste izan heiken baino lehenago emon beharko deuat, zer izan dogun gogoan esan deidean. Ba ahaztu jatak garbi-garbian heure zerokaz.

—Portugalete entzute handiko herria dala esan dau berorrek.

—Hatan be, Txorierrri, eztok? Ez joat esan hau be?

—Bai, jauna. Eta ez dau esan horregaz be guzurrik. Txorierrin txorierritar garbi guztiak ete dakien nago honako kantatxu hau:

*«Portugalete,
vino clarete»,
edango neuke
basutxu bete.*

—Portugaletek, kantatxu horregaz, entzute handia hartu jok txorierritar kantarien ahoen bitartez. Baina herri horrek, bere entzutea zabaltzeko, bajaukak gauza gehiago be geure *Txori-erri barre-herri* maitean.

—Neu ez naz gomutetan...

—Ahaztuta egongo haz eta.

—Horixe izango da, ugazaba.

—Entzun egingo henduan hik inoiz zeozer han, Sondikan eta inguruetan, Portugaleteko atsoakaitik.

—A, bai, jauna! Eguraldi onean negar egiten dabela, onaren atzetik txarra etorriko dalako bildurraz, eta eguraldi txarrean dantzaren egiten dabela, hurrengo ona izango dalako pozaz.

—Eta horrezaz ganera ipuinak be bajabiltzazak txorierritar jatorren ahoetan Portugaleten bertan jazorikotzat esaten diranak. Hara-ko arratiar gaztai-jalearena-eta.

—Entzun dot inoiz nik ipuin hori, eta barre onik egin be bai berori entzunik. Esan bei beste behin berorrek, irakurleak be entzun edo irakurri dagian.

—Itxaron beie apur baten.

Portugaleten zapatari-bizikieran bizi zan arratiar batek, goiz baten, hainbeste urtean ikusi barik eukan bere herritar bat aurkitu eban Portugaleten bertan, bertara bere herritar hori txarriak saltzen etorrita.

Txikitako mutilko-laguna eban bere herritar hori, eta holan hainbeste urtetan ikusi bako lagunzarrari egiten jakozan txerak eta zerak egin eta gero, bere txarriak saltzen lagundu eta azkenengo txarria saldu ostean, etxera eroan eban konbidadu.

Arratsalde erdia heldu jaken hatan-horretan, eta bazkaltzeko belu zala-ta, azkaritxu³⁵ bat jatea otu jakon zapatariari.

Emaztea ez egoan ordu hatan etxean, eta gertuen egozan jakiai bota behar eskua.

Certu egozan gauza bi: Balmasedan eginiko tremes bat eta Bur-gosekotzat erosiriko gaztai eder bat. Ogia be ez zan txarra baina, gaz-taia bene-benetan egoan *jan naizuko*. Eder-ederra egoan. Eta oso-orik.

Hasteko, zatitxu bat kendu eutsan zapatariak berak. Eta berak besteko zatia kenduko eutsalako amesagaz, emon eutsan eskura txarri-saltzaileari, berak kenduriko zatia ebagi eban aiztoagaz³⁶ batera.

Txarri-saltzaileak gogotik heldu eutsan esku bategaz aiztoari eta besteagaz gaztaiari, eta behingoan, neuk esan neiken baino arinago, kendu eutsan honeri beronen jaubeak kendu eutsan lango biko edo hiruko zati bat.

Eta hau zatiau berehalaxe jan, eta behingoan beste zati handi bat kendu eta hau be artekoa eroan eban lekura bota eban sinu gitxigaz. Eta badaezpadan be, ogi gitxigaz.

Zapataria ikaratzen hasi zan. Baina txarri-saltzailea bera ez zan ikaratu.

Geroago eta zati handiagoak kentzen eutsazan bere lagunzar zapatari gizajoaren gaztai gozoari.

³⁵ [azkaria: *meriendea*.]

³⁶ [aiztoa: *kutvilloa*.]

Holango baten, gaztaiaren apurrik be ez eutsala itxiko ostean eta, zeozer esaten azartu zan zapatari gizajo hori. Baina bai erantzun be bere lagun txarri-saltzaile gaztai-jale azarriak.

—Esan leikek aspaldion ez doala jan holango gaztairik —dinotso zapatariak txarri-saltzaileari.

—*Aspaldion* dinok? Inoiz be ez honen gozorik —erantzuten deutso zabal-zabal txarri-saltzaileak zapatariari, jateari itxi barik.

—Badakik, gero, horregaitik zeinbat diru emon dauen nire emazteak?

—Nik jakiat, ba? Zeuck jakingo dozue.

—Hamar erreal, mutil.

—Holango gaztai on batek horrenbeste eta gehiago balio jok.

—Baina, badakik, gero? Berori baino ez jaukeagu.

—Behar be ez joat nik gehiago. Nabikoa jaukat beronegaz.

Txitxuk, irakurleak barrerik egin ete dauen begiratu barik, berak barre batzuk egin eta gero badinost serio-serio:

—Portugaleteko gauzak guztiak azaldu barik emon beharko dogu amaitutzat *Firi-firi* hau, antza; ba baltzitu dogu azkenengo paperik gehiena.

—Zer egingo jakok, ba?!

—Nik ez dakit zer egin leikion paper honeri. Baina luzatu ahal banau, luzatuko neuke.

—Zertarako?

—Portugaleteko bertoko diputaduakaitik zeozer esateko.


—Hi kapaz-kapaz izango haz horreei homenaje bat egin degieela portugaletetarrai eskatzeko.

—Homenajea dino? Homenaje jasekoa egingo neuskie nik horreei; baina, beharbada, ez litzateke izango euron gogokoa.

—Jasekoa izan ezker...

—Jasekoa, bai; eleizako kanpantorretik eskegita... Jesus!, zer esan dot?

1934ko urtarrilaren 14an.



XL

PORTUGALETE AITATUAZ, ZERBAIT GEHIAGO

Portugaleteko gizon batek Txitxuri eskatu deutso, arren, erderara bihurtu degiola lehengo domekako *Firi-firi* gozoa.

Ba, gozoa be gozoa dala, antza dagoanetik, Portugalete berak lez maite-maite dauen edozeinbere portugaletetarrentzako, eta bere gozotasuna dan bestean hartu gura dauela bera guzti-guztia ulertuta.

Tamalez berak, Txitxuri mesede hori eskatzen deitsan gizonak berak, ez daki euskeraz, eta ez dau besterik ulertu *Firi-firi* guztitik haxe baino:

«*Portugalete,*
vino clarete».

Txitxuk ez dauka orain astirik erantzuteko; baina erantzun degionean, urrean esango deutso ezin leikela berak astirik atrapau ha *Firi-firi* guztia erderara bihurtzeko, esku artean darabiltzan hainbeste behar esku artetik kendu artean.

Halanda ze, Portugaleteko gizon horrek berak behar dauen behar hori egiten Txitxu gurea behingoan ipini gura badau, *atrakadoretxu* bat edo batzuk bialdu beharko deutzaz honeri esku artean darabiltzan beharrok esku artetik kentzen.

—Txitxu, bajakiagu hi igarlari ona hazana.

—Izan be, banaz eta. Baina berorrek ez dino orain gehiagoko barik badakiala ni igarlari ona nazana. Igarkizunen bat gertuta dauka oraintxe niretzat, begia lez.

—Igarri dok igarkizun bat heuretzat gertuta daukadana.

—Eta hori igarteaz, jasean erakutsi deutzat igarlari ona nazana, ezta, ugazaba?

—Bai. Baina igarriko ete dok heuretzat gertuta daukadan igarkizuna bera?

—Esan bei, eta ikusiko dogu ea antzik hartzen deutzadan.

—Hona hemen, ba. Plazentzia deritxan herriko alkateak bere herri horretako eleiza baten bonba bat ipini jok. Ezetz igarri alkate hori anarkistea ala zer dan!

—Karlitea.

—Ez, mutil. Sozialistea dok, sozialistea. Ez dok igarri.

—Ez, ba. «Ezetz igarri» esan dau berorrek eta, hori esanda, nork igarriko eutsan?

Grezia aldean ba ei dagoz ezkertarrak, hemen lez. Baina, hemen letxe, han be bizi dira eskumatarrak, seguru. Eta eurotariko asko, esku eskuma onagaz, antza dagoanetik.

Lehengo baten, eskumatarrok eskatu barik, mitin bat emon dau ezkertar batek. Eta bere mitin ezkertarrean inon diran zantarkeriak esaten hasi da eskumatarrak maiteen dituen gauzen aurka, guzur eta nahaste.

Baina eskumatarrak ez deutzie luzaro itxi berarentzako hain gozoa izan dan lan horretan jarduten. Behingoan joan jakoz ganera eta goitik behera emon deutzie, lepo beste ukabilkada eta ostikada eta nahaste emoten deutzuela.

Txitxuk dinoana egia bada, horrerri morroiorreri ondo irakatsi jako, hil barik, zelan bizi behar dauen bere alderdikoak ez diranakaz.

—Eta gehiago be badinot, jauna.


—Zer gehiago?

—Danon artean morroi horrek ikusi gura izan ez dauen kurutze bat egin dabela.

—Zelan?

—Berak lehenago ezkerretik eskumara ekinik, gero besteok, eskumatarrok, goirik behera ekinaz.

Hau zerbait gehiagogaz,
1934ko urtarrilaren 21ean.



XLI

IPUIN ZAHAR BAT ETA GAUZA BARRI BATZUK

Gaubon aurreko loteriako jokaldiko³⁷ egunean, hamaikak inguruan, EAJ *Zazpiterdi* entzuteko baino hamaiketako on bat hartzeko hobe zan orduan, erradio-estazio horretatik loteriako numeru-txuak entzungo dodazala-ta, poz-pozik zabaldu neban neuk neure erradio-tresna polita.

Poz-pozik zabaldu nebala esan dot, eta ez dot esan guzurrik horregaz be, baina guzurrak urten eustan. Ez neban entzun neure numerurik. Eta hau zori txarra!, beste inorenik be ez; neuk dakidala behintzat.

Ordubetegarrenean, gogait eginda, neuk dinodana entzuteko belarrietakorik ez dodala behar eta, belarrietakoak neure belarri biotatik kendu eta gero, entzun ez baeusten be, argi-argi esan neutsen han, diru-etxean-edo, eurok ateraten zituen numeruak eta sariak³⁸ kantetan iharduen mutilkotxuak:

³⁷ [jokaldia: *sorteo*.]

³⁸ [saria: *premio*.]

—Ea, aingerutxuok! Atera eizuez behin, alkarren atzean, bat horrek EAJ *Zazpiterdi* beronek jokatzen dituan numeruetarik bat, eta beste horrek hamabost miloiko *lopea*... Ea, holantxe, datorren urtekoak hobeto entzuten doguzan!

—Zer ipini deustak hor, Txitxu?

—EAJ *Zazpiterdi* gaz berorreri jazoriko ipuin bat.

—Ipuin zaharra dok hori.

—Zaharra, baina polita.

—Ipuina, zaharra izan arren, izan leitekek polita. Baina hire ipuin hori, berorren gaiak daukan baliorako, zaharregia ete dan naia-gok. Holango balio gitxiko ipuinak jazo eta behingotxuan kontau behar dozak.

—Kontau eban berorrek izparringi beronetan, oraintxe dala hiru urte inguru.

—Eta neuk behin bere aldian jazo eta behingotxuan kontauta deukotsadan ipuina kontau deustak heuk beste behin irakurleari? Zer esango jok?

—Zer esango dau? Zeozergaitik kontauko neutsala neuk oraintxe, berorrek lehenago kontaurik euki eta gero.

—Beste behin ez eik holango beharrik egin; berari baimena eskatu barik, behintzat.

—Beste behin, ez; baina behintxu, ba...

Hau da bat! Badakit, beronek zer egin dauen jakin dagianean, irakurleak «hori dok bat!» esango dauena, eta horregaitik esan dot neuk «hau da bat!» lehenengo-lehenengotik.

Ez dakigu ziur laiko hutsa ala laikoa eta *maikoa* izan dan, bizi izan dan artean. Laikoa izan ezkerro, halan nahi holan, beti be, ni baino hurrago egongo zan sozialistea izatetik. Eta izan be, *urrean* izan da sozialistea. Orain hil da, eta batek badaki zer dan ordu honetan.

Jainkoak errukia izango al eban beragaz, bere heriotzako ordu estua heldu jakonean, heriotzearen eskuetan guztiz jausi baino lehenago!

Baina, moduren baten, barreak eragiteko besteko gauza negargarri bat, bai, egin dau gizajo handiak. Hilteko ordua heldu jakola

ikusi dauenean, konfesino eder bat egin behar dauela-ta, ez deutso deitu, ba, juezari!

Jakiteko gagoz oraindino jueza joan jakon ala ez. Baina, joan bajako eta bere *konfesino ederra* entzuten parau bajako, biokaitik be esan leike zeozer. Haze bi!

—Nahikoa dok, Txitxu.

—«Haze bi!» esan dot.

—Bai, mutil. «Haze bi!» esan dok, eta ez «aza bi!».

Bosgarren paperaren erdia be baltzitu dogu, irakurlea. Paperaren erdia eta paperik erdia. Eta Txitxuk ez dau esan esateko daukanik laurena. Ez, ba. Hainbeste sozialistaren ipuinak daukaz esateko eta.

—Horrena be ez dot esan guztia, ugazaba.

—Zer itxi dok esan barik, ba?

—Aragoiko herri baten jazo dala.

—Tirok, ba! Esan dok orain eta bardin dok.

—Baina orain beste gauza bat jatort burura.

—Zer, Txitxu?

—Gauza ikaragarria izango dala *Ara-goitik hara behera* jaustea.

—Jaustea beti dok txarra, edonondik be, hara behera. Baina, beharbada, hori ez zoan jausiko. Sasoiz adiskidetu badok Jaungoiko-agaz... Jaunak euki gaizala bere eskutik!

1934ko zezeilaren 2an.



XLII

SOZIALISTA-KONTUAK ETA KARLISTA-KONTUAK

Toledoko probintziako herri batek Torrijos dauka izena eta sozialista bat alkate.

Eta alkate sozialisteak, guzurra dala esan leike baina, bere neskamea³⁹ dauka. Eta bere neskame horrer, bera zeozertarako dala herriko alkate erakusteko, herriaren lepotik erregalu polit bat egin gura izan deutso. Ez da milagro. Tira! Egon be ez dago ezertariko milagrorik sozialistentzako.

Sozialista alkate honentzako, beste sozialista askorentzako lez, nahikoa da gauzea non dagoan ikusi eta gero, gauzeari eskua jaurtiteko modua eukitea, bai norberagantzeko, bai norberak gura daue-nari emoteko.

Eta alkate sozialista honek, ikusirik, holango baten, bere herriko neskato-eskola bat maistra barik dagoala, arin konturatu da han

³⁹ [neskamea: *kriadea*.]

daukala entxufe jaseko bat bere neskamearentzako eta, jakina, ba, Joakina!, bere neskameari emon deutso entxufe hori, bera bertako maistra egiten dauela.

Tanalez, bere maistratzearen alogera kobretako, honetarako eginiko papertxuan bere firmea *botateko* esan behar izan deutso hau esan leikion bat edo batek, eta *orduan* jakin da maistra barri horrek ez dakiala firmetan.

Ostean, horra hor neskatoa behingo baten maistra eginda. Behingoan egiten dabe sozialistak euron *karrerea*.

—Ai, *ugazaba!* Sozialistak arin egiten dabe euron karrerea, atzekoaren begira egon barik; baina arinago egiten dabe beste gauza bat.

—Zer, Txitxu?

—*Karraderea*.

—Badakusu?

—Ikustekoa izango da Portugaleteko diputadu lodiak Frantzia aldera edo Portugal aldera egingo dauen karradera arina, bere erreboluzino barriaren erre-egosiak txarto urteten badeutso.

—Guk ez joagu ikusiko hori karraderarik egiten.

—Izan leiteke horrek oraingo karraderea geuk ikusi barik egitea. Orain artekoak be geuk ikusi barik egin ditu eta.

Granadako probintziako Puebla de don Fadrique deritxan herri baten, gorabehera bat izan dabe Hoyos Jose Mari eta Martínez Félix sozialista amorratuak.

Martínezek, amorru handiaz, bere aurrean belauniko parau eta berari *parkeskatu* degiola esan deutso, holango baten, Hoyoseri. Eta arinago belaunikatu daiten-edo, belarri ondoan belarriondoko eder bat ezarri deutso.

Baina Hoyosek Martínezeri, txistua baino arinago, berak baino amorru gehiagogaz erantzun deutso, belaunikatu barik, zutun-zutunik dagoala, berari tiro bat jaurti eta tiro berorregaz bera hilagaz.

Horra hor horreen *igualdadea!*

Jainkoari sasoiz parkeskatuko al eutsan hilak, hil baino lehena-go; baina, zeinbat bider parkeskatu ete deutso berak inori, parkeskatu eragin gura izateko bere lagunari?

Eta belauniko, hatan be! Ikusi ete dau bera inoiz inork belaunikatuta holantxe, belauniko, egon behar izan dauen lekuan?

Eta beste horrek be bardintasun ona erakutsi dau, arranoetan, belarriondokoari tiroaz erantzunagaz!

Txitxuk esan deuskun guztia entzun eta gero, lekurik badago, beste gizon baten ipuin bat kontau behar dot. Hau gizonau ez da horreekaz bat, izena be beste bat dauka eta.

Margarit Benito deritxo: Margarit abizenez, eta Benito bateo-izenez.

Honek, Margarit Benito jaun honek, Kataluniako herri baten, bera bizi dan herrian, lantola⁴⁰ bat dauka. Eta bere lantola horretako langile guztiai, aurtan, bateri be bere aurrean belaunikatu daitela agindu barik, alogeren ganera, igaz lantoleak itxiriko irabazteen zati bat dala-ta, bakotxari birmila erreal emon deutse.

Itanduko neuskio nik oraintxe Txitxuri ea hau gizonau zer dan: sozialistea ala...

—Ugazaba, itandu barik be esango deusat, berorrek gura badau. Badakit karlistea dana.

—Nork esan deusk?

—Jakin nik! Orain artean be holango beharrak egin bakoa ez da eta... Urtean-urtean egiten ditu, Largo Caballerori baimenik eskatu barik.

—Kontxo!

—Canera, badakit kontzejala dana be.

—Kontzejal karlistea dok, oiez?


—Bai, jauna. Eta esango deusat nongoa be, ugazaba. Olesakoa.

—Bere herria dok, izan be, Olesa.

—Egin leikio *oles* Olesa horrek holango seme onari.

Hau zerbait gehiagogaz,
1934ko zezelaren 11n.

⁴⁰ [lantola: *fabrikea*.]



XLIII

SOZIALISTAK AITATUAZ, ZERBAIT GEHIAGO

Horrako Errepubliketa etorri eta gero be Ciudad Real deitzen jakon, Ciudad Realgo probintziako uri nagusiko guardia zibilak kajatxu batzuk atrapau ditue; eta kajatxuotan, hogeta zortzi pistola. Probintzia bereko herri baten alkate dan Maestre José izeneko morroiarentzat bat edo batek bialduta.

Maestre *trastek* bera alkate dan herri berorretako txinelentzako dirala hogeta zortzi pistolok esan deutse guardia zibilai, honeek zeozer itandu deusienean. Baina ez deusie sinistu. Badaezpadan be, ondo da alkate sozialista sinistebakoari, holango gauzetan, ez sinistea. Hatan be, bere izenean datozen pistolak berak aitaturiko txinelak baino gehiago diranean.

Austriako zirriparra ikaragarrian jokoak txarto urten deutse bertako sozialistai. Esan leike, hemekoak euroi laguntzen ez joakezan bitartean, irabazita deukotseela jokoak Gobernuak eta Gobernuko buru dan Dollfuss bihotz handiko gizon txikiak.

Holango jenteari irabazten gatx badago, egon, baina, tira!, tiro hortik, tiro hemetik...

Sozialistotariko askok txinel jantzita ekin deutsee tiro-hotsean Gobernuko gudariak⁴¹, eta holantxe egin ahal izan dabe zeozer denpora apur baten. Gobernuko gudariak konturatu barik egon diran artean.

Denpora gitxitarako balio izan deutse txinel jantziriko sozialistoi txinel jantzita ibilteak. Laster igarri deutsee gudariak sozialista zuhuroi sozialistak dirana.

—Usainetik igarriko eutseen, ugazaba.

—Zelango usainetik, Txitxu?

—Ardao-usainetik.

Arin esaten daki gauzea Txitxu gureak.

Eta oraingoan be arin esan dau Austriako Gobernuaren gudariak euroi tiro-hotsean ekin deutseen sozialistoi ardao-usainetik igarriko eutseela sozialistak dirana.

—Arin esan bakarrik? Dinodana on egiten be badakit, gero! Sozialistak ondo ezagutzen dituan morroia da Zozaya Antonio, idazle ezkertarra. Bera be erdi sozialistea da eta. Eta badaki zer esan eban behin sozialistakaitik? Ba, denpora lartxu egiten dabela ardaotegietan.

—Espainiako sozialistakaitik esango joan hori.

—Bai, ba. Baina sozialistak, Espainiakoak eta Espainiakoak ez diranak, danak dira herri batekoak. Euskal Herriko erderaz esaten dan lez, «*todos "herri batekos"*».

Hau zerbait gehiagogaz,
1934ko zezeilaren 18an.

⁴¹ [gudaria: *soldadua*.]



XLIV

HELDU JAKU RADIO MOSCÚ

Hemen ebilen bart, hor hamarrak inguruan, Txitxu gurea, neure erradio-tresnearen eragiteko tretxu guztiai eragin eta eragin, nondik Radio Barcelona entzungo.

Eta holango baten, entzun genduan, ba, entzutekoa. Eta birritan entzun be: «¡Habla Moscú! ¡Habla Moscú!».

Haolantxe, birritan; eta indartsu.

Nik behingoan esan neuntsan Txitxuri:

—Radio Moscú jaukeagu berbaz hortxe, Txitxu.

—Bai, antza, Donostia ez bada —erantzuten deust Txitxuk.

—Zelango Donostia?

—Nik dakit, ba! «¡Habla Moscú!» baino lehenago «atean zion» entzun dot eta.

—Ondo ulertu deustak, gero?

—Ez neutsan ulertuko, ba! Birritan esan be egin dau bada-ta!

—Hire belarriak! Ez ete jok esan, gero, «atean zion» barik, «atención» edo holangoren bat.

—Haorrenbeste be izan zeitekean, ugazaba. Baina badaki, gero, Donostiak be badakiala esaten beste horrenbeste.

—Hori be egia dok. Baina badakik heuk orain tresna hori isildu jakuna?

—Bai, ba, neuk isildu eragin deustak eta. Badaki, ba, berorrek dinostana hobeto entzuteko...

—Ondo jagok. Begiratu izango dok, horraitino, non urten joan Moskukotzat daukadan estazino horrek.

—Bai, jauna. Hona hemen. Begiratu bei berorrek be. Eta apuntau bei papertxu baten estazino panparroi horrek urten dauen leku-txu hau. Ondo izango dogu berau apuntetea, beroneri ikutzeko arrisku gitxiago izan daigun.

—Honeri sataitxuoneri be...

—Bai; horrerri palankatxuorreri be ondo izango da begiratzea.

—Beherengo mailan ikusten joat orain.

—Ba, euki bei kontuan, haortxe, beherengo mailan hori dagoala, urten leikela gu beherengo mailan baino beherago sartu gura gaituezan boltxebikeen estazino horrek.

—Orduan, Txitxu, badaezpadan be, ondo izango joagu beherengo mailan inoiz be ez eukitea hori sataitxuori behin gaubeko hamarretara ezkerroan.

—Ni neu, badaezpadan be, gaurtik gora, gaubeko hamarretara ezkerroan, sataitxu hori, beherengo mailan badago, beherengo mailatik kenduta, ohera joango naz, berorren deskuiduren bategaitik «¡Habla Moscú!» entzunda, «¡Habla Moscú!» hori neure erruz sartu dala etxean pentsau ez dagidan. Ba gu, biok be, albadiberak gara, ugazaba; Radio Moscú bera baino gehitxuago.

—Gaur ez haz joango horren arin.

—Ez, ba; hamar eta erdiak badira eta. Baina hamaikak entzun baino lehenago joan gura neuke, horraitino, gaur berton be. Gaubon, ugazaba.

—Gaubon, Txitxu. Eta lo ondo egin.

—Baita berorrek be. Baina zer? Papera eta lumea hartuta, bertsoak egiten hasi da? Ez dauka logura handirik.

—Hasi, egin nok bertsoak egiten, baina ez jakiat, ba.

—Ez badaki, neuri itandu. Nik neuk egin dot neurea, txarto edo ondo. Entzun bei, ea zer deritxan:

*Inongo erradiok ez al deusku
esango inoiz be «¡Habla Moscú!».*

—Eta Donostiak bajinoskuk?

—*Gaubon* egingo deutso Txitxuk.

Hartu dau, trapa-trapa, Txitxu gureak oherako bidea.

Baina, bidean doala, logureaz ganera, beste gauza bat etorri jako burura, eta beste gauza hori, loak ahaztu eraginda, esan barik geratu ez daiten bildur da eta, behingoan jatort atzera.

Eta badinost, «parkatu bei» esan eta gero:

—Ugazaba, ez daukagu zertan entzun Radio Moscúri, boltxebikeak euron agindupeko Errusia errukarrian, hamar urteren barruan, haoneetxek guztiok hil dituela jakiteko: 6.575 irakasle, 8.800 mediku, 54.850 gudari-agintari, 260.000 gudari, 1.243 jaupari⁴², 105.000 txinel, 48.000 jendarme, 12.850 enpleadu, 355.250 idazle, 192.000 behargin eta 815.000 lur-langile. Ez daukagu, ez, holango gauzak jakiteko, zertan entzun Radio Moscúri ez *Radio Muskiri*. Ze arrano!

Eta berak «ze arrano» esan dauen orduan, ez dakit ze arrano egin deusan berberak, konturatu barik, antza, neure erradio-tresnari, barriro entzun dogu lehengo *espikerraren*, berba-egilearen, berbea.

«*Ahora viene la sección de preguntas y respuestas*» edo holango zeozer esan dau, eta gu, zer entzun behar ete dogun, harrituta, isilik gelditu gara berton, bertsoak egin gurea eta logurea albo batera, edo bitara, jaurtituta.

Lagun bien berbea entzun dogu gero: *espikerrarena* berarena, eta honek behargina dala esan deuskun beste morroi batena.

⁴² [jauparia: *sazerdotea*.]

Eztabaida antzeko itaun-erantzuketa polita egin dabe bion artean.

Guk, arpegirik ez deutsegu ikusi eta, ezin esan geinke barrerik egiten izan daben ala ez entzuleen lepotik.

Baina Txitxuk euron eztabaideari usain txarra, bai, hartu deutso, antza.


—Zer eretxi deutsak, Txitxu, horreen eztabaideari? Polita izan dok, oiez?

—Politegia. Horreen eztabaida hori joko bat baino ez da izan, nire eretxian. *Prietoskiren* belarri bat egingo neuke, neurerik ezertan lohitu barik, alkarrerri horreek ondo erakutsita eukiko eutseezala, bata bere itaunak eta besteak bere erantzukizunak, egin daben barriketa hori egiten hasi baino lehenagotik. Itaun-egilea erantzuntzailea bera izan ez bada; ba, horrenbeste be jazo zeitekean.

—Tripatik berba egiten dauen bat ez badok espiker hori...

—Hara, gero! Tripa zitalak asko eragiten dau eta!

1934ko zezeilaren 25ean.



XLV

LARGORI ETA GAUBEKARI ITXAROTEN

Gaur artean isilean euki dogun erabagi garratz bat hartu genduan Txitxu gureak eta biok, umorerik onena euki genduan arratsalde badaezpadako baten, Txuri testigu dogula, katu ospetsu hau testigutzat sutondoan jesarrita egoan lekuan bertan hartuta: *Firi-firik* gehiago ez egitea.

Geroago, Txitxuri damutu egin jakon erabagi hori hartua, erabagi horretara bere burua lotuta ikusiaz. Eta erabagi berorretatik bere buru *Firi-firi* zalea askatzeko erabagi berori haustea izango dala onena eta, ea hauxe egin ez bagengi, ba, esan eustan unore onean aurkitu ninduan buruen egunean.

—Ez! —erantzun neutsan neuk.

—Ezetz dino? —dinost berak arpegia luze-luze eginda.

—Bai, behin.

—Ba, ez beit birritan esan, behin esanagaz nahikoa emon deust atsekaberik eta.

—Zer egingo jeutseagu, ba?

—Biribiltasuna kendu.

—Zeri?

—Zeri dino? Berorren ezezko biribil horrerri, nire bihotzarentzat ezpata zorrotza izan daiten gura ez badau.

—Biribila badok, zelan izan leitekek zorrotza?

—Ai, berorrek ez daki, antza, nire bihotzaren barri! Eta jakin behar leuke, ba, berorrek egin nau honen *Firi-firi* zale.

—Eta neu ez nok, ala?

—Baita. Haorretxegaitik berorregaitik eskatzen deustat, hain zuzen be, kendu degiola ezezko biribil horrerri daukan biribiltasuna.

—Baina, zelan kenduko jeutseagu, ba?

—Luzatuta.

—Eta zelan luzetu?

—Kondizino batzuk ezarrita.

—Kondizinoak gatzak izan beharko joek, gehiagoko barik jaten dogula emoniko berbea inork esan ez dagian. Tirok! Esan eik bat.

—Hiru esango deustadaz, baderitxo. Lehenengoa, Largo Caballero berak geuri aginduriko erreboluzinoa egitea; bigarrena, Gaubekak berorrek berari aginduriko liburua irarritea⁴³; hirugarrena...

—Nahikoa dozak aitatu dozaan biok.

—Eta nahikoa dira gatzak, oiez?

—Zein baino zein gatzagoak. Ai, hire burua! Asmau be egin dozak, gero, kondizino bi!

—Tira, ba! Luzatu daigun berorren ezezko biribila, kondizino panparroi biokaz, haonetara: «Ez dogu hausiko *Firi-firik* gehiago ez egiteko hartuta daukagun erabagia Largo Caballero berak geuri aginduriko erreboluzinoa eginda edo Gaubekak berorrek berari agindu eutsan liburua irarrita ikusi artean».

—Ondo jagok.

—Ondo dagoala dino? Ondo dago. Baina, neu ez nago hain ondo.

—Zer daukak, ba?

⁴³ [irarri: *inprimida*.]

—Neure kondizinoek neuk eskini deusadazan letxe berorrek ontzat hartuaz hartu dodan poza besteko handia dala eurotariko bat beteta ikusi artean, oraintxeganik igaro behar dodan egarria. Eta egarri honek ito ez banengi... Behintzat, ez dot bakerik eukiko kondizino bata edo bestea beteta ikusi artean.

—Zelango bata! Biak, Txitxu!

—Ai, ez, jauna! *Edogaz* batuta eskini deusadaz neuk kondizino biok, ugazaba.

—Hik egiteko ez dok asko.

—Gehiago be egingo neuke nik, oraintxeganik *Firi-firi* bat egiten hasi ahal izatearren. Beste egiune⁴⁴ bat egin ez bagengi, ugazaba...

—Ez, mutil.

—Orduan, Gaubekagaz egin beharko dot laster bat, berari jago-kon kondizinoa lehenbailehen berak bete dagian.

—Egin eik biaje on bat, Txitxu.

—Barre egiten dau, barre?

—Bai, ba; berak egingo deuan irribarreaz pentsetan.

—Burlatia al da gizon hori?

—Ez, ba. Joan hadi bildur barik. Ondo hartuko hau.

—Neu ondo hartzea eta neuk eskatuko deusadana arin egitea gura neuke.

—Horreek gauza bi dozak.

—Gauza bi eta *edo* barik, ugazaba.

Joan da Txitxu gurea Gaubeka gureagana.

Eta zuk, irakurle gurea, eukiko dozu, urrean, zertan geratu diran jakin gurea.

—Eta, Txitxu, zertan geratu haz Gaubekagaz, ba?

—Ondo hartu nau, ugazaba.

—Neu be ondo hartzen naiok, Txitxu.

—Eta, ganera, berorrek berari aginduriko liburua laster irarriko dauela esan deust.

⁴⁴ [egiunea: *tratoa*.]


—Laster egingo dauela neuri be esaten jeustak; baina beti jagok egiten hasteko, eta hasi barik ez jakiat zelan aingeru egingo dauen.

—Haorixe jakin baneu, jakin! Banoa barrero beragana! Ze arrano!

—Zer esaten?

—Laster egingo dauela esan deustala baina, nik lasterrago gura dodala!

1934ko agorrilaren 26an.



XLVI

MAURA GARRANDI ETA AZAÑA GIBELTXIKI

Maura Garrandi, Komentuerretako markesa, Txekoesloveniara edo holango leku urrun batera joateko asmotan dago, seguru be. Guk, geu seguruago egoteko, asmotan geratu barik, lehenbailehen joan daiten gura geunke. Eta gauza txarrik ez deusagu opa eta, baje on bat egin dagiala.

—Eta atzera ez daitela etorri, esan bei, ugazaba.

—Hik esateko ez dok asko.

—Nik esateko ez da izango asko, baina Maura Garrandik berak egiteko bai. Hori ezin bizi leiteke, berorren gogoz behintzat, Espainiatik kanpora luzaro. Drogan ibilteko, hemen dago ondoen.

—Ez jakiagu oraindino bakarrik ala lagunagaz joango dan.

—Euki, ez ei dauka lagunik. Baina nik neuk ipiniko neuskio bat, jasekoa.

—Nor?

—Azaña Gibeltxiki.

—Itxi eiok bakean Azaña gizajoari.

—Ai, ugazaba, itxi beharko, berorrek agindu ezkerok! Baina nor lagun jasekoagorik Azaña Gibeltxiki berau baino Maura Garrandirentzako? Lehenago alkarren lagun izanda, eta bata eta besteak lagun asko eukita, biok dagoz orain lagun barik. Ba, lagun barik biok dagozan ezkerok, biok izan daitezela alkarren lagun.

—Hiri akordauko ez jakanik!

—Txorierriko kanta zahar bategaz akordau gura neuke oraintxe. Mihinaren puntan daukat, ba... Nork leukan orain nik txikitan Txorierriko kantakaz akordetako neukan burua! A, bai, oraintxe akordetan naz! Hor doa.

*Nok leukon gurdi zahar bat
txirrinke zahar bigez,
botateko Pantxi Baltz
Martin Eperdigez!*

—Txitxu, hik burutara ekarri gura izan doan kanta zahar horretako *Baltza* ez zoan *Pantxi*, *Mari* baino, nire eretxian.

—*Mori* behintzat ez zan izango. Katalunian ei dabiltza orain batzuk *Mori* gora eta *Mori* behera.

—Ai, Txitxu! Kataluniako berbegitean, *Mori* bera *bera!* dok.

—*Behera!* bada, ez da izango *gora!* Baina guk, hori gorabehera, egin geinke aldakuntza bat geure kanta txorierritar politetan, Azaña horrek eta Maura horrek Espainia ederrean egin daben aldakuntzeaz besteko kalterik inori egin barik.

—Zelan, Txitxu?

—Haolan, ugazaba: *Mariren* lekuan *Azaña*, *Martinen* lekuan *Maura*, eta *Eperdiren* lekuan *Garrandi* ipinita. Begiratu ea aldakuntza honegaz gatzik galtzen ete dauen...

*Nok leukon gurdi zahar bat
txirrinke zahar bigez,
botateko Azaña Baltz
Maura Garrandigez!*

—Hik urrun botako heukez.

—Bai, ugazaba, neure eskuan euki ezker; eta ostikopean izan gura neuke.

Azaña gizajoari handiak jazo jakoz, ostikada bila bera ibili barik, bere gibela osatzearen joanda, laikoa dala, uste-uste barik Kataluniako San Hilario izeneko herrian, ur-etxe baten urak hartzen dagoala.

Bera sartu dan Hotel izeneko ostatu handitik, bera sartuaz batera, hainbeste handikik beste ostatu batera joatea erabagi dabe.

Alkateak, honeek handikiok egin deutsien beharrak emoniko atsekabea kentzeko, jai eder bat egitea gura izan dau herriko zelai nagusian, bertara herriko jente guztia batuta, gazteai han *sardana* jantzea egiteko dei eginagaz; Azaña udaletxeko balkoitik eurai begira dagoala, Azañaren ondrazako euron *sardana* jantzea izan eiten.


Baina jenteak ez-entzun egin deutsa alkate bihotz onekoari. Alperrik jo zan tanborra, bere aginduz, jente dantzaria eta ostekoa hara batzeko.

Domeka bat, etzi hamabost igaro zan domekea, egon zan horretarako ipinita. Eta arratsalde guztian egon ziran Azaña eta alkatea dantzarien begira, eta haorixe sueteori euki eben: *dantzarien begira* egoteko suetea; baina *dantzariak begira* egoteko sueterik ez eben euki.

Ondo begiratu ezker, arin ikusi be egin leike, Txixuren eretxian, ezin euki eikiela bigarren suete eder hau. Txixuren ustez, *sardana* jantzea, serio-serio egiteko jantzea da. Eta nor da kapaz, dino Txixuk berak, Azañaren aurrean, *sardana* jantzan ez beste edozein jantzatan, bere arpegiko garauai begira jantzan serio-serio ez erdi serio jarduteko?

Alkate kaiku horrek, inor horretan ipinten hasi barik, berak egin behar leuke pruebea. Ea bera kapaz bada!

1934ko irailaren 2an.



XLVII

EZ DIRA GUZTIAK LOTIAK

Egun bakotxeko egutegi-orriari hurrengo egunera artean bakean ixteko ohiturea daukat nik neuk, etxean nagoan artean. Eta Txixuk be bai, urrean; neu kanpotik ez nazan artean, behintzat.

Eguna bera norberaren aurrean dagoan artean atzea emon barik dagoala-ta, uste dot ez dala ondo, egunak berak atzea emon artean, berari jagokon orriari atzea ikustea.

Eta haorretxegaitik, ez dot ikusi agorrilaren 7an nire egutegi biak ekarri daben ikusteko gauzea hurrengo egunera artean: 8ra artean.

Baina hurrengo egun honetan euron lekuetatik kendu eta biak ipini dodaz —suetez be, biak batera—, neure begien aurrean.

Eta, neuk uste ez dodala, Txixuren begien aurrean be bai. Txixu, neuk igarri barik, neure atzean egon da, antza, orriok euron atzean zer dakarren ikusteko neuk besteko egarriaz.

—Holangorik ikusteko be! Batau euskerazkoa eta besteau erderazkoa dirala, gauza bardina dakarskue biok eta, suetez be, egun bat-baten.

—Izkirimiria da gauza hori, oiez? —dinost Txixuk.

—Bai, antza.

—Baietz esan leike, ba, barretxu bat edo beste be eragin deutso.

—Bai, ba.

—Baina berorrek ez dau irakurri ondo ez bata ez bestea.

—Zer dinok, Txitxu?

—Ondo irakurri balitu, ez ebalá berorrek barre egingo gehiagoko barik.

—Zelango *gehiagoko barik*?

—Ez ebalá egingo barre, izkirimiri-egile bion huts handi bat aitatu barik.

—Hutsen bat egin joek izkirimiri-egileok?

—Bat ez txikia. Begiratu beio lehenago euskerazkoari ondo, ea zer dinoan.

—Hauxe irakurten joat nik hemen:

«—Ulergatxa benetan guri jazoten jakuna.

Gaixo bardina daukagu eta osagile bardina,

eta niri ardaoa edatea galarazo egin deust eta zuri ez.

Zelan izan leiteke hau?

—Nik Patxikonetik edaten dodalako

eta zuk, barriz, osagilearen aitagarrebearenetik.»

»Baina, itxaron eik apur baten, hemen zeozer oker jagok.

—Ikusi dau zeozer oker dagoana. Haoraintxe lehen baino hobeto irakurri dauela esan leike orduan. Baina ikusi dau non dagoan okerra? Ez al dago osagilea ardaoa edatea bere aitagarrebearenetik ardaoa gastetan dauenari galarazoten agertzean?

—Bai, halantxe dok.

—Ba, irakurri bei barrero erderazko orria be. Beutso.

—Tirok, ba!

«—*No me explico lo que pasa.*

Tenemos la misma enfermedad y el mismo médico, y a usted no le prohíbe beber vino y a mí sí.

—*Pero es que usted compra el vino en casa del suegro del doctor.»*

—A, mutil, hemen be oker bardina jagok. Hemen be osagilea ardaoa edatea bere aitagarrebearenetik ardaoa gastetan dauenari galarazoten agertzen dok.

—Haoraintxe egin bei barre, esanik: izkirimiri bardina dakarre orri biok, eta biok huts bardinagaz.

—Huts handia dok, izan be, egile batentzat, eta bientzat be, zuhur antza emon gurarik egile berak edo eurak asmauriko ipuineko lagunari, horretan hasi eta gero, loak hartuta, zoro antza emotea.

—Ez eban loak hartzen, botazino egunetan, guk Txorierrin eza-gutu genduan taberneru zahar bat, herriko gizonak diputadu gehien edo kontzejal gehien lepotiko gastua egiten bere etxera joan daitezcan ahaleginak egiteko kontuan.

—Gero, badakizu, e? Bazkaltzen neure tabernara —esaten eutsen kolegiotik urteten ebeneko, polito-polito lepoan jota.

—Ondo dago —erantzuten eutsien baltzen alderdira botoa emonda urteten ebenak.

Eta bera pozik, hori entzuten ebanean. Ba, bera baltza zan, ika-ragarritzko baltza, bere tabernako ardaoa baino baltzagoa.

Eta berari «ondo dago» erantzutea, baltzai botoa emon jakelako seinalea zan berarentzat. Baina danak ez eutsien erantzuten «ondo dago».

—Nik karlistai emon deutset botoa —batek baino gehiagok erantzuten eutsan.

Berak gura eikcan baino gehiagok. Baina ez zan horregaitik ikarutzen. Baekian honeekaz be zelan jokatu.


—Zer esan dozu, adiskidea? —esaten eutsen.

—Nik karlistai emon deutesdala botoa. Ez dot inor engainau gura; eta horregaitik, jakin dagizun dinotsut, karlistai emon deutesdala botoa, ze arrano!

—Karlistai emon deutsezula zeure botoa? Tira! Ez gara horregaitik haserretuko, adiskidea. Ni neu baltza naz; baina neure suhina, badakizu, karlista handia da, munduan inor bada. Halanda ze, karlistai botoa emon badeutsezu, zoaz neure suhinaren tabernara, suhin hori dogu senitarteko karlista handia eta. Ez daukazu zertan joan

beste taberneru karlisten tabernetariko batera be. Badakizu: nire
suhina karlista handia da. Zoaz bere tabernara.

1934ko irailaren 9an.



XLVIII

TXURIK TXITXU ALKATE IZATEA GURA DAU

Txitxuren katuak, Txuri ospetsuak, zeozer emongo leuke bere
ugazaba ona, Txitxu bera, alkate izatearren. Eta esan be egin deutso
berari, gaur goizeon, neu eleizatik izan nazan artean:

—Ugazaba, zeozer emongo neuke nik neuk berori alkate izatearren.

—Alkate izatea baino gauza hobeagorik bajagok munduan, Txu-
ri —erantzun deutso Txitxuk behingoan, neu noiz etorriko ete nazan
begira egon barik.

—Hobeagorik egongo da. Baina nik, larregi eskatu barik, haori-
xe eskatuko neuke, neure eskuan balego: berori alkate izatea.

—Eta, neure eskuan bajagok alkate ez izatea?

—Berorren eskuan alkatearen zartea⁴⁵ egongo litzateke ondo.
Surtako hautsa batzeko eta neu lepoan joteko bartzuna egoten dan
baino hobeto.

⁴⁵ [zartea: *barea*.]

—Baina, nork egingo naiok ni alkate, neuk gura ez dodala?

—Ez al dau izan gura alkate berorrek?

—Ez, ez joat izan gura.

—Ez dauela izan gura? Ez da izango?!

—Ez, ez nok izango.

—Esan gura dot, ez dala izango egia berorrek alkate izan gura ez dauena.

—Bai, egia dok.

—Ba, orduan, atrapauta daukat berori; berorren atzean sinuka oraintxe dabilen sagua baino apur bat hobeto. Alkaterik beharbada, berorrek izan behar dau alkate, haorretxegaitik berorregaitik: alkate izan gura ez dauelako.

—Txorierriko gizon zelebre batek hauxe esaten eban kontzejal-botazinoetako egunetan serio serio: «Gizonak, entzun eizue ondo: alkate izan behar leuke alkate izan gura ez dauenak. Eta begiratu ondo nik neugaitik zer dinodan: nik ez dot izan gura alkate!».

—Berorrek ez dauka zertan esan horrenbeste; baina alkatetasuna opetsi egiten badeutsie, hartu barik geratu be ez gehiagoko barik.

—Opetsi, nork egingo jeustak niri, ba?

—Emon leikenak.

—Botazino barik?

—Botazino barik, *nonbrazinoz* egin leike berori kontzejal horretarako eskubidea daukanak; eta *nonbrazino* horren ostean egin leikie berori alkate berorren kontzejal-lagunak, botazinoz, txistua baino arinago.

—Niretzako ez dok egongo kontzejal-*nonbrazinorik* orain, Txuri. Katu gizajoorrek, ez eik egin txakur-amesik. Ez dakik ni karlistea nazala?

—Ez beit barrerik eragin, ugazaba. Kar, kar, kar!

—Negar eragingo deuat *eskuan* daukadan bartzunagaz, ez nazi la karlistea erakutsi gurarik *barreka* jarraitzen badok, jarraitu, apur baten be.

—Badakit ondo berori karlistea dana, berorrek egin nau karlista neu, hain zuzen be eta. Barre egiteaz ez dot esan gura izan berori ez

daukadala karlistatzako. Esan gura izan dodana hauxe izan da: karlista izatea ez dala gaur eragozpena. Eragozpena barik, karlista izatea, gaur, hartu-eragipena ei da, ugazaba. Agiri da, berorrek kalerik kale ibilita baino, nik, teilaturik teilatu ibilita, gauza gehiago jakiten dodala. Berorrek entzungo balitu etxe askotan euron teilatuetatik eta balkoietatik entzuten dodazan gauza asko! Baina kaleetara eurotara be heltzen da, urrean, kontzejal-*nonbrazinook* orain monarkikoen-tzako, karlistentzako eta erradikalentzako diralako zurrumurrua. Eta orain begiratu bei ondo: zurrumurru horren errazoiz, berorreri hiru aldeetatik jagoko, emoten bajako, kontzejal-*nonbrazinoa* hartzea. Ba berorrek hiru gauzok daukaz: monarkikotasuna, karlistetasuna eta erradikaltasuna, izanik, dan lez, *monarkikoa*, baina ez edozein modutakoa, *karlistea* baino; eta karlistea be —neu letxe—, onenetari-koa, *erradikala*.

—Barrabantxoorrek, ibili eta ibili, hurrean ipiniko nok kontzejal-*nonbrazino* hori hartzen.

—Ibili gaitezan geldiro-geldiro. Oraindino ez deutsie emon eta.

—Ez jeustek emon. Baina, emoten bajeustek emon, eta hartzen bajoat hartu, ez joat neuk itxiko kontzejaltasun hori gehiagoko barik.

—Eta alkate egiten badabe egin, asti gehiago hartuko dau alkatetasuna ixteko.

—Bai, horixe! Lehenago behintzat argi eta garbi erakutsiko joat neure alkatetasunean neuk zuzen jokatu dodala eta herria be zuzen erabilteko ahalegin zintzoak egin dodazala. Ba, egia handia esan joan, erdi euskeraz, erdi erderaz, txantxetan-benetan —benetan erdia baino gehiago—, hauxe esan dauenak:

«*Alkate*» es «*kalte*»,

si no es «zuzen» como «burduntzi».

—Jauna, zuzentasuna erakusteko, *burduntzia* baino beste gauza-rik ez dauka? *Burduntzia* ez beit erakutsi; behintzat, lukainka-zati bat, txorizo-zati bat, okela-zati bat edo urdai-zati bat bere punta zorrotzari biribilgarritzat ezarri barik.

—Hik holango biribilgarria laster kenduko heuskio.

—Bai, berorrek itxi ezkerro. Baina berorrek ez bei itxi alkate izateko erea aprobetxau barik, eskura bajatorko etorri.

—Heuk gura-gura dok, orduan, ni alkate izan naiten.


—Bai, ba; ondra handia izango litzateke niretzat berori alkatea izatea eta. Ez da edozein katu alkate baten katu. Eta, ganera, probetxua be eukiko neuke, ugazaba. Bake gehiago bai, behintzat. Herriari agintzen deitsan artean, ez deust neuri aginduko. Ene, ez bei eskua bartzunera eroan! Esku horretan gurago dot ikusi surtako bartzun motz hori baino herriko alkate-bara polita.

Txitxu bihotz biguna, esku eskoian bartzuna dauela, surtara begira parau da. Eta esku eskoiko bartzun horregaz suari eraginaz batera, esku ezkerregaz bere buruari eragiten hasi da, bere katu ospetsuari gustua emotearren, zer asmauko.

Eta, ibili eta ibili, haxe asmau dau. Ea ezin ete leiken berak, katu bateri gustua emotearren, alkatetasuna hartu, Maura Garrandik, lau katari gustua emotearren hainbeste barrabaskeria berak egin eta egiten itxi eban besteko *juridisidadeaz*.

Otxorio Gariartori itandu deutso, haoraintxe, ea zer deritxan. Arinago erantzun degion, bere katu nagusiarentzako gorantziak bialdu ei deitsaz.

1934ko irailaren 16an.



XLIX

BADABIL TXITXU ZEOZETAN

Atean da baten bat oraintxe. Bai, ba barriro be jo dau atea. Ondo kontuz jo be, gero!

Txitxuk, daukan gorragaz, ez gor handirik daukalako baina, ez eutsan entzungo. Baina entzun deitsat neuk, eta, Txurik entzun ete dauen ala ez begira egon barik, banoa neu atera ea nor dan.

—Nor da? —dinot neuk, nor dan jakin gurarik.

—Esan barik be igarri behar eban berorrek, ugazaba; ba jakin behar leuke berorrek, ahaztu ez bajako, nik zelan jotan dodan atea; baina esan behar badeitsat, esango deitsat.

—Heu haz, Txitxu?

—Bai, jauna. Zabaldur bei arin atea, ugazaba, neu estutu baino lehenago.

—Hator, ba, gizajo handiori. Zabaldur jak atea. Baina hik zabalago behar dok, urrean, oraingoan. Zelango zorroak dakarzak besapeetan? Mutil, ez jakiat estutuko ete hazan heu nahikoa eurok eta guzti barruan sartzeko. Ondo zabal hator eurokaz!

—Itxi beit bakean barrura sartu artean.

—Kostauko jak holan, aurrez, sartzea. Errazago sartuko heinteko alboz.

—Bai, surra okertuta!

—Ba, okertu eik, barruan sartu arterako.

—Ona daukat, euki be, oraintxe berau, beronegaz sinuetan ibilteko eta!

—Gorrituta daukak.

—Bai, ba; atea joten hainbeste bider erabili ezker...

—Orduan hik, Txixu, kanpotik izanda hona etxera hatorrenean, atea Txurik edo nik iregi daigun, surragaz joten dok hemen atea?

—Bai, ugazaba. Ez ginan geratu horretan, ba? Ai, berorren burua!

—Orain heu ez hadi geratu hor. Ai, hire surra! Izerditan daukak. Ekarri eik arin barrura, hotzitu barik.

—Itxi beit zorrook, barrura sartu ahal izateko, erarik onenean edo errazenean ipinten.

—Polito ipini be egin dozak, gero, bata zilbotaren ganean eta bestea mokor bien goitik. Ze polito! Sartu dozak, eta heu be sartu haz eurokaz, mutil. Ai, hire burua! Surra erabilteko baino gehiagotarako dala esan leikek.

—Beharko da burua, ugazaba. Txurigazkoa eta norbere barruagazkoa⁴⁶, bata-bestearen kalte barik, zabal-zabal egiteko. Zorioneko kontzejaltasun horrek ardurak emoten deustaz.

—Txixu, kontzejala ez hazala, nondik nora emon leik ardurarik kontzejaltasunak?

—Ai, jauna! Kontzejala ez naz; baina izateko arrisku handian ikusten dot neure burua. Eta haorretxegaitik, kontzejaltasuna hartu eta hurrengo egunean damutu egin lekidala kontzejaltasuna hartua eta, ordurako, badaezpadan be, kontzejaltasuna behar dan eskubideaz zelan itxi neiken pentsetan hasi naz.

—Hi, pentsetan hasi bahaz, ez haz geratuko pentsau barik.

⁴⁶ [norbere barrua: kontzientzia.]

—Eta badaki zer pentsau dodan?

—Ez heuk esan barik.

—Neuk esango deusat, ba. Hara zer pentsau dodan: neu kontzejal aterateko kandidaturak edo zerak egiteko ardurea Txurirentzat berarentzat itxita, haolangoxe *itxidaturak* edo diranak egitea. Beutso bat, irakurri bei.

—Heure gauzea dok eta, heuk irakurri eik.

—Ondo dago. Baina euki bei berorrek eskuan, ea ondo irakurten dodan ondo begiratzen dauela. Beutso!

—Tirok, ba! Hasi hadi irakurten.

—Eta berori begiratzen.

«Txixuk bere kontzejaltasuna itxi gura dau.»

→ Itxi dagiala

→ Ez dagiala itxi (*)

(*) «Itxi dagiala» gura dauen botanteak, bergantea ez bada, borrau beiz *ez dagiala itxi* dinoen herbak.

Eta «Ez dagiala itxi» gura dauen botanteak, kokoa ez bada, borrau beiz *itxi dagiala* dinoenak.

—Zer deritxo, ugazaba?

—Ondo irakurri doala, urrean. Behintzat, heuk irakurri doan letxe irakurri joat neuk be.

—Neuk neure begi txiki biokaz irakurri dodan letxe berorrek berorren lau begi handiokaz irakurri badau, esan leike biok be ondo irakurri dogula. Baina orain beste eretxi bat eskatzen deusat. Zer deritxo *itxidatureari* berari? Ondo eginda dago?

—Baietz esan leikek. Gaubekak egin jok, eztok?

—Bai, jauna. Tira! Egin, egin, esan leike neuk egin dodala lehenago, eta Gaubekak gero ipini hementxe papertxu honetan eta beronen antzeko beste hamahiru milatan. Hamahiru milaok horrako zorro biotan ipini ei deustaz.

—Hamahiru milagino agindu deusak? Bajagok herri honetan, ba, hurretan be, horrenbeste botodun?

—Gaur, ez; baina nik neure kontzejaltasuna, oraindino hartu barik daukadana, ixteko asmoa hartu daidanean, izan leiteke horrenbeste harenbaten egotea, bularreko umeetarainoko guztiak botoa daukiela.

—Hi haz mutila gauzak aurretizik pentsetan!

—Nik orain gura-gura neuke pentsau dagien kontzejaltasuna harturiko gizon guztiak, behin hartua damututa egon ezker, ixteko, neuk pentsauta daukadan botazino hori eskatu behar dabela. Jenteak pentsau ez dagian kontzejal-beharrak eurok uste eben besteko alo-gera ez dauela emoten ikusi dabelako ixten dabela eurok euron kontzejaltasuna. Jarraituko al deuste guztiak!

—Jarraituko deue, bai, batzuk, akordetan bajakek, harrika edo holan.

1934ko irailaren 23an.

Ondo ibili, irakurlea!

Liburu honek, gogo onez, berba honen aurretiko orrietan daukazan 49 *Firi-firi* gozotxuak, Txitxuk eta neuk gozo-gozotzat daukaguzanak, Txitxu oraindino kontzejal ez dala eginak dira.

Inoizkoren baten Txitxu berau kontzejal izatera heltzen bada heldu, jazo leiteke, Jainkoak halan gura izanik, beste *Firi-firi* gozo batzukaz *Firi-firi* izen beronegazko beste liburu bat geuk argitaratzea.

Halan nahi holan, ez geu ez zeu, badaezpadan, zer jazoko be, ez gaitezan ibili ilunetan!

Azkenengo orduan okerrik handiena

Liburuari azalean salneurritzat, prezioztat, zer ipini behar jakon jakin gura dauela Gaubekak oraintxe eta, ea zer esango deutsan itantzen etorri jat haoraintxe, arrapaladan, gure Txitxu bizkorra.

—Esan eiok ipini degiola 14 erreal.

—Hamalau erreal dino? Zergaitik ez hogeta lau, irabazte apurtxu bat aterateko?

—Esan joat: hamalau erreal.

—Tira, ba! Baina jakin bei horretxegaz egin dauela berorrek azkenengo orduan, okerrik handiena.

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Joetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga Lauaxeta: *Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro Otxolua: *Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlan eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Edo geuk edo inok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlan: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlan: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
Aurkezlan eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlan: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karnele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro Otxolua: *Ixtorio-Mixterio. Ipuin-Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzailea: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta Utarsus: *Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea Legoaletti: *Grimm anaien berrogeita hamar ume ipuin*
Sarrera, oharra eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbaluaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbaluaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea Oskillaso: *Euskaldunak Madrilén*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, Gotzaina: *Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Abarrak*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetaren baten olerkiak eta artikuluak*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Callastegi
Edizioa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga Lauaxeta: *Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizioa: Igone Etxebarria
34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maila. Euskerazko gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 1*
Sarrera: Igone Etxebarria
36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 2*
Sarrera: Igone Etxebarria
37. Bitoriano Candiaga: *Hitz lauz idazten*
Sarrera eta edizioa: Iñaki Sarriugarte Irigoien

38. José Basterretxea Oskillaso: *Kurloiak. Mutiko kaletarrak Bizkaian*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
39. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Bizkaia begietan (1913-1928)*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
40. Angel Ugarteburu Meabebasterretxea: *Milloitik mundura.*
Ume-denporako oihartzunak
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea
41. Georges Simenon: *Aspaldiko Maigret*
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
42. Felix Bilbao: *Ipuin-barreka*
Sarrerea: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria
43. Errose Bustintza Mañariko: *Ipuinik ipuin Mañarian gora*
Sarrerea: Jabier Kalzakorta
Edizioa: Nagore Etxebarria
44. Juan Bizente Gallastegi: *Tontorretik begira*
Abade baten oroipenak
Sarrera: Adolfo Arejita
45. Paulo Zamarripa: *Firi-firi. Ipuin eta nahaste*
Sarrerea: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria, Maribi Egia

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

35. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKUBETE NEURTITZ • 1
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria
36. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKUBETE NEURTITZ • 2
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria
37. HITZ LAUZ IDAZTEN
Bitoriano Gandiaga
Sarrera eta edizioa: Iñaki Sarriugarte Irigoien
38. KURLOIAK
MUTIKO KALETARRAK BIZKAIA
Jose Basterretxea. *Oskillaso*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
39. BIZKAIA BEGIETAN (1913-1928)
Ebaristo Bustintza. *Kirikiriño*
Testu aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
40. MILLOITIK MUNDURA
UME-DENPORAKO OIHARTZUNAK
Angel Ugarteburu
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea
41. ASPALDIKO MAIGRET
Georges Simenon
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
42. IPUIN-BARREKA
Felix Bilbao
Sarrera: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria
43. IPUINIK IPUIN MAÑARIAN GORA
Errose Bustintza. *Mañariko*
Sarrera: Jabier Kalzakorta
Edizioa: Nagore Etxebarria
44. TONTORRETIK BEGIRA
ABADE BATEN OROIPENAK
Juan Bizente Gallastegi
Sarrera: Adolfo Arejita
45. FIRI-FIRI
IPUIN ETA NAHASTE
Paulo Zamarripa
Sarrera: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria,
Maribi Egia



LABAYRU IKASTEGIA

bbk



ERIKO JAKINAREN
GOBIERNO VASCO

KULTURA MILA
Historia Publikoak Kulturaren
DEPARTAMENDO DE CULTURA
Viceconsejero de Política Lingüística



BFA DFB
Bizkaiko Foru
Aldundia
Foral de Bizkaia
Euzko
Lurak
Gobernaren
de Euzkadi



Sondikako Udala

ISBN: 978-84-92599-29-5

